


berria



PELLO RUBIO Elgoibarko Txillarre baserriko jabea
«Egigurenek eta Otegik ez balute kointziditu, seguru beste gauza batez ariko ginatekeela hizketan»

EUSKAL HERRIA | 4-5



Abenduak 27: euskaltzaleak indartzeko deialdia

Euskalgintzaren Kontseiluak milaka herritar elkartu nahi ditu Bilbo Arenan, «euskarari pizkunde berria emateko». Helburu nagusi horixe azaldu du Idurre Eskisabel idazkari nagusiak —argazkian, hizketan—. Euskalgintzako ordezkariekin batera aurkeztu du eguberrietarako mobilizazioa, Bilboko Kafe Antzokian. MONIKA DEL VALLE / FOKU **HARIAN** | 2-3

«Israelek nazioarteko zuzenbideko lege oro urratu du»

ITZIAR MORENO
Gazarako flotillako ekintzailea

MUNDUA | 16

Altzairuaren muga zergak %50era handitzea proposatu du Europako Batzordeak

EKONOMIA | 12



Argitxu Dufau
auzipetua sostengua emateko elkartu zirenei keinu egiten, atzo, Baionan.
PATXI BELTZAIZ

AKUSATUAK AKUSATZAIK

Korrikan migratzaile batzuei muga pasatzen lagundu zitelakoan epaitu dituzte zazpi lagun, Baionan. Migrazio politika salatu dute auzitegian.

EUSKAL HERRIA | 8

«Emakumezko idazleek gehiago arakatu dute pertsonaien kontzientzian eta gatazka psikologikoan»

PALOMA RODRIGUEZ MIÑAMBRES
EHUko irakaslea

KULTURA
| 28-29



«Euskarari pizkunde berria emateko», milaka euskaltzale bilduko dira abenduaren 27an Bilbon

- Euskararen «larrialdi linguistikoari» aurre egiteko, Euskalgintzaren Kontseiluak ezinbestekotzat jo du «euskaltzaletasunaren giharra indartzea».
- Iragarri dutenez, kultur kutsukoa izango da ekitaldia.

Olatz Silva Rodrigo

Euskara «larrialdi linguistikoan» dago. Hala ohartarazi zuen ia duela urtebete Euskalgintzaren Kontseiluak. Euren arabera, «asko eta agerikoak» dira azken hamarkadetako susperraldi aroa eten delako zantzuak. Horren aurrean, Kontseiluak bere gain hartu zuen larrialdi hori indarraldi bihurtzeko konpromisoa. Duela bi aste, Batuz Aldatu prozesuaren bidez 113 eragilek euskararen biziberritzean «jauzi bat» egiteko zenbait gako bildu dituen ituna plazaratu zuten. Bestalde, euskaltzaletasuna suspertze aldera, Kontseiluak dinamika bat du abian: lehen ekitaldi jendetsua abenduaren 27an izango da, Bilbon, «euskarari pizkunde berri bat emateko».

«Euskaltzaletasun garaia da; biltzekoa, elkarrekin arnasa hartzekoa», nabarmendu du Idurre Eskisabel Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusiak, ekitaldia aurkezteko Bilboko Kafe Antzokian egindako agerraldian. «Euskara lehen lerrora ekarri eta benetako jauzia eragiteko garaia» dela esan du. Harekin izan dira euskalgintzako zenbait ordezkari eta norbanako euskaltzale batzuk. Besteak beste, AEK-ko, Euskal Herriko Ikastoletako, Euskal Herrian Euskaraz-eko, Zenbat Gara-ko eta Elkarreko ordezkariak hartu dute parte agerraldian, baita BERRIAko zuzendari Amagoia Mujika Tolaretxipik eta Marketin saileko arduradun Ainara Lasak ere.

Etorkizuna «jokoan» dela ohartarazi du Eskisabelek. Hortaz, «itxaropen mezu bat» zabaldu nahi izan du. Ezinbestekotzat jo du «euskaltzaletasunaren giharra indartzea», euskara «kinka larrian» izan den beste garai batzuetan egin den bezala. «Euskarak eta euskal hiztun komunitateak izan ditu lehenago ere larrialdi gorriko uneak, behin betiko itzaltzeko arrisku momentuak. Eta euskaltzaletasunaren eskutik etorri da aldi bakoitzean pizkundea». Haren ustez, pizkunde hori

«milaka euskaltzale horiek une kritikoetan elkarrekin aritzeko eta egiteko izan duten gaitasunetik» etorri da.

Euskaltzaletasunaren bilgune handi bihurtu nahi dute Bilbo Arena datorren abenduaren 27an. «Euskararen normalizazioaren eta biziberritzearen aldeko indar berri bat sortzeko» lehen gune izan dadin nahi dute. Kultur kutsukoa izango da ekitaldia. Xehetasunak aurrerago zehaz-

tuko dituzte, baina jakinarazi dute musikak eta musikagileek, «euskararen soinu bandak», presentzia nabarmena izango duela. Eskisabelek kulturaren garrantzia azpimarratu du: «Euskarak, hizkuntza guztiek bezala, etorkizunik izango badu, unibertso bat behar du, zentzua emango dion irudi eta erreferentzia mundu bat. Eta unibertso hori kultura da, euskarazko kultura, zailtasun gehigarriak erantsiko dietela ja-



Euskarak, etorkizunik izango badu, unibertso bat behar du, zentzua emango dion irudi eta erreferentzia mundu bat

IDURRE ESKISABEL
Euskalgintzaren Kontseilua

kin arren euskaraz sortzen duten kulturgileek eskaintzen diguten unibertsoa».

Arrazoen areagotzea
Euskara larrialdian dagoela adierazteko, 2023an argitaratutako VII. Inkesta Soziolinguistikoa ekarri du gogora Eskisabelek, eta aipatu Ipar Euskal Herrian hiztun kopuru erlatiboa jaisten doala. Nafarroan, bestalde, hamar ikasletik seik ez dute inolako



Sarrerak, urriaren 16an

● Abenduaren 27rako sarrerak urriaren 16an jarriko dituzte eskuragarri, *Pizkundera.eus* webgunean. Bilbo Arenara joan nahi duen orok hamar euroko ekarpena egin beharko du, «badaezpada lekua hartu eta gero ez joateko tentazioari nolabait aurre egiteko», Idurre Eskisabel Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusiaren hitzetan. Ekarpene horrek artisten lana ordaintzen eta ekitaldiaren gastuen zati bati aurre egiten lagunduko du. Baina: «Garrantzitsuena egun horretan Bilbo Arena euskaltzaleon biltzergune handi bat bihurtzea izango da». Sarrera erosi eta gero joaterik ez dutenei sarrera beste norbaiti emateko eskatu die.



Urtebetearekin batera egin dira «euskara larrialdian dagoela esateko arrazoak». Aurtengo uztailaren aurkeztutako *Norantz doa euskara? Hego Euskal Herria 2036 proiektzio demolingüistikoa* ikerlanaren arabera, 2036an ez da arnagunerik geratuko —euskararen erabilera %80tik gorakoa den herririk—, eta arnagune erasanak ere desagertze bidean egongo dira —euskararen erabilera %60 eta %80 bitartekoa izaten da horietan—. «Arnaguneetan hiltzen %7,2 bizi ziren 1991n, %2,9 2021ean; eta %0,2 izan daitezke 2036an», ohartarazi du Eskisabelek. Alegia: «Proiektzioa betez gero, historian lehen aldiz, sozialki nagusia den ia lurralde eremurik gabe geldituko litzateke euskara». Hori horrela, hizkuntza politikan aldaketa handi baten beharra dagoela nabarmendu du.

Azken hamarkadetakoa suspertze aroa amaitu dela aipatu du Eskisabelek, eta atzeraldiaren arriskua «handia» dela. «Etorkizuna dago jokoan». Haren hitzetan, datuek «euskal hiztun komunitatearen minorizazio egoeraren berri» ematen dute, «egiturazko arazo baten berri». Izan ere, esan du datuok ulertzeko ezinbestekoa dela gogoratzea euskara lurraldearen zati batean baino ez dela ofiziala; hau da, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroako zati batean. Nafarroaren parte handi batean, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldiz, ez du ofizialtasunik.

«Oldarraldi judizial, politiko eta mediatikoa» ere jarri du mahai gainean idazkari nagusiak: «Arabian, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan euskaldun izendatutako eremuko koofizialtasuna zalantzan jartzen ari dira, minorizazioa gainditzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak eraisten ari baitira; desofizializazio prozesu batean gaude». Horregatik, ezinbestekotzat jo du abenduaren 27an euskaltzaleak biltzea eta euskaltzaleatasuna piztea. ●

harremanik euskararekin beren eskola ibilbidean, Eskisabelen hitzetan. Horrez gain, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako «gune euskaldunenetan atzera egiten ari da euskararen erabilera»; eta Euskal Herri osoan gero eta gutxiago dira euskaraz erdaretan baino errazago egiten duten hiztunak. «Hiztunen %17,5 baino ez dira egunerokoan euskara erdarak baino gehiago erabiltzen dutenak», erantsi du.

Indarraldira jotzeko lehen urratsa izan dadila

Euskalgintzako ordezkarien hitzetan, euskaltzaleek indarra dute larrialdiari aurre egin eta egoerari buelta emateko.



«Ez gara etsipenean geldituko; bagoaz indarraldira. Dinamika eta jarrera berri batzuen hasiera berri bat izango da ekitaldia»

NEKANE ARTOLA

Ikastolen Elkartearen lehendakaria

«Egoera honi buelta emateko gai garela sinetsi behar dugu, eta Euskal Herri euskaldun baterako norabide bat markatu dezakegula»

JOANMARI LARRARTE

Elkar fundazioaren lehendakaria

O. Silva Rodrigo

Larrialditik indarraldirako jauzia egitea ezinbestekotzat jo dute euskalgintzako eragileek, eta Euskalgintzaren Kontseiluak abenduaren 27rako antolatu duen ekitaldia izango da horretarako lehenengo urratsa. Kontseiluak Bilbon egin duen agerraldiko argazki jendetsuak argi adierazi du prest daudela larrialdiari aurre egin eta «euskarari pizkunde berria emateko».

«Euskararen etorkizuna jokoan dago, eta garrantzitsua da euskaltzaleok aktibatzea eta egoera horri bulkada emateko indarrak batzea», adierazi du Aize Otaño AEK-ko Artezkaritza Kontseiluko kideak. Eta antzera mintzatu da Joanmari Larrarte Elkar fundazioaren lehendakaria: «Larrialdian gaudela esan dugu, baina euskaltzaleoi eta euskalgintzako eragileoi dagokigu esatea larrialditik atera egin behar dugula eta horren aldeko lanean jarri behar dugula».

Dinamika abian jarri eta ekitaldia antolatzeke, gogoeta prozesu batean murgilduta egon dira eragileak. Are gehiago, «gogoeta prozesua etengabea» dela azpimarratu du Larrartek. Horrek eragin du «larrialdian egotearen kontzientzia» hartu izana eta «bestelako neurri batzuen premiaz» ohartu izana. Horrez gain, Larrartek gogoratu du hainbat eragile aritu direla Batuz Aldatu dinamika garatzen: «Hor badago adostasun bat zehazteko etorkizuneko hizkuntza politikek zer oinarri izan beharko litzaketen».

Nekane Artola Ikastolen Elkarteko lehendakariak gogoratu du ez dela lehenengo aldian euskara larrialdian dagoena. Hori gertatu denean, baina, «euskaltzaleok indarra» izan dute egoerari buelta emateko. «Orain ere bada garaia egoerari buelta emateko, gure indarrarekin pizkunde horri begira jarri, abenduaren 27an elkartu eta euskarari bere tokia eman eta erdigunean jartzeko».

Norabide baten beharra

Ainara Lasa BERRIAKO Marketin Sailko arduradunak azaldu du gaur egungo egoeraren ezaugarriak direla «egunerokoaren parte bihurtu den oldarraldi politiko, judizial

eta mediatikoa, eta hizkuntzaren auziari eragiten dioten mundu mailako beste fenomeno batzuk; globalizazioa, besteak beste». Hala ere, Lasak argi adierazi du Euskal Herriak baduela gaitasuna horiei aurre egiteko, baina horretarako beharrezkoa dela «norabide bat eta indar egituratu bat» izatea. Abenduaren 27a aktibazio horren lehenengo ekintza izan dadin nahi dute.

BERRIAKO kideak esan du euskaltzaleen «aktibazio soziala» erdigunean jarriko duela ekitaldiak. Era berean, ekitaldiaren «arnasa kolektiboak» norbanakoengan eragina izan dezan nahi dute. «Biharamunean egon dadila gogo bat, herriz herri, auzoz auzo eta sektorez sektore, pizkunde horretan nor bere alea jar dezan». Haren ustez, gaur egun ezinbestekoak dira «keinu pertsonalak» ere, eta garrantzitsua da euskaltzale guztiei «agentzia» ematea. «Interesgarria litzateke norbanako bakoitzak bere tokitik egitasmoak sustatzea, benetan hizkuntzaren auzia lehen lerroan egon dadin eta elkarrekin bultzatzea, hizkuntzak behar dituen babes sozial, juridiko eta politikoko guztiak eraiki daitezkeen. Horretarako, gizarte gisa bultzatzea egin behar dugu, eta gizarteak ez da inor berau osatzen duten norbanakorik gabe».

«Ez gara etsipenean geldituko, bagoaz indarraldira. Dinamika eta jarrera berri batzuen hasiera berri bat izango da ekitaldia», nabarmendu du Artolak. AEK-ko kideak, bestalde, espero du abenduaren 27ko ekitaldia «jendetsua» izatea eta Bilbo Arena betetzea: «Euskal Herriko leku guztietako eta belarri guztietako jendea etortzen baldin bada, horrekin helburua bete izango dugu». Espero du «indarra» eragitea, «euskararen normalizazioari eta biziberritzeari begira» bakoitzak bere aletxoak jartzeko gogoak izan dezan.

Larrartek, berriz, jendearengan «ilusioa eta itxaropena» piztu dadin nahi du. «Askotan geure buruan sinestea falta zaigu; egoera honi buelta emateko gai garela sinetsi behar dugu, eta Euskal Herri euskaldun baterako norabide bat markatu dezakegula». Argi utzi du ekitaldia lehenengo urrats bat besterik ez dela izango: «Honek ez dauka bukaerarik». ●

➤ Euskalgintzaren Kontseiluak agerraldia egin zuen atzo Bilboko Kafe Antzokian, euskalgintzako ordezkari eta norbanako euskaltzale batzuekin batera.
MONIKA DEL VALLE / FOKU



ANDONI CANELLADA / FOKU

Enekoitz Esnaola

ELGOIBAR— Iazko irailean Eibarrrera (Gipuzkoa) Arrate egun bezperako bazkarira joan, eta Edurne San Martin kazetaria parean tokatu zitzaion Pello Rubiori (Zumaia, Gipuzkoa, 1948), Elgoibarko (Gipuzkoa) Txillarre baserriko jabea-ri. Rubio Txillarreko elkarriketa politikoei buruzko kontu txikiak kontatzen hasi zen, jakin-mina piztu zitzaion San Martini, eta horrek azkenean liburu bat egin du, Asier Ibaibarriagarekin batera: *Txillarreko sukaldaria. Pello Rubiori elkarriketa* (Elkar). Atzo aurkeztu zuten, Donostian. Rubiok aitortu du pozik dagoela bake prozesuaren alde egindakoagatik.

Dokumentala ere egin dute, eta herriz herri hasiko dira ematen. Lehen saioa, datorren ostira-lean, Elgoibarren (musika eskola, 18:30), solasaldi eta guzti. Hogeitaka hitzordu dauzkate lotuta.

Txillarren gertatu zena kontatzeko gogoa al zenuen, Pello?

Ez da gogoa izatea edo ez. Ni ez naiz pertsona bat gauzak egiten dituen gero kontatzeko, baizik eta gehiago gustatzen zait gauzak egitea bizitzeko.

Txillarreko sukaldaria liburuan,

konta daitekeen dena kontatu al duzu?

Ez. Ezin izan dut dena kontatu. Batzuetan kontuz ibili behar da, eta, oraingoz, gauza batzuk gorde egin ditut.

1999an hasi zen dena.

Paco Egearekin eta Arnaldo Otegiarekin. Orduan gatazka politikoa zen Euskal Herriko auzi nagusia.

Zeure ekimenez hasi ziren hizketan.

Gauza zailak gustatzen zaizkit. Adibidez, 40 urte nituela, kalea utzi eta baserrira etorri nintzen, Txillarrera, baserritarak kalera jaisten ari ziren garaian. Hona etorri aurretik kooperatiba bateko arduradun nintzen, 150 langilerena. Baserrian, nekazaritza ekologikoari heldu nion, horretan artean jende gutxi ari zela. Eta 1999an esan nuen neure artean: «Zergatik ez bi mundu desberdin hauek, sozialistak eta ezker abertzalea, elkartu hizketarako?». Aukera neukan Egea eta Otegi elkartzeko.

Ezagutzen zenituen biak, Elgoibarkoak izanik.

Bai: Egea, neu aritu nintzen kooperatibatik; Otegi, garai bateko kaleko protestetatik.

Troskista zinen, LKlkoa, Gipuzkoako CC00ko zuzendaritza-

koa... Jendeak *españolista* deitzen zintuen.

Españolista ez, *puto españolista*. Ni konbentzituta banago gauza batzuekin, ez zait inporta zer deitzen didaten. Baina esan behar dut ni ez naizela sekula espainiarra sentitu. Ni euskalduna naiz.

Ez zeunden ETaren borroka armatuaren alde.

Ez naiz behin ere egon. ETA VIaren ondoren masa mugimenduetan sartu nintzen. Otegi, ordea, sekula ez zidan *puto españolista* deitu.

Zein zen Txillarreko elkarriketen helburua?

Nik nahi nuena zen bi mundu haiek hizketan has zitezela. Hasi, eta beti geneukan gai bat aztertze-ko, baina artean ez zegoen helburu zehatz bat. Neu ere esertzen nintzen mahaian. Tartean behin biltzen ginen; zeozer jan, berriketan egin, eta etxera. Lauzpabost aldiz elkartu ginen 1999an.

2000n Jesus Eiguren batu zen.

Egeak planteatu zion hori Otegi-ri, eta oso ondo hartu zuen, primeran, gogotsu. Dena dela, hasieran kostatu egin zen, Jesus pixka bat itxia delako, eta uztarri lanak egiten saiatzen nintzen ni. Lortu genuen aurrera egitea. Pernaldo Barrena ere hasi zen, Otegi-

proposatuta; Eigurenekin lehen bilera egin zenean planteatu zuen. Horrez gain, Otegi Eigureni eskatu zion alderdi sozialistako nafar bat ere egoteko, baina Eigurenek ezezkoa eman zion, esanez alderdia ondo ezagutzen zuela eta momentu hartan beste kide bat ekartzea konplikatua izango zela, horrek ez zuela asko lagunduko eta etorriko zela momentua.

Zein ziren gaiak?

ETAren eta Madrilen arteko Aljer-

ko elkarriketak, Ipar Irlandako akordioa, Hegoafrikako auzia, Lizarra-Garazi... Zer gertatu zen, zergatik... Eta erabaki bat hartu zuten: euskal gatazkan gertatzen zena gertatuta ere, mahaia ez apurtzea. Gertatu ziren gauzak, gertatu zirenez, bi aldeetatik: hilketak, jende pila bat kartzelara, lege kanporatzea... Egoera gogorak izan arren, neuk sekula ez nuen pentsatu mahaia hautsiko zenik.

2002ko azaroan elkarriketen oinarrien dokumentua sinatu zuten.

Jarri zuten zer helbururekin ari ziren hizketan eta mahaikoak zein ziren. Esaten zuten euren belaunaldiko arazo bat zela eta belaunaldi berriei ezin zietela utzi konpondu gabe, zintzilik.

2003an Patxi Lopez azaldu zen. Ordurako, lau urtean hizketan. Sentsazioa?

Guk kontua luzatzea nahi genuen. Izan ere, Espainian Aznar zegoen presidente eta ez zegoen ezer egiterik. Pazientzia izan behar genuen, aukera hobe baten alde zain egon. Eta beti diskrezioz aritu, Aznarrek jakin ez zezan zertan genbiltzan.

2004an, aldaketa.

Handia: Zapatero Moncloara. De-



«Gauza zailak gustatzen zaizkit. 1999an esan nuen neure artean: «Zergatik ez sozialistak eta ezker abertzalea elkartu?»»

«2004an ETaren gutuna jaso nuen, abuztuan. Gobernuari adierazi zion prest zegoela elkarriketa prozesu baterako»

«Sekula ez nuen pentsatu Txillarreko mahaia hautsiko zenik»

PELLO RUBIO

Elgoibarko Txillarre baserriko jabea

Euskal Herriko 2005eko eta 2006ko bake prozesua Pello Rubioren baserrian egosi zen: Txillarren. 1999an hasi ziren hizketan PSEko eta Batasuneko kideak, diskrezioz. Orain elkarrizketa haiei buruz mintzo da Rubio, liburu batean.

nen ezusterako, Madrilgo trenetako atentatuen ondoren. Otegik eta Egigurenek hemen zirela aitortzen zuten dena aldatu zela. Zapaterok onartu egin zuen prozesua aurrera eramatea. Beste klabe bat izan zen.

Atentatu haien egunean Otegirekin hitz egin zenuen.

Bai. Goiz hartan bertan, telefonoz, behin baino gehiagotan, eta esaten zidan euren ustez ez zela ETA izan. Otegik esandakoa Egeari eta Egigureni transmititu nien. Egigureni sekula ez diot galdetu zeini eman zion mezu hori.

Baina izan zenuen Egigurenen pausoen berri.

Egiguren Madrilera joaten hasi zen nahikoa azkar, Zapateroren inguruko jendearekin egotera, Txillarren zertan ari ginen azaltzeko. Esaten zien ezker abertzaleak prozesu bat hastea nahi zuela. Zapaterok ontzat jo zuen.

ETAren gutun bat jaso zenuen garai hartan.

Hala da. Gutuna ez dut hemen, baina gogoan dut 2004an jaso nuela, abuztuan. Egiguren Extremaduran zegoen eta Otegi hemen zebilen. Deitu nien, eta biak etorri ziren. ETAk Espainiako Gobernuari adierazi zion prest zegoela elkarrizketa prozesu baterako. Esango

nuke prozesu hartan helarazi zion lehen gutuna izan zela.

Zein izan dira Txillarreko mahaiazen gakoak?

Bat, pertsonak. Jesusek eta Arnaldok ez balute kointziditu, seguru beste gauza batez ariko ginatkeela hizketan. Ares etorri zenean, berriz, ematen zuen gasolindegiko hitzarmena negoziatzera etorri zela... Aresek ez zuen hemengoa apurtu, baina ez zuen lagundu. Jesusen eta Arnaldoren izateko erak desberdinak dira, baina izaera euskalduna dute. Ez dut esaten hori hobea denik, baina biak bata bestearen buruan sartzen ziren; zeharo enpatizatu zuten.

Beste gako aipagarririk?

Lekua. Ez da Txillarre delako, honelako toki asko dago-eta, baina nik esaten dut desberdina dela hizketarako honelako leku bat edo zulo bat izan. Neguan tximinia pizten nien. Leku batean gustura sentitzen bazara, berriz ere joan nahi duzu.

Aznarrek ez al zuen ezer jakin?

Ez. Diskrezioa izan zen gure beste gako bat. Bileratik bilerara zuzeneko harremana izan behar zen, eta, gu diktadura garaikoak izanik, errekadista sistema erabili genuen, 2000ko hamarkadan egon arren. Otegiren etxera zer-

baitetara joaten banintzen, barazki poltsarekin joaten nintzen, disimulatzeke, edo Otegi neure furgonetan barazki kaxa artean ekarri izan dut. Hura atxilotu eta Rufi zenean nire kontaktua, Oiarzunearaino joan behar izaten nuen hari gauza bat ematera edo esatera. Jesusengana Donostiaraino ere bai. Modu klandestino bat zen.

Faxa ere erabili zenuen une garrantzitsu batean.

2004ko azaroan. Batasunak Belodromoko proposamena aurkezte-



«Egigurenek eta Otegik ez bazuten kointziditu... Bien izateko erak desberdinak dira, baina izaera euskalduna dute»

«Prozesuak pila bat gauza ematen dizkit. Aberastasuna askotan da nola zauden sentitzea; nik bizipoza izan dut eta dut»

ko atarian, Elgoibarko denda batek Moncloara faxez pasatu nuen dokumentu bat, Rubalcabak eta Zapaterok jakin zezaten mitineko ardatzak zein izango ziren. Aste hartan, aurretik bilera bat egin zen hemen, eta fax hura bidaltzea onartu zen. Handik gutxira, Zapaterok Kursaaan esan zuen bake gizona zela Otegi, eta hori esatea ere prestatuta zegoen. Erabaki zen gizarteari mezu batzuk botatzen hastea, esanez bezala bazetorrela zer bait.

Sukalde lan handia, beraz, Txillarren, baina bi zentzuetan.

Beti prestatzen nien zer bait jateko, bertako produktuekin. Gosaria, bazkaria edo afaria, denetik egiten genuen, tokatzen zena. Sukaldaria nintzen, zerbitzaria, eta opari emalea ere bai, hemendik denak joaten zirelako bertako produktuekin, poltsatxo batean. Baserriko ohitura horri eutsi nion.

Bidaia garrantzitsu bateko txofer ere izan zinen.

2005eko ekainean, Genevara. Han bildu ziren lehen aldiz Egiguren eta Josu Urrutikoetxea, gobernuaren eta ETAren ordezkari. Jesusek galdetu zidan ea lagunduko nion. Baietz nik. Hartu beste baten kotxea, hartu ogitartekoak, eta han aurkeztu ginen bi baserriar Genevan, President Wilson hotelean. Hemendik abiatzeko, orde, Jesusen bizkartzainak gainetik kendu behar izan genituen, ertzainak, esanez Bartzelonara gindoazela, Jesusek medikuarekin hitzordua zuela-eta... Ez zen egia; ezin genien esan Genevara gindoazela!

EAJko kiderik ez zen Txillarren izan.

Inor ere ez. Zergatik? Alderdi sozialistaren eta Batasunaren arteko prozesu bat zelako. EAJ ere urteetan ez zen enteratu hemen zer gertatzen ari zen, eta badakit haserretu egin zirela. Maria Antonia Iglesias kazetariaren bidez dakit hori, liburu bat idazten ari zela EAJko batek Sabin Etxean esan ziolako. Loiolako Mahaian bai, egon zen EAJ, 2006an. Loiolako Mahaia martxan jartzeko erabakia ere hemen hartu zen.

Zapatero etxean izan zenuen, 2018an.

Eta niretzat ohorea izan zen. Pertsona da Zapatero, eta bat pertsona bada, konponduko gara, desadostasunak izan arren. Gizon atsegina da. Otegik eta biek bazkaldu zuten, bakarrik, Otegik «Pello, etor hadi» esaten zidan arren. Baina ez; biak bakarrik egon zitez nahi nuen. Bazkaria prestatu nien, eta sukaldean egon nintzen; hiruzpalau metrora, baina aparte. Arratsaldeko partea desberdina izan zen, Eduardo Madina eta Egiguren kafera azaldu zirelako,

eta orduan bostok kontu-kontari egon ginen.

Ez zenuten argazkirik atera.

Madinak esan zidan halako batean, biok mahaiazen izkina batean geundela: «Begira zer argazki historiko dagoen hemen!». Artaburu bat naiz, orde!... Ez nengoen argazkian pentsatzen, juntadizoa atsegina izan zedin baizik. Txillarre atarian besarkada batekin agurtu zuten elkar Zapaterok eta Otegik, eta orduan ere ez genuen argazkirik atera. Argazkiak atera eta saldu izan banitu, jubilazio ona nuke... Baina naizen bezalakoa naizelako irten da aurrera Txillarrekoa.

Liburuan diozu ez duzula sekula beldurrik sentitu, baina errespeta beti izan duzula.

Hemengo berri hedabideetan ateratzen hasi zenean, oraintxe dela hogeitaz urte, Madrilan prozesuaren kontrako izugarritzko giroa zegoen. PP eta eskuin muturrekoak egurra ematen ari ziren, bete-bete. Nire bizitzan ezer ez diot izan beldurra. Errespetua gauza guztiei, baina beldurra, ez. Zergatik? Beldurra burua blokeatu egiten dizu, ez dizu lagatzen pentsatzen eta erabakiak hartzen. Errespetuarekin aukera gehiago edukiko dituzu erabakiak hartzeko. Hala ere, orduan baten bat hona etortzen bazen ez dakit zertara, sasi artean baneukan bidetxo bat eta ez ninduketen harrapatuko... Hemen inguruan zelatan ibili ziren batzuk; geuk ikusi genituen, eta inguruko baserriarrek ere kontatzen zizkidaten gauzak.

Zer eman dizu prozesuak?

Pila bat gauza. Aberastasuna ez da diru edo gauza asko edukitzea; askotan da desberdinarekin berriketan egotea, edo barrutik nola zauden sentitzea, eta nik bizipoza izan dut eta dut.

Otegiren ama zenaren errautsak Txillarren daude.

Arnaldo kartzelan zegoela hil zen haren ama, eta, handik egun batzuetara bisitara joan ginenean, errautsak Txillarren botako al nituen esan zidan. Balekoa eman nion. Bi gauza eskatu zizkidan: bertako fruta arbola izatea eta fruta gorrikoa. Garbi zegoen: gerezi arbola. Sartu genuen. Horrek erakusten du Otegirentzat zer garrantzitsua izan den Txillarren bizitakoa.

Helburua beteta, Pello?

Hasieran, helburua hizketan hastea besterik ez zen, baina gero gauzak nola joan ziren ikusita, bakea zen helburua, zergatik ez? Bide bat egin da, ikusi denez. Oraindik badaude presoak, baina bukatu zen urrunketa politika; baimenekin eta baldintzapean libre irteten ari dira... ●



← Cerdan auziko ikerketa batzordea, atzo. JESUS DIGES / EFE

Joxerra Senar

Astebete falta da Nafarroako Parlamentuan *Cerdan auziko* ikerketa batzordeko lehen agerraldia hasteko, eta ia ziurrenik bertan izango dira azken lau legegaldietako lehendakariak. PSNk, EH Bilduk eta Zurekin Nafarroak erregistratu dute batzordearen amaieran Yolanda Barcina (2011-2015), Uxue Barkos (2015-2019) eta Maria Txibite (2019tik hona) bertara joango direla. Hala eskaini bazaio ere, Geroa Baik ez du sinatu proposamena, baina ontzat jo du: «Ez diogu uko egiten ikeritutako garai osoko lehendakariak bertaratzeari. Zorroztasunez eta dagokionean arituko gara, eta ez prentsako tituluek baldintzatuta», azaldu du Pablo Azkona Geroa Baiko eledunak.

Berez, datorren asteko bileran aztertuko dute eskaera hori. Eskuineko oposizioa behin eta berriaz eskatzen ari da Maria Txibite Nafarroako Gobernuako lehendakaria batzordetik pasa dadila. Atzo bertan, ikerketa batzordearen bileran, Txibite soilik joateko PPren eskaera atzera bota zuten PSNk, EH Bilduk eta Zurekin Nafarroak —Geroa Bai abstenitu egin zen—. Horrez gain, Jose Luis Arasti Ekonomia eta Ogasun kontseilaria bertaratzeko UPNren eskaera ere atzera bota zuten lau

indarrek atzo. EH Bilduk, berriz, CPEN Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko hiru goi kargudun bertaratzeko eskatu zuen, eta proposamen hori onartu zen. Hala, orotara, 44 pertsona daude oraingoz deituta *Cerdan auziko* ikerketa batzorderako.

Eskaera aurrera ateratzen bada, batzorde amaieran agertuko dira Txibite, Barkos eta Barcina, bakoitzari dagokion garaiko adjudikazioez hitz egitera. Hiru

lehendakariak adjudikazio politikorik egin ez dutenez, «balorazio politikoa» eskatuko zaie, hiru talde sinatzaileek azpimarratu dutenez. Barcinaren agintaldian abiatu zuen Geoalcalik Muga meatiaren proiektua, eta lehen pauso haitiaz galdetuko diote, baita Accionak Nafarroako Ubidaren lehen fasea zabaltzeko obretan izan zuen partaidetaz ere. Barkosen garaian, berriz, Servinabar eta Accionari esleitu zitzaizkien

hainbat herri lan —Nafarroa Arenaren bulegoak, Artxibategiaren zaharberritzea edo Nasuvinsaren babes ofizialeko etxeak—. Alta, inbertsiorik polemikoena, Belatekoa, Txibiteren garaikoa da.

Eskuinaren estrategia

Araizek azaldu du eskuinaren estrategia amaitu nahi izan dutela hiru lehendakariak bertaratzeko eskatuta. «Astero ari dira eskaera hori egiten, zirkulu berean bira-

ka, eta ematen du garrantzitsua dela Txibite etorriko ote den jakitea, eta ez zer gertatu den argitzea. Guk esan genuen ez genuela baztertzen Txibite etortzea, eta hori amaieran egin zitekeela». Araizen arabera, behin informazio guztia eta agerraldi guztiak entzunda, hiru lehendakariak, Txibitek barne, euren agintaldietako balorazio politikoa egiteko aukera izango dute horrela.

UPNk ez du gustuko izan hori. «Lehendakari guztiak edo bakar bat ere ez: hori nahi dute, eta gu ez gara joko horretan sartuko». Javier Esparzaren arabera, Maria Txibiteren gobernuaren gain dago ustelkeriaren susmoa, baina hodei hori beste agintaldietara hedatu nahi dutela iritzi dio. «Bilduk dio eskuinaren estrategiarekin apurto nahi dutela, baina ez al geunden hemen ikertzeko?».

Arreta eman du Geroa Baik hiru lehendakarien agerraldi eskaera ez sinatu izanak. Bilera hasi baino minutu batzuk lehenago jaso dutela eta aztertu egin behar dutela azaldu du Pablo Azkonak. «Proposamena aztertuko dugu, eta, jakinda lehenago edo geroago igaroko direla, gu ez gara kontra jarriko. Garai egokia noiz den ikusi beharko dugu», zehaztu du.

PPko Javier Garcíaren arabera, Geroa Bai bereizi izana «gobernuko bazkideen arteko eztabaidaren isla da». «Txibiteren erantzukizun politikoaren argazkia lausotu nahi dute», kritikatu du. Aldiz, Zurekin Nafarroako Miguel Garridoren arabera, batzordea «gardentasunez» ari da. «Batzuek batzordea instrumentalizatu nahi dute, eta guk erakutsi dugu gobernu gardena dela».

Arastiren agerraldia

Eskuineko oposizioa kritiko azaldu da Jose Luis Arasti bertaratzearen aurka bozkatu dutelako. Gobernuaren barruko mezu elektroniko batzuetan aipatzen da Belateko tunelen kontratazio mahaiko desadostasunen berri bazuela Arastik, eta, horregatik, agerraldi bat egin dezala eskatuko dute. PSNko Javier Lekunberriren arabera, hobe da lehenik posta elektroniko horiek idatzi dituztenei entzutea eta gero erabakitzen joatea beharrezkoa ote den edo ez. «Gaur-gaurkoz, ez dago nahikoa edukirik. Horrek ez du esan nahi aurrerago haren agerraldia inportantea izango ez denik». ●

‘Cerdan auziko’ ikerketa batzordean nahi dituzte Txibite, Barkos eta Barcina

- PSNk, EH Bilduk eta Zurekin Nafarroak aurkeztu dute eskaera, eta datorren asteartean bozkatuko dute.
- Geroa Baik ontzat jo du hiru lehendakariak deitzea. UPNk salatu du Txibiteren ardura lausotu nahi dutela, Barcinarekin eta Barkosekin ere lotuz.

Herritarren konfiantza gakotzat jo dute demokrazia indartzeko

- Gobernu Irekirako nazioarteko goi bilera egiten ari dira Gasteizen.
- Eusko Jaurlaritzako Autogobernu sailburu Maria Ubarretxenak gardentasunaren alde egin du, demokraziaren kalitateari eta erresilientziari buruzko solasean.

Maddi Iturriotz Alkorta

GASTEIZ— Nola eraiki konfiantza herritarrekin? Hori izan zuten hizpide, *Krisi ugariko testuinguru globalean demokraziaren kalitateak eta erresilientziak* izeneko solasaldian atzo, Gasteizen, Gobernu Irekirako Aliantza egiten ari den goi bileran, Europa jauregian. Ehunka politikari eta gizarte zibileko lider bildu dituzte asteon bertan, demokraziaren gainbeherari aurre egiteko asmoz, gobernuen irekitasunaz eta gardentasunaz eztabaidatzeko. Mahai inguruan Maria Ubarretxenak Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak «gardentasuna» eskatu zuen, beste bederatzi aditurekin batera egindako mintzaldian.

Hizlariak gaur egun demokraziak dituzten zenbait krisi zerrendatu zituzten: klima aldaketa, mehatxu nuklearrak eta, bereziki, autoritarismoak aipatuta. Azken horiei buruz argi hitz egin zuen Sarah Wesonga 19. Artikulua erakundeko aktibistak. Haren esane-

tan, gizartea kontraesanean bizi da. Wesongak esan zuenez, gobernuak inoiz baino konpromiso gehiago hartzen dituzte gardentasunari dagokionez, baina herritar xumeek informazioa eskatzean besterik lortzen dute: «Isiltasuna edo hala-holako erantzunak».

Testuinguru horretan kokatu zuen desinformazioa eta albiste faltsuak ugaritu izana, eta, horren eskutik, autoritarismoa. Teknologia proposatu zuen erronka horri aurre egiteko tresna moduan: «Teknologia egon daiteke gazteak demokraziara gerturatzeko gakoa. Gainera, plataforma digitalak erabiliz, egiazkoa den informazioa zabal dezakegu».

IDEA Demokraziarako eta Hauteskunde Laguntzarako Nazioarteko Institutuko aditu Kevin Casas-Zamorak autoritarismoei aurre egiteko beste puntu garrantzitsu bat aipatu zuen: konfiantza. Azaldu zuenez, demokrazia indartsuagoa da politikan konpromiso handiko biztanleak dituzten herrialdeetan. Costa Ricako ministro ohiak adierazi zuen autoritarismoak indarra duten herrialdeetako biztanleek demokrazia eta justizia ez dituztela loturik ikusten: «*Mundu demokratikoa* deitzen diogun horretan, herritarren %1ek du aberastasunaren %99, gehiago ez esatearren. Beraz, normala da jendea ez fidatzea demokraziekin». Esan zuen herritarren konfiantza berriz irabazteko haien eguneroko arazoak konpontzen hasi behar dela.

Hegoafrikako Administrazioaren ministro Inkosi EM Buthelek, berriz, gobernuen egiturari jarri zuen arreta. Aipatu zuen herritarren konfiantza lortzea funtsezkoa dela demokraziaren etorkizunerako, baina esan zuen horretarako gobernuak aldaketak egin behar dituztela barneko egiturari: «Alferrikakoa da herritarrei konfiantza eskatzea guk geure burua aztertzen ez dugunean eta aldaketarik egin gabe jarraitzen dugunean».



Imanol Pradales eta Pedro Sanchez, atzo, Gasteizen. ADRIAN RUIZ DE HIERRO / EFE

Pradalesek Sanchezi esan dio akordioak betetzeko daudela

Gurutze Izagirre Intxauspe

«Tokiko gobernuak gaitasun politikoak behar dituzte erronka globalei aurre egiteko», adierazi zuen atzo Imanol Pradales Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, Gasteizen, Europa jauregian egiten ari diren nazioarteko goi bileran. Gobernu Irekiaren Aldeko Elkarteak antolatuta egingo dute ostegunera bitarte, eta Pedro Sanchez Espainiako goiburua ere Gasteizen izan zen atzo. Akordioei balioa eman zien Pradalesek, eta, Sanchez bertan zuela, zera gaineratu zuen: «Akordioak lortzea ez da nahikoa: bete egin behar dira hartutako konpromisoak». Gernikako Estatutua betetzeko dago, 46 urte joan baldin badira ere hura onartu zutela. Aurten itxiko zutela adostu zu-

ten EAJk eta PSOEk, Sanchezi presidente izan zedin alderdiek egin zuten akordioan.

Gobernantza irekiei buruz eztabaidatzeko egiten ari den nazioarteko goi bileran, Pradalesek gaineratu zuen lortutako akordioak betetzeak konfiantza indartzen duela, eta hori testuinguru zabalera eraman zuen: alderdi, erakunde eta haien eta herritarren artera, hain zuzen.

Herritarrek erakusten duten erakundeekiko eta alderdiekiko atxikimendu falta gero eta nabarmenagoa da, eta Pradalesek esan zuen horri aurre egiteko «akordioaren kultura erein» behar dela. Ezberdinen arteko akordioak defendatu zituen, ezberdinen arteko kontsentsuek akordioaren sendotasuna bermatzen dutelakoan.

Erabakiak hartzeko orduan

deszentralizazioaren alde egin zuen, eta tokiko gobernuak tokiko komunitatearekin eta eragileekin «berritze demokratikorako egiten duten ekarpena» defendatu zuen. «Horregatik, Europar erabakiak hartzen diren tokietan parte hartu nahi dugu, eta gure balioak partekatzen dituztenekin aliantza berriak eraiki», esan zuen.

Izan ere, azaldu zuen tokiko gobernuak gertuagotik eza gutzen dituztela herritarren arazoak, eta, hori dela eta, herritarren beharrei hobeto erantzuten zaiela. «Justizia kontua da Euskadiren gisako gobernuak gaitasun politikoak izatea erronka globalei erantzuteko».

Hizpide izan zuen Palestina, halaber, eta «bidezko irtenbide iraunkorra» eskatu zuen. ●



«Hitz gutxiago eta ekintza gehiago. Ereduaren bidez erakuts dezagun, eta jar dezagun praktikan hemen ikasitakoa»

MARIA UBARRETXENA
Gobernantza sailburua

Ubarretxenak, Goodmanen proposamenaren bidetik, argi adierazi zuen herritarren parte hartzea lortzea agintarien eginkizuna dela: «Herritarren parte hartzea lortzeko ez da nahikoa gure leihoak gardenak izatea, geuk ere gardenak izan behar dugu». Amaieran hitz gutxitan laburbildu zuen politikarien eginbeharra: «Hitz gutxiago eta ekintza gehiago. Ereduaren bidez erakuts dezagun, eta jar dezagun praktikan gaur hemen ikasi duguna». ●

Isun eskaera iazko Korrikan migratzaileei laguntzeagatik auzipetutakoen kontra

- Gehienez ere 1.500 eurorainoko isunak eskatu ditu prokuradoreordeak sei auzipeturentzat.
- Jende saldoa elkartu da Baionako auzitegi aitzinera, epaituei elkartasuna adieraztera.

Leire Casamajou Elkegarai

BAIONA — Auzi saioak dena zalan-tzan ezarri badu ere, iazko Korrikan ustez migratzaileak «talde antolatuan» muga zeharkatzen lagundu zituzten zazpi auzipetuetatik sei zigortzeko galdetu du prokuradoreak, hala nola, LAB sindikatuko Eñaut Aramendi eta Argitxu Dufau, EH Bai eta Etorkinekin kolektiboko Jakes Bortairu eta Dominika Dagerre, Bidasoa Etorkinekin elkarteko Aintzane Lasarte eta Frantzia Intsumisoko Thomas Dubois; 1.000 eta 1.500 euro arteko isunak eskatu ditu haien kontra, horietako batzuk gibelapenarekin. Azkenik, Fernand Perret kargubetzeko galdetu du. Epaiaren deliberoa heldu den abenduaren 16an jakinaraziko diete.

Joan den urteko martxoaren 14an, Korrika abiatu zen egunean, giza eskubideen aldeko hainbat militantek 36 migratzailei lagundu zieten Irun eta Hendaia lotzen dituen Santiago zubia zeharkatzen. Handik gutira, hainbat kolektibok horien gain hartu zuten «desobediencia zibileko» ekintza hura; urri hatsarrean, gero, Frantziako Justiziak ekintza horrengatik deklaratzera deitu zituen kolektibo horietako zazpi pertsona. Hendaia komisarian sei orenez atxiloturik egon ondotik, epaitegian



Elkarretaratzea, atzo, Baionako auzitegi aitzinean, auzipetuen sostenguz. PATXI BELTZAIZ

deklaratu zuten, eta, «pertsonek trafikoko talde antolatuaren ustezko delitua» egotzita, atzo arratsaldean epaitu zituzten.

Auzia hasterako, epaileak ohartarazi zuen auzitegia ez dela leku egokia politika egiteko, eta jendearen mintzaldiek ez zutela horretara bideratuak izan behar.

Ordea, besterik ez zen izan, hala auzipetuen nola lekukoen eta abokatuen partetik. «Migratio politika arrazista eta hiltzaileak» salatzeraz etorriak ziren auzira, politika horiei emandako erantzun gisa baitute iazko martxoko ekintza, hain zuzen. Auzipetu zituztenaz geroz, *J'accuse* (salatzen dut) autoinkulpazio kanpaina abiatu zuten, eta, atzo adierazi zutenaz, 5.000 jende inguruk izena emana du orain.

Zazpi auzipetuetatik sei baizik ez ziren hor atzo; Duboisek bere abokatuaren bidez egin zuen defentsa. Beste seiek euskaraz

deklaratzeko galdegin zuten, baina ez zieten onartu, «auzitegia egoitza publikoa» dela argudiatu eta orduan Frantziako Estatuko hizkuntza aplikatzen zaiola, hots, frantsesa. Bortairuk, beraz, ez zuen deklaratu, ez baitzuen onartu epaileari frantsesez zuzentzea. Besteek, haatik, hitza hartu zuten bata bestearen ondotik, epaileak agindu erritmoan.

Auzipetuek «Frantziako eta Espainiako estatuen eta Europaren migratio politikak» salatu zituzten behin eta berriz, azaltzeko zerk bultzatu zituen ekintzaren egitera. Ordea, ez zen argi geratu azke-

nean zer izan zen delako ekintza hori, auziaren «funtsaz» galdeturik auzipetuek erantzun politikoa baizik ez baitzuten eman. «Elkartasun kontua da», erran zuen Dagerrek, «eginbehar moral, sozial eta politiko bat». Dufauk Euskal Herriaren nazio izaeraren gaia ekarri zuen, Frantziaren eta Espainiaren arteko muga zalantzan jarri eta «harre-ra herria» aldarrikaturik. Aramendik berak Europako «harresi» politika «hiltzailea» salatu zuen.

Itzulpen okerrak

Afera da auzi osoan froga baliagarri bakarraren arabera jokatu dutela epaileek. Erabilitako bideoa bederatzi minutu eta 31 segundokoa da, *Ahotsa Info*-ren Youtube katean libreki ikusgai dena: auzipetuetatik zenbaitek Korrikaren abiatze eguneko ekintza kontatzen dute bideoan, baina migratzaileekin mugaren zeharkatzerik ez da aipatzen; Hendaia Baionarako bidean lagundu izana besterik ez da. Batetik, hori azpimarratu zuten abokatuek, eta, bestetik, ezin dela erran larru kolorean besterik ez oinarrituta, bideoan auzipetuen ondoan agertzen diren «afrikar itxurako» pertsonak legez kanpoko atzerri-tarrak zirela.

Bi elementu horiei beste bat ere gehitu zioten: bideoa euskarara hutsean da, eta prozedurarako bideoaren edukia frantsesera nork itzuli duen ez dute zehaztu inkestaren agirian. Hots, salatu dute itzultzaile ofizial bati dei egin ez izana, eta horrek ekarri dituen hutsak ere azpimarratu dituzte: adibidez, bideoan, 36 *lagun* aipatzen dituzte militanteek, baina *pertsonek* hitzaren zentzuan, eta ez *adiskide*; epaileek okerrak ulertu eta *adiskide* adiera eman zioten, ordea.

Talde antolatuan aritu izanaren kontra ere egin zuten beste behin abokatuek, haien ustez eta bideoak eskaintzen dituen informazioen arabera ezin baitaiteke ondorioztatu «duela denbora bat elkarrekin antolaturik» ari den talde batek egin zuela ekintza; izan ere, bakoitza bere izenean mintzo da bideoan. Kargugabetzea galdegin zuten zazpi auzipetuetarako. ●



LAN ESKAINTZA

Ordezkapen bat egiteko, **jardunaldi osoko lanaldirako, irakaslea** behar dugu.

Lanposturako oinarritzko eskakizunak :

Titulazioa :

- ★ Edozein filologia edo itzulpengintza gradua.
- ★ Gutxieneko euskara maila: C1, EGA edo baliokideak.
- ★ Gutxieneko ingeles maila: C1 edo C2
- ★ Bigarren hezkuntzarako irakaskuntzako masterra.

Emango dituen ikasgaiak :

- ★ DBH 4: Gizarte ingelesez
- ★ BATXI 1: Filosofia ingelesez
- ★ BATXI 1-2: Ingelesa

Kurrikuluma gure helbide honetara bidali dezakezu:
komunikazioa@sanbenito.ikastola.net
Gaia : Ingeleseko ordezkapena
Epea : Urriak 10



Pinturen fabrikazioa • Zuzeneko salmenta
Neurrira egindako kolore aukera paregabea

Industrialdea - 60-62 pab. • BENTAK auzoa - 20300 IRUN
Tel.: 943-63 39 46 • Faxa: 943-62 04 11 • www.aiadek.com



Gasteizko lorezainen manifestazioa uztailan, greba mugagabearen 101. egunean. J. FONTANEDA / FOKU

Gasteizko lorezainek greba mugagabea amaitu dute

- Greba batzordeak eta enpresak lortutako aurreakordioari oniritzia eman diote langileek.
- Gaur sinatuko dute akordioa, eta bihar itzuliko dira lanera lorezainak.

Edurne Begiristain

Ostegunetik aurrera, bere onera etortzen hasiko dira Gasteizko parke eta lorategiak. Azken sei hilabeteotan greba mugagabea izan diren lorezainak lanera itzuliko dira, Enviser enpresarekin akordioa sinatu ostean. ELA, LAB eta ESK sindikatuek eta enpresak herenegun adostutako aurreakordioari oniritzia eman zioten atzo langileek, eta, hala, urte erdi iraun duen lanuzteari amaiera eman. Aldeek gaur sinatuko dute akordioa Preco Lan Hitzarmenen Kontseiluan, eta bihar beharrera bueltatuko dira lorezainak.

Sindikatuak ohar bidez jakinarazi dutenez, besteak beste, 5.000 euroko soldata igoera li-

nealak lortu dituzte 2025-2028 aldirako —hau da, %25 inguruko igoera—; 108 orduko murrizketa urteko lanaldian; errelebo kontratuari lotutako erretiro partziala eskuratzea; lizentzia eta baimenak hobetzea; eta hamai-ketakoaren denbora luzatzea.

Hilabeteak joan dira azkene-koz belarra mozteko makinak Gasteizko lorategietatik pasatu zirenetik, eta jori bezain zabar daude hiriko gunek berde asko, nahiz eta udaz geroztik Gasteizko Udalak ezarritako gutxieneko zerbitzuekin nabarmen hobetu den lorategi eta parkeen itxura. Gasteizko Udalaren azpikontra-ta den Enviserreko lorezainek martxoaren 26an ekin zioten greba mugagabeari, enpresak ez

zuelako «lan baldintza duinak eta soldata nahikoak» bermatuko dituen hitzarmena adostu nahi, haien esanetan. Harrezkero, 197 egun izan dira greban, denera, eta hamar aldiz bildu dira aldeak Precon Lan Harremanen Kontseiluan.

Enviser enpresa arduratzen da Gasteizko parkeak eta lorategiak zaintzeaz. Estatuko hitzarmena dute Enviserreko langileek, eta gehienek soldata lanbide arteko gutxieneko soldata baino apalagoak dira, eurek emandako datuen arabera. Gatazkaren puntu nagusia zera izan da: lorezainek urtean 1.700 ordu egiten dituztela, eta lan bera egiten duten funtzionarioek, berriz, 1.592 ordu; eta, batez beste, funtzionarioek

baino 11.000 euro gutxiago kobratzen dute udalak azpikontratatu-tako lorezainek. Azken urteetan langileek erosahaltenaren %13 baino gehiago galdu dute, hau da, urtean 3.000 euro inguru langile bakoitzeko, sindikatuek emandako datuen arabera.

Tentsioa

Negoiazioak ez aurrera ez atzera egon dira hilabete luzez, harik eta lorezainek proposamen berria mahai gainean jarri duten arte. Azken batzarra herenegun egin zuten, eta egoera desblokeatzea lortu. Aurretik, baina, ultimatum bidali zuten grebalariek, ohartarazi baitzuten akordioa ezean gose greban jarriko zirela. Azkenik, baina, ez dute muturreko neurriak hartu behar izan, ados jartzeko gai izan baitira.

Akordioa lortu arteko bidea, baina, ez da samurra izan. Gasteizko berdeguneen itxura kaskartuz joan den abiadura berean okertu dira harremanak udalaren eta grebalarien artean. Lorezainek Eusko Jaurlaritzari leporatu izan diote greba eskubidea urratzea eta «neurrigabeko gutxieneko zerbitzuak» ezartzea, eta Gasteizko Udalari grebalariek kriminalizatzen saiatzea. Esaterako, Olarizuko zelaia egokitze lan-gileak kontratatu zituen udalak irailean, eta lorezainek udalaren jokabidea salatu zuten, eta leporatu zioten konponbidearen bila aritu beharrean legea bihurritzen aritzea greba eskubidearen aurka.

Bitartean, Enviserreko eta udalak elkarri egotzi diote lorezainen soldata igotzeko ardura zutela. Enpresak behin eta berriz esan du udalak berak mugatzen dituela soldata igoerak, baina, aldi berean, onartu izan du berak ez duela dirurik langileei gehiago ordaintzeko. Udalak ukatu egin du soldatei muga jartzeko ardura duela.

Instituzio eta enpresatik jaso ez duten elkartasuna herritarrengandik jaso dute. Geroz eta handiagoa izan da gasteiztarrek erakutsi dieten berotasuna. ●

HITZ GUTXITAN

Medikuntzan marihuana erabili ahalko da

Espainiako Gobernuak Ministroen Kontseiluak erietxeetan marihuanaren erabilera onartu du, zenbait osasun arazotan «lagungarria» izan daitekeela argudiatuta. Alta, mediku espezialista batek agindu behar du, eta hark zehaztuko du dosia, betiere bertze sendagaiak funtzionatzen ez badute.

Preso bat hiltzeaz akusatutakoa, errudun

IRUÑEA— Zinpeko epai-mahaiak erruduntzat jo du 2021ean Iruñeko kartzelako preso bat hiltzeaz akusatutako andrea; hain zuzen, «maltzurkeriaz egindako hilketa» dela ebatzi du epai-mahaiak, eta hamabortz eta 25 urte arteko kartzela zigorra bete beharko du. Epaiak behin-behineko espetxeratzea ezarri dio.

Tuterako Udalaren «zentsura» salatu du LABek

Erriberan 40 urte bete dituela ospatzeko, erakusketa bat antolatu du LABek Tuterako Rua gizarte etxean. Alejandro Toquero Tuterako alkateak erabaki du erakusketa debekatzea, presoan aldeko ikurren bidez terrorismoa goratzen duela argudiatuta. «Zentsura eta debekua» aurpegiratu dizkio Toquerori LABek.

Eskelak

(0034) 943-30 40 30 • eskelak@bidera.eus

Berria.eus/eskelak

BERRIAlaguna edo BERRIAlagun harpideduna bazara, kontsultatu tarifa bereziak

Emilio González Arteta

Bizkaiko Esperientzia Geletako Giza Zientzietako Unibertsitate Tituluaren ikaslea

EHUko errektoreak eta unibertsitateko kideok gure dolumina adierazten dugu eta galera honen aurrean bat egiten dugu familiaren saminarekin.





Donostiako merkataritzan eta ostalaritzan euskaraz barra-barra

Urtero-urtero hiriko 2.000 bat establezimendutako atak jotzen ditu Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak. Establezimendu horietara joaten dira zerbitzuen katalogoak biltzen dituen laguntzen eta baliabideen berri eman eta horiek eskaintzeko eta, hainbat argudioz baliatuta, euskara bultzatzen saiatzeko. Urtean bitan egiten dituzte bisita horiek, udaberrian eta udazkenean. Aurtengo udazkeneko bisitak, hain justu, irailaren 29an hasi zituzten, eta une honetan horretan dabilta.

Euskara Zerbitzuak egitasmoa batzeko hainbat argudio ematen dizkie. Alde batetik, euskara erabiltzeak bezeroa pozik izateko balio du, hizkuntza hautatzeko

DONOSTIAKO UDALA | Donostiarren artean % 68k ulertzen du euskaraz eta % 47k hitz egiten du, eta errealitate horri erantzun nahian, hirian diren 4.000tik gora merkataritzako eta ostalaritzako establezimendutan euskara erabil dezaten errazteko zerbitzuen katalogo zabal bat eskaintzen die Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak.

Euskaraz barra-barra egitasmoaren aurkezpena.
DONOSTIAKO UDALA

aukera ematea bezeroarentzat hurbiltasun eta konfiantza seinala delako. Gainera, euskarazko arreta eskaintzeak bezeroa gogobete eta fidelizatu egiten du, eta establezimendua kalitatezko zerbitzua ematen ari dela igarriko du.

Bestetik, establezimenduaren irudia hobetzeko aukera ematen

du, balore positiboak transmititzen dituelako eta balio erantsia ematen diolako zerbitzuari. Iruia indartzearekin batera, merkaturuan posizionamendua hobetzeko ere balio du euskara erabiltzeak, euskaraz aritzen diren negozioek irudi moderno, gertuko eta arduratsua transmititzen dute-eta.

Azkenik, gizartearekiko kon-

promisoa erakutsi ahal izango du, euskara hizkuntza gutxitua baita, eta establezimenduan erabiliz, euskararen biziberritzea eta etorkizuna bermatzen lagunduko du.

ZERBITZUEN KATALOGOA

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak establezimenduen esku jartzen duen katalogoan honako laguntza, zerbitzu eta baliabideak daude bilduta: *Euskaraz barra-barra* egitasmoa; euskara ikasteko baliabideak; testuen doako itzulpen, zuzenketa eta kontsulta; errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak; eta online baliabideak.

Establezimenduko kanpoko zein barruko idatzizko euskarriak euskaraz edo euskaraz eta beste

hizkuntza batean edo batzuetan jartzeko, dirulaguntzak eskaintzen ditu Euskara Zerbitzuak. Errotuluak euskaraz hutsean jartzen dituen establezimenduari %60ko dirulaguntza ematen dio, eta euskaraz eta beste hizkuntza batean edo batzuetan jartzen dituenari, aldiz, %30ekoa.

Besteak beste, honako errotulazio elementuak laguntzen ditu diruz: errotulu nagusia eta toloa; ateko eta erakusleihoko errotuluak edo biniloak; ibilgailuko errotuluak; produktuen, zerbitzuen edo prezioen berri emateko errotuluak; eta seinaleztapen errotulu finkoak.

Testuen doako itzulpena, zuzenketa eta kontsulta ere eskaintzen dute. Establezimenduek zabalpenerako dokumenturen bat badute edo agerian jartzeko ohar bat, Euskara Zerbitzukoek testu hori itzuli edo zuzendu egingen diete.

Aipatutako zerbitzuez gain, euskara ikasteko baliabideak ere eskaintzen dituzte; merkataria eta ostalariei zuzendutako 60 orduko berariazko euskara ikastaroak, hain zuzen ere. Ikastaro horiek urritik urtarrilera eta otsailetik maiatzera antolatu ohi dituzte, eta helburua da merkataritzako eta ostalaritzako langileek euskara ikasteko lehenengo urratsak egitea, bezeroei zerbitzua euskaraz eskaintzen has daitezen. 2025-2026ko ikasturte hasi berrian 69 lagunek eman dute izena ikastaroan.

Online bidezko baliabideak ere erabilgarri dituzte merkataria eta ostalariek, eta horien artean dago *Erraza da* aplikazioa, Eusko Jaurlaritzarekin batera sortua. Bertan izena emanez gero, egunero ikasiko dituzte haien sektoreko hitzak edo esaldiak (egunero gutxienez lau), eta audioak ere entzungai izango dituzte. Gainera, nahi izanez gero, ikas prozesuan izaten ari diren progresioa ere egiaztatutako izango dute galdetegiaren bitartez.

‘EUSKARAZ BARRA-BARRA’ 1.500 ESTABLEZIMENDUTAN Euskal Herri mailan zabaldua dagoen *Euskaraz barra-barra* egitasmoa sustatzen ari da Donostiako Udala 2023an abiatu zenetik. Ordutik hona, Udaleko Euskara Zerbitzuak 4.562 establezimendu bisitatu ditu eta horietatik heren batek bat egin du *Euskaraz barra-barra* egitasmoarekin. Auzoka, egitasmoa atxikitako establezimendu gehien Erdialdean, Amara Berrin eta Grosen daude; eta sektoreka, berriz, merkataritza sektorean.

Zerbitzua euskaraz ematen duten establezimenduak eta egi-



ZERBITZUEN KATALOGOA

Euskaraz barra-barra egitasmoa:

- Zerbitzua euskaraz eman dezaketen establezimenduen identifikazioa.

- Egitasmoarekin bat egiten dutenentzako jarraibideak.

Testuen doako itzulpena, zuzenketa eta kontsulta.

Euskara ikasteko baliabideak:

- Euskara ikasteko berariazko ikastaro laburrak ostalari eta merkatarientzat.
- Euskara ikasteko diru laguntzak.

Errotuluak euskaraz jartzeko diru laguntzak.

Baliabideak online:

- *Erraza da* aplikazioa.



Donostiako merkataritzako eta ostalaritzako establezimendu ugari bat egin dute *Euskaraz barra-barra* egitasmoarekin.

DONOSTIAKO UDALA - JON URBE / FOKU



tasmoarekin bat egiteko erabakia hartzen dutenak identifikatzen dituzte Euskara Zerbitzukoek. Eranskailua bezeroek ondo ikusi dezaketen lekuan jarri behar dute: lurretik 1,50-1,70 metrora, sarreratik gertuen dagoen erakusleihoan, hain justu.

Horrela, identifikatiboa ikusita, bezeroek jakin badakite establezimendu horretan euskaraz artea ditzaketela. Egitasmoan parte hartzeko, bi baldintza bete behar ditu establezimenduak. Alde batetik, jendaurrean bi eta hamar langile bitarteko establezimenduetan une oro langileen %50a gai izan behar da euskaraz ondo ulertzeko; eta hamaika langiletik gorako establezimenduetan, berriz, langileen %30a. Eta, bestetik, langile horiek bezeroari lehen hitza euskaraz egin behar diete.

Egitasmoa atxikitako Donostiako establezimenduetan 6.434 langile ari dira jendaurrean, eta horietatik %87,3k du euskaraz ulertzeko gaitasuna. 4.176k (%64,9) euskaraz ongi hitz egiteko gaitasuna du eta 1.443k (%22,4) euskaraz ongi ulertzen du, nahiz eta ez hitz egin. Hortaz, egitasmoan parte hartzeko ulermenaren baldintza ondo betetzen dute. ●

Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.donostiaeuskaraz.eus



Arcelorren ACB altzairutegia, Sestaon, artxiboko irudi batean. MARISOL RAMIREZ / FOKU

Bi zauritu ACB altzairutegian

● Istripu bat izan zen atzo goizean ACB altzairutegian, Sestaon (Bizkaia). Hasieran leherketa bat izan zela ziurtatu zuen Eusko Jaurlaritzak, baina enpresak informazio hori zuzendu eta esan zuen deskarga elektriko bat gertatu zela makina batean, eta harekin lanean ari ziren bi langile zauritu zirela. Ez dira ACBkoak bertakoak, baizik eta Euskoime enpresakoak, eta erredurak dituzte.

Astelehen iluntzean, berriz, makina batek 45 urteko langile bat zauritu zuen elikagai enpresa batean, Funesen (Nafarroa). Makinak bi besoak harrapatu zizkion, eta zauriak eragin.

EBk ere %50eraino handituko ditu altzairuaren muga zergak, bere industria babesteko asmoz

- Muga zergarik gabeko altzairu inportazioak %47 murriztea proposatuko du batzordeak. Sektoreak 30.000 enplegu galdu ditu 2018az geroztik.
- Esportatu baino hamabost milioi tona gehiago inportatzen ditu EBk.

Iker Aranburu

Kexuka ari da Europako Bata-suneko altzairuaren industria, lehiatu ezinik dabil eta batez ere Txinatik iristen den produktua- rekin. Sektorean milaka kalera- tze gertatzen ari direla ikusita, protesta hori entzun egin du Eu- ropako Batzordeak, eta inporta- zioak gutxitzeko helburua duen proposamen bat egin du: erdira jaitsiko ditu muga zergarik gabe- ko inportazioak, eta muga zerga bikoiztu egingo die kuota horre- tatik kanpo iristen diren inporta- zioei, %50eraino. Azken kopuru hori bera ordaindu behar dute AEBetan ere.

Ez da lehen aldia Bruselak merkatuan eskua sartzen duela altzairugintza babesteko. Azken urteetan %25eko muga zerga bat ordaindu behar izan dute inpor- tazioek, baina tasa hori 2026ko

ekainean amaitzekoa zen, eta hura ordezkatzeko lege proposa- mena egin die Europar Kontsei- luari eta Europako Parlamentua- ri. «Milaka enplegu salbatzeko» proposamena dela ziurtatu zuen atzo Stephane Sejourne Industria Politikarako lehendakariordeak, eta adierazi zuen helburua ez dela EBko merkatua ixtea, baizik eta eragozte herrialde batzuen «gehiagizko ekoizpena» konti- nente zaharrera iristea eta ber- tako ekoizleak itotzea.

Orain arteko kuota eta muga zergek altzairu inportazioak %15 murriztea lortu dute, baina Sejournek onartu zuen portzen- taje hori ez dela nahikoa eta in- dustriak babes handiagoa behar duela. Izan ere, Europako altzai- rugileek 500-600 euroan saldu ahal dute altzairu tona, baina Txinako konpainiak, laguntza publikoei esker, 200-300 euroan

eskaintzeko gai dira. Ondorioz, EBko altzairutegien ekoizpena- ren gaitasunaren %65 soilik era- biltzen dute, eta %80koa behar- ko lukete errentagarriak izateko. Gehiegizko gaitasun horren eragi- nez, siderurgiak 30.000 enplegu galdu ditu 2018az geroztik.

Kuotak gogortu

Indarrean dagoen sistemarekin, kuota batetik gorako altzairua- gatik soilik ordaindu behar da %25eko muga zerga. Kuotaren sistemari eutsiko dio Bruselak, baina Maros Sefcovic Merkataritza komisarioak iragarri zuen kuota horiek ia %45 txikiagoak izango direla: 33 milioi tona dira urtero orain, eta 18,3 milioi tona izango dira neurria indarrean sar- tzen denean. Dena den, EB bazki- de bakoitzarekin kuota propioa negoziatzeko prest dago.

AEBekin negoziatzeko interes

berezia du Bruselak, hartara txi- kitu ahal izateko EBko altzairuak han ordaintzen dituen muga zer- gak, baina Sefcovicen onartu zuen orain arteko harremanek ez du- tela fruiturik eman. «Gu ez gara haien arazoa».

Bruselaren proposamena ba- tez ere Txinako altzairuaren in- portazioa geratzeko egin bada ere, beste herrialde bati ere egin diezaioke kalte: Erresuma Batuari. UK Steel altzairuaren patronalak ohartarazi du muga zerga berriek enpresa askoren hondoratzea eragin dezakete- la. Altzairutegi modernoek Inga- laterran sorrera izan arren, pisua galdu du industria horrek azken urteotan. Geratzen zaion ekoizle handienetako bat, British Steel izenekoa, iaz erreskatatu behar izan zuen Londresko gobernuak. Iaz lau milioi tona altzairu ekoitzi zituzten Erresuma Batuan, baina

horren halako bi kontsumitzen du. Edonola ere, zati bat espor- tatu egiten du, eta esportazioen %80 EBra doa.

Erdia, Txinatik

Txina da munduko altzairu ekoiz- lerik handiena. Iaz bilioi bat tona ekoitzi zituen, munduan ekoitzi zenaren %53. Haren ondoren da- tor India, baina ez da %8ra iris- ten. EBk, berriz, 130 milioi tona ekoitzi zituen, munduko ekoizpen osoaren %6,9 baizik ez. Alemania da EBko ekoizlerik garrantzitsu- na (37,2 milioi), Italiaren (20 mi- lioi) eta Espainiaren (11,8 milioi) aurretik —azken horretan pisu handia dute Hego Euskal Herriko lantegiek (Arcelor Mittal, Sidenor, Nervacero...)—.

Ekoizle handiena ez ezik, kontsumitzaileak handiena ere bada Txina, munduko altzairua- ren %49,2 kontsumitu baitzuen 2024an. Baina azken urteetan sektorean egin dituen inbertsio handien ondorioz, gehiegizko ekoizpen gaitasuna du, eta so- berakina esportatu nahian dabil. Iaz, esaterako, 117,1 milioi tona altzairu esportatu zituen, eta 8,7 milioi baizik ez zituen ekarri bere mugez kanpotik.

EBk, berriz, gehiago inporta- tzen du (42,8 milioi tona) esporta- tu baino (27,8 milioi tona). Duela urte batzuk alderantziz zen, EBk 11 milioi tona gehiago esportatzen baitzituen inportatzen zituenak baino. Gaur egungo prezioekin de- soreka hori are gehiago handituko den beldur da Brusela. Bereziki kezkatuta dago muga zergen erruz Txinak AEBetan saldu ezin duen altzairuarekin. ●



EGUZKI PANELAK. Zentral fotovoltaiako bat Hainanen, Txinan. ALVARO ALFARO / EFE

Munduan lehen aldiz, berriztagarriek gaina hartu diote ikatzari

- Emberren arabera, **energia fotovoltaiakoaren** hedapenari esker lortu da mugarrria.
- Ikatzak 50 urte baino gehiago zeramatzan **elektrizitate iturri nagusia** izaten.

Paulo Ostolaza

Munduan, lehen aldiz, ikatza baliatuz baino elektrizitate gehiago ekoizten da haizearen, eguzkiaren eta beste iturri berriztagarri bartzuen bidez. Argindarraren %34,3 ekoiztu da iturri berriztagarrien bitartez, eta %33,1 ikatzaren bitartez. Atzera bueltarik ez duen mugarrri garrantzitsua da energiaren sektorearentzat: aurtengo lehen seihilekoan energia berriztagarriekin soilik erantzun ahal izan zaio eskariaren hazkunderari, eta, ondorioz, sektorearen emisioek ez dute gora egin. Ember *think tank*-ak eman ditu datuak.

Energia berriztagarrien ekoizpena azkarrago hazten ari da munduko argindar eskaria baino. Eskaria %2,6 hazi da 2025. urteko lehen erdian (369 terawatt-ordu); eguzkiaren bidez, berriz, iaz aldi berean baino %31 argindar gehiago ekoiztu da (306 terawatt-ordu), eta %7,7 handitu da haizearen bidez lortutakoa ere (97 terawatt-ordu). Horri esker, zertxobait apaldu da erregai fosilen bidez lortutakoa, %0,3.

Horrela lortu da mugarrri historikoa: ikatzak 50 urte baino gehiago zeramatzan munduan elektrizitatea eskuratzeko iturri nagusia izaten. Oraindik ere erregai horri esker ekoizten da munduko argindarraren herena, baina aurea hartu diote berriztagarriek. Txostena osatu duen analistak, Malgorzata Wiatros-Motyka, uste du «mugarrri bat» dela: «Energia berriztagarrien ekoizpena argindar eskariaren erritmo berean ari da hazten».

Aldaketaren eragile nagusia energia fotovoltaiakoa da. Izugarri hedatzen ari dira mota horretako zentralak, eta haiekin soilik erantzun ahal izan zaio eskariaren hazkunderaren %83ri. Gaur egun, munduan ekoizten den arginda-

rraren %8,8 ekoizten da modu horretan. Iaz %6,9 zen, eta, duela lau urte, oraingoaren erdia ere ez.

Teknologia hori asko merkatu da, eta zenbait herrialdek inbertsio handiak egin dituzte. Txina da nagusi: munduan energia fotovoltaiakoak izan duen hazkunderaren %55en erantzule da. Joera hori, gainera, goranzkoa izango da aurrerantzean ere, zentral fotovoltaiakoak eraikitzeke proiektu mordoa baitaude martxan munduan; asko, hazten ari diren herrialdeetan: Pakistanen, Hegoafrikan...

Oraindik ere Txina da munduan gehien kutsatzen duen herrialdea, baina agerikoa da aurrerapausoak ematen ari dela. Ikerketak dienez, energia berriztagarrien hazkunderaren arduradun nagusia da, Indiarekin batera. Txinak energia berriztagarriekin soilik egin ahal izan dio aurre argindar eskariaren igoerari, eta %2 murriztu du ikatzarekin funtzionatzen duten zentral termikoen ekoizpena. Indiak ere %3,1 murriztu du ikatzaren erabilera.

AEBetan eta European, berriz, kontrakoa izan da joera. Azken hamarkadan asko murriztu da ikatzaren erabilera mendebaldeko herrialdeetan, baina elektrizitatea geroz eta beharrezkoagoa da datuen zentro erraldoiak eta industria martxan mantentzeko, eta eskariaren gorakadari modu jasangarrian erantzuteko zailtasunak izaten ari dira.

AEBetan %30 egin du gora energia fotovoltaiakoak, baina %2 soilik eolikoak, eta ikatzaren bidez %17 gehiago ekoiztuta erantzun behar izan diote eskariari. EBk, berriz, gasa erabili du nagusiki eskariari aurre egiteko. Sektore elektrikoaren emisioek %4,3 egin dute gora AEBetan, eta %4,8 EBn.

Garai erabakigarria

Etorkizunera begiratuta, Emberrek esan du beharrezkoa dela inbertsioak areagotzea elektrizitatea biltegitatzeko baterietan eta sare elektrikoan, energia berriztagarrien ekoizpen handia erregularragoa izan dadin. Horrez gain, hazten ari diren herrialdeei laguntzeko deia egin die herrialde aberatsenei, finantzaketa ez dadin oztopo izan energia berriztagarrietara jauzi egiteko.

Ondorio modura, txostenak dio garai erabakigarria dela oraingoa. Baieztatu du berriztagarriek lortu dutela jada sektorearen emisioen gorakada etetea, agerian geratu dela ikatza ez dela ordezkazina, eta, oraingo erritmoarekin jarraituta, litekeena dela energia fotovoltaiakoa izatea munduan elektrizitate gehien sortzen duen iturria hamarkada hau amaitzerako. ●


Jaurlaritzak bi milioi euro gehiago jarri ditu Renove planerako

Jokin Sagarzazu

Eusko Jaurlaritzak beste bi milioi euro jarri ditu auto berriak erosteko bere diru laguntza programan. Era berean, Espainiako Gobernuak Trantsizio Ekologikoko Ministerioari eskatu dio Moves III planekoak handitzeko. Mikel Jauregi Industria sailburuak atzo jakinarazi zuenez, dagoeneko bukatu egin dira bi programa horien aurrekontuak.

Jaurlaritzaren laguntzak edozein auto mota erosteko erabil daitezke, errekuntza-koak barne. Hala ere, hainbat baldintza bete behar dira, eta nagusiki bat: auto bat txartategira eraman behar du erosleak, eta ibilgailu horrek 20 urte edo gehiago izan behar ditu. 3.500 eurorainoko laguntza jaso daiteke. Moves IIIko laguntzak, berriz, auto elektrikoak eta hibrido entxufagarriak erosteko dira soilik, baita kargalekuak instalatzeko ere. 7.000 euroraino jaso daitezke. Bi laguntzak ez dira bateragarriak.

Jaurlaritzaren plana apirilean jarri zen indarrean, bost milioi euroko aurrekontuarekin. Orain beste bi milioi jarriko ditu eta diru hori bukatu arteko epea izango dute eskatzaileek. Energiaren Euskal Erakundeak herenegun eman zuen Moves III planeko azken laguntza: guztira 1.584 izan dira. Eta beste 2.200 eskaera daude itxaron zerrendan. Kargalekuak instalatzeko laguntzei dagokionez, 900 eskaera onartu dituzte baina badago aurrekontua oraindik. ●



ARGINDAR BERRIZTAGARRIA MUNDUAN. Urteko lehen erdian 5.072 terawatt-ordu lortu dira energia berriztagarrien bidez (%34,3), eta 4.896 terawatt-ordu ikatzaren bidez (%33,1).

Galdakao Udalak
IRAGARKIA

2025eko irailaren 29ko B.AO.n (185. zk.) argitaratu da UE-BE-1 egikaritze-unitatearen Urbanizazio Proiektuaren egokitzapenaren hasierako onarpena. 2025eko irailaren 11ko 2025/2882 Alkatetzaren Dekretuaren bidez, UE-BE-1 egikaritze-unitatearen Urbanizazio Proiektuaren egokitzapenari hasierako onarpena ematea erabaki zen. Jendaurreko informaziorako izapidetan jartzen da 20 eguneko epealdian. Espediente Udalaren Hirigintza Arloan dago, kontsulta egin nahi izanez gero. Galdakaon, 2025eko urriaren 3an. Asier Egiraun. Hirigintzako Zinegotzi Delegatua



Guillermo Buces Cebekeko presidentea eta Francisco Javier Azpiazu idazkari nagusia, atzo. CEBEK

Gizarte kotizazioen «igoeragatik» kexu da Bizkaiko patronala

- Hiru enpresatik batek aurreikusi baino gutxiago fakturatuko du aurten.
- Cebek prest dago gutxieneko soldata propioa negoziatzeko, baina «baldintza batzuekin».

Jokin Sagarzazu

Bizkaiko hiru enpresatik batek (%29) urte hasieran aurreikusi baino gutxiago fakturatuko du aurten; datu hori apur bat handiagoa da industria sektorean (%36) eta enpresa txiki eta ertainen artean (%35). Azken urteetako portzentajerik handiena da hori, Cebek Bizkaiko enpresaburuen elkarteak atzo ohartarazi zuenez, eta kezkatuta agertu zen aurrera begira egoera are gehiago zailduko ote den. Joan den ostiralean Gipuzkoan Adegik egindako interpretazioaren antzekoa egin zuen.

Barneko eta kanpoko faktoreek areagotu egin dute «ezkortasun» pertzepzio hori. Patronalak Bizkaiko enpresen artean urtero egiten duen inkestaren emaitzen berri emateko agerraldian plazaratu zuen iritzi hori. Kezka nagusien artean honako hauek nabarmendu dituzte enpresek: lan kostuen garestitzea, zerga presioa, eta laneko araudian eginiko aldaketak eta asteko lanorduak murrizteko egitasmoa.

Ezinegon ez da txikia, gainera; izan ere, hamar enpresatik bederatzi kexu dira faktore horien inguruan. Cebekek azpimarratu

zuenez, «segurtasun juridiko eta politiko handiagoa» behar da: lau enpresatik hiruk kezka begiratzen diote «Espainiako klima politikoari».

Patronalaren arabera, lan kostuen garestitzearen arrazoi nagusia langileen kotizazioen igoera da, baina ez zuen inkestarekin loturiko daturik eman horri buruz. Gogoratu eta salatu zuen 2017tik %23 handitu dela enpresek eta langileek Gizarte Segurantzari egiten dioten ekarpena, eta %67 lanbide arteko gutxieneko soldata —707 euro ziren orduan, eta 1.184 euro orain—.

Laino beltzak ikusi arren, bada baikortasun izpirik ere, batez ere enplegu sorreran. Hamar enpresatik seik (%63) lantaldeari eutsi diote aurten, eta %27k handitu egingo dute. Datorren urteari begira, Bizkaian 14.000 lanpostu sortuko direla kalkulatu du Cebekek. Patronalaren hazkunde aurreikuspenak bat datoz Jaurilaritzak egindakoeekin: %2,1ekoa aurten eta %1,9koa hurrengo urtean.

Gutxieneko soldata

Gutxieneko soldata gehiago igozteko eta kopurua Hego Euskal Herriko eragileen artean adosteko sindikatuek eginiko proposamena zuhurtziaz baloratu zuen Cebekek. Confebask Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako patronalen konfederazioak orain arte atea itxi dio aukera horri, baina azkenaldian enpresaburuen elkarteak beste mezu bat zabaltzen hasi dira: elkarrizketa bai, baina «baldintza batzuekin».

Hala adierazi zuen Francisco Javier Azpiazu Cebekeko idazkari nagusiak. «Sindikatuak gai horri buruz hitz egin nahi badute, gu prest gaude, baina ez foro espezifiko batean, Elkarrizketa Sozialerako Mahaian baizik, eta guk buruan ditugun beste gai batzuekin batera: lehiakortasuna, kostuak, fiskalitatea...». Horri beste bat gehitu zion: absentismoa. Patronalak uste du langileen produktibitate galera «arazo» bat bihurtu dela. ●

HITZ GUTXITAN

Jantokietako ituna nahi dute Nafarroan ere

IRUÑEA— LABek, UGTk eta ELAk mobilizazioei helduko diete, Nafarroako sukalde kolektiboetako langileek beren itun propioa izan dezaten. EAeko hitzarmena negoziatzeko mahaia osatu berri dute, eta Nafarroan gauza bera egitera bultzatu nahi dituzte Nafarroako Ostalaritza Elkartea eta Food Service España patronalak.

Legorburu, ELA-Zerbitzuak ataleko buruzagi

BILBO— ELAko hiru federazioek azaroan egingo dituzte beren batzarrak. Aldaketa handiena Zerbitzuak arloan izango da, azken urteetako buru Mari Cruz Elkorok Ane Alberdiren esku utziko baitu idazkari-tza. Batzar horretan, ELAk aldarrikatuko du ez duela 1.600 eurotik beherako soldatarik onartuko.

Irundinek Mecanizados Alaveses erosi du

IRUN— Hedapen betean dago Irundin. Botilatzeo makinak egiten ditu, eta Irunen (Gipuzkoa) du egoitza. Lantaldea lauokitu du azken urteetan, eta orain 80 langilera iritsiko da, Mecanizados Alaveses erosi baitu, Oionen (Araba). Azken horrek ere botilatzeo eta ontziratzeo makinak egiten ditu.

Kaleratze bidegabeak Ribera Gourmeten

TUTERA— LABek jakinarazi duenez, Nafarroako Justizia Auzitegiak ebatzi du Ribera Gourmeten egindako hamar kaleratzeak bidegabeak izan direla. Auzitegiaren arabera, zuzendaritzaren frogak ez dira nahikoa, ez zuen negoziazioa egoki egin, eta langileei ez zien beste lan alternatibarik bilatu.

ALTZIBAR BERRI
LANDETXXEA

Xoxoka auzoa - 20130 URNIETA (Gipuzkoa)
626-55 14 29 • altzibarberri@yahoo.es • www.altzibarberri.com

Artizarra NEKAZAL
TURISMOA

BIXITA GAITZAZU!

Zimizarga, 46 • 20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)
655 721 834 • artizarra2004@gmail.com • www.artizarracasarural.eus



«Europako armekin hiltzen gaituzte»

Gazako genozidioa geldiarazteko, giza eskubideei buruzko nazioarteko legedia aldarrikatu du Raji Suranik. Trumpen planari gabeziak ikusten dizkio, eta ez du uste bakea hurbil dagoenik.

Maite Asensio Lozano

BILBO— «Sakonki gazatarra» dela dio Raji Surani abokatuak, eskua bularrean jarrita: «Nire familieren zazpi belaunaldi bizi izan dira bertan». Baina handik ihes egin behar izan du berak, eta orain Kairotik (Egipto) zuzentzen du Giza Eskubideen aldeko Palestinako Zentroa. Patxadaz eta leun mintzatu zen atzo Euskal Herriko Unibertsitateak Palestinako genozidioaren inguruan antolatutako jardunaldian, baina ahotsa altxatu zuen Gazako sufrimendua irmoki salatzeke: «Gure herria Israelen okupazio kriminal bortitzaren pean bizi da! Israel gerra krimenak egiten ari da, gizateriaren aurkako krimenak, jazarpena, apartheida, egunero-egunero. Eta krimen horiek guztiak oso ondo

dokumentatzen ari gara, mundu guztiak jakin dezan». Gazan egotea latza dela berretsi dute bere azalpenek, baina «baikortasun estrategikoa» izatera behartu du bere burua: «Nahiko indartsu nago. Palestinarrok ez dugu etsitzeko eskubiderik. Borrokan jarraituko dugu justizia eta duintasuna lortu arte».

Sinplea baita Suraniren nahia: «Legea betetzea». Baina txundituta eta haserre gaitzetsi du Europako Batasunak eta AEBek beste alde batera begiratzea Israelen sarraskia gauzatzen duen bitartean. Argi utzi du gatazka ez zela hasi 2023ko urriaren 7an, «Gazan bizitzea ezinezko egin nahi zuten lehen ere», baina, Israelen erasoaldia abiatu zuenean, haren alde lerratu zen Mendebaldearen segituan: «Handik hiru egunera, Israelen esan zuen ez zituela bereiziko zibilak eta Hamaseko kideak, denak zirela jomuga; ez zela urik, argindarrik, janik edo erregairik egongo gazatarrentzat; eta gazatar guztiak animaliak zirela. Hiru adierazpen horiekin, argi zegoen zer egin nahi zuten. Eta hala ere, Europak Israel babestu zuen; eskolak, ospitaleak, okindegiak, ur biltzeak jomuga izan arren. Genozidioaren ezaugarri guztiak oso argi egon dira hasiera-hasieratik».

Frogak biltzen

Giza eskubideen urraketa guztien berri jasotzen ari da Giza Eskubideen aldeko Palestinako Zentroa: «Frogak biltzen ari gara, eta auzi legalak muntatzen. 45 lagun ditugu Gazan, landa lanean bonben azpian, oso giro gogorrean; hiru

HITZALDIA. Raji Surani abokatuak, erdian, atzo EHU izandako jardunaldietan. MONIKA DEL VALLE / EFE

abokatu gazte galdu ditugu». Edo nola ere, mundu guztiaren begien bistara gertatzen ari da sarraskia: «Historian lehen aldiz genozidio bat *streaming* bidez hedatzen ari da mundu osoan: jendeak zuzenean ikus dezake. Bigarren Mundu Gerran holokaustoa izan zen, baina ez genekien gertatzen ari zenik; ezin dugu barkamena eskatu ez genekien zerbaiten inguruan. Baina norbaitek esan dezake orain ez dakiela ezer?».

«Zer nahi dute gutaz? Biktimak onak izan gaituzten», jarraitu du abokatuak. «Gu lasai hil behar gara; gure haurrak nola erailtzen dituzten ikusi behar dugu, eta isilik egon. Gure autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen badugu, terroristak gara. Aldiz, Israelen okupazio kriminal bortitza egiten du, eta bere burua defendatzeko eskubidea du. Ukrainarrek badute euren burua defendatzeko eskubidea, Errusiaren okupazioaren aurka, eta guk ez?». Hala, salatu du Israelen «erabateko zigorgabetasuna» duela, «gero eta basatiago» aritu arren, eta nabarmendu du ulergaitz zaioela Europako estatuen jarrera: «Odolusten ari gara. Europako eta AEBetako armekin eta munitzioarekin hiltzen gaituzte. Ez dira konplizeak, partaideak dira».

Aldiz, esker onez mintzatu da gizarte zibilak adierazitako elkartasunaz eta batik bat azken asteetan izandako manifestazio masiboek: «Gure moralean eragiten du. Gaza ia ezabatuta dago, baina bada jendea mundu osoan konprometitua. Haien elkartasuna funtsezkoa da, oso garrantzitsua da protestak masiboak izatea, eta haztea, orekak aldatzeko, gobernuak presioa egiteko». Izatez, Europako gobernu batzuen posizioak aldatzen ari dira, eta horren seinale da hainbatek Palestinako estatua aitortu izana. «Baina gehiago espero dugu», zehaztu du.

Su etenerako aukera

Itxaropen izpiren bat utzi dute egunotan Hamasen eta Israelen artean izaten ari diren negoziatzioek, baina baikortasunetik errealtasunera egin du jauzi Suranik: «Iruditzen zait oso-oso urrun gaudela bakeaz hitz egiteak; su etena lortzeko eta genozidioa gelditzeko aukeraz hitz egin dezakegu». Izan ere, ez du uste Donald Trump AEBetako presidentek prestatutako egitasmoak bakerik ekarriko duenik: «Oxala ni oker ibiltzea, baina Trumpen planak ez badu hitz bat ere aipatzen nazioarteko legediaz, giza eskubideez, autodeterminazio eskubideaz, okupazioaren amaieraz... nola funtzionatuko du? Bahituez baino ez da kezkatzen, baina ez du hitz bat ere esaten Gazan eraildako 20.000 haurrez, genozidioaz. Bakeaz hitz egiteko, okupazio kriminal bat badela aitortu behar duzu lehenik, eta hori amaitzeko konprometitu».

Abokatuak berriro esan du sinplea dela haien oinarria: «Giza eskubideen inguruko nazioarteko legedia betetzea. Zer bestela? Oihaneko legea?». Ildo horretan, «harro» agertu da Hegoafrikak Nazioarteko Justizia Auzitegian Israelen aurka abiatutako auzibideaz, «palestinarren mina eta sufrimendua epaitegira eraman zuten», baina deitoratu du hango aginduek eraginik ez eduki izana: «Auzitegiaren erabakiak berehala aplikatu behar dituzte estatuek, baina ez dago modurik inplementatzeko». Hala, etsipenak eta ezintasunak talka egiten dute baikortasun estrategiko behartuarekin. Baina Trumpen planarekin, Europako herrialdeen jarrerarekin edota nazioarteko auzibidearekin gertatzen dena gertatzen dela, lehenetsi du Raji Suranik: «Su etena behar dugu. Oraitxe bertan. Genozidioa amaitu egin behar da. Honek jarraitzen badu, hondamena izango da, ez da Gazarik egongo, eta ezingo da beste Nakba bat geldiarazi». ●



«Zer nahi dute gutaz? Biktimak onak izatea. Gure haurrak nola erailtzen dituzten ikusi behar dugu, eta isilik egon»

RAJI SURANI

Giza Eskubideen aldeko Palestinako Zentroko zuzendaria

Gazako sarraskia hasi eta bi urtera, negoiazioetarako bide orria adostu dute bi aldeek

- Tel Avivek eta Hamasek «eztabaida biziak» izan dituzte Trumpen planaren bueltako bigarren saioan.
- Armadak ez ditu eten Gazako erasoak.

Julen Otaegi Leonet

Bi urte bete ziren atzo Israelek Gazaren kontrako sarraskia hasi zuenetik; gutxienez 67.000 palestinar hil dira ordutik Israelgo armadaren erasoetan, Gazako Osasun Ministerioaren arabera. Urteurrena Israel eta Hamas negoziatzeko ahalegine-tan daudenean heldu da. Aldeak preso palestinarez eta bahituez eztabaidatzen ari dira, Donald Trump AEBetako presidenteak zerrendarako prestatutako plana mahai gainean dutela. Atzo bigarren eztabaidatzen zirenean, eta Palestinako iturri batek BBC hedabideari esan zionenez, bitartekariak eta aldeek zehaztu zituzten eztabaidatu beharrekoak: su eten iraunkorra, preso eta bahituen trukea, Israelgo tropek zerrenda uztea eta sarraldi posibleak eragozteko bermeak, laguntza humanitarioaren banaketa eta Gazaren gobernantza.

Talde islamistak gogoan du, ordea, orain arte gertatutakoa: «Bi urteren ondoren, gure herriak bere lurraldean jarraitzen du errotuta, triskantza eta desplazamendu behartuari aurre egiten, dagozkion eskubide legitimoei eutsiz». Atzo kaleratu zuen oharrean, Hamasek agerian utzi zuen Gazaren kontrako erasoaldia «mugarri» bat izan dela Ekialde Hurbilean, eta nazioarteak, «lotsagabekeria», isilik jarraitzen duela, «konplize» delako.

Fawzi Barhum Hamaseko bozeramaileak esan zuen elkarriketarako «oztopoak» kendu nahi dituztela, Israelek «zapuztu» izan dituelako aurreko aldietan. Taldearen eskakizunak zerrendatu zituen: Israelgo tropek zerrendatik ospa egitea, mugarik gabe laguntza humanitaria sartzen

uztea, desplazatzera behartutako gazatarrak itzultzea, preso truke «justua» eta berreraikitzea hasia, palestinar teknokratek osatutako gobernu batek ikuskatutakoa.

Palestinako talde islamistaren eta Israelen ordezkariak here-negun bildu ziren Egiptoko Xarm el-Xeikh hirian, Sinai penintsularen hegoaldean, Trumpen iragan astean aurkeztu zuen Gazarako 20 puntuko planaz jarduteko —atzo Egipto, Qatar eta Turkia aritu ziren bitartekari; AEBetako ordezkari-tza gaur da helduekoa—. Qatar-ko Atzerri Ministerioi bozeramaile Majed al-Ansari arabera, aldeek «eztabaida biziak» izan zituzten; espero da negoziazioak zenbait egun irautea. Talde palestinarrak Trumpen planari baieztatu zuten zion bonbardaketak eta bertan behera uzteko. Orduz geroztik, zerrendako Osasun Ministerioaren arabera, ehun gazatar baino gehiago hil ditu armadak.

EFE agentziak iturri palestinar batekin hitz egin zuen atzo, eta, hark baieztatu zionenez, Hamasek armak erakunde palestinar-egipto- bati ematea onartu du. Bazertertu egin du, berriz, zerrendako gobernantza nazioarteko transizio gobernu bati ematea —bai onetsi duela agintea palestinarek ematea—. Planaren arabera, gobernu hori «Bake Batzorde» delakoak gainbegiratu luke, Trumpen, Tony Blair Erresuma Batuko lehen ministro ohiak (1997-2007) eta beste zenbait agintariek osatua. Iturri horrek esan zuen Hamasek ez duela nahi Blair Gazan bertan «gobernadore» lanetan aritzea, baina begi onez ikusiko lukeela «urrutitik» egitea gainbegiratze lanak. ●



OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

«Gazan itxaropena piztu du flotillak, baita munduan ere»

ITZIAR MORENO
Flotillako ekintzailea

Flotillako euskal ekintzaileak nahi baino lehenago itzuli dira. Morenok kontatu du Israelek «ahal beste eskubide urratu» zituela atxilotu zituenean.

Maddi Iztueta Olan
Iker Tubia

«Nekatuta eta kezkatuta», baina «ilusio polit batekin» itzuli da Euskal Herrira Itziar Moreno (Bilbo, 1982) Global Sumud Flotillan parte hartu duen ekintzailea. Herenegun gauean iritsi ziren Moreno, Jotas Osés, Mikel Zuloaga eta Abdel Karim el-Khamlichi Loiura, Israelek flotillako ontziak atzeman eta ekintzaileak kanporatu ondoren. Dena den, Morenok uste du gisa honetako ekintzek itxaro-

pena piztu dezaketela, eta borrokan jarraitzeko deia egin du.

Egun bat ere ez da igaro Euskal Herrira iritsi zinenetik. Nolakoa izan da itzulera?

Emozio asko ditut, guztiak aldi berean. Batetik, nekatuta nago, hilabete luzea izan delako, eta kartzelan egon garen egunotan ezer gutxi izan dugulako jateko eta edateko, eta lo ere gutxi egin dugulako; bestetik, kezkatuta nago, flotillako kide asko geratu direlako Israelgo kartzeletan, eta, noski, Gazan gertatzen denagatik. Halere, indar eta ilusio polit batekin ere itzuli naiz; flotillak erakutsi du munduko zapalduak elkartzen garenean gauza handiak egin daitezkeela; gauza handia da itxaropena.

Droneak izan zenituzten atzetik Gazara gerturatu ahala...

Jakin bagenekien nor izango genuen aurrean, besteak beste, tropa sionistak haurrak tirokatzeko, jendea bizirik erretzeko edo gosez akabatzeke gai direlako. Gure aurkako erasoak, izugarriak izan arren, oso kalkulatuak izan dira; ez zuten inor zauritzerik nahi. Horrek agerian uzten du batzuen bi-



«Ekintza bakar batek ez du guztia aldatzeko gaitasunik, baina keinu sinboliko handi bat izan daiteke»

ziek gurek baino gutxiago balio dutela, eta horrek sutu egiten gaitu. Palestinarren egoerarekin alderatuta, txiki geratzen da flotillako kideok pairatutakoa; halere, Israelek nazioarteko zuzenbideko lege oro urratu du, ezin baita ahaztu nazioarteko uretan atzeman gintuztela, eta laguntza humanitaria generala, ekintza baketsu baten bidez.

Gazara iristear zinetela, Israelgo armadak ontziak atzeman zituen. Zer etortzen zaizu gogora une horretan pentsatzean?

Horrelako egoera bati aurre egiteko prestakuntza jaso genuen; halere, legez kanpoko atxiloteta bat izan zen. Israelgo armadak bahituta eduki gaitu hainbat egunez, legez kanpo, eta ekintzaile asko oraindik ez dituzte askatu.

Zer-nolako tratua eman zizueten Israelek atxilo hartu ondoren?

Israelek ahal beste eskubide urratu ditu: jipoitu egin gaituzte; lurretik arrastaka eramane gaituzte; ordu luzez urik eta janaririk gabe eduki gaituzte; arma handiak buruaren aurka jarrita mehatxu egin digute; bero handia egiten zuela, kanpoan, dozenaka emakume pilotuta eduki dituzte ordu luzez urik eman gabe... Aldiz, hori guztia larria eta gaitzesgarria izanagatik, ez da deus palestinarrak pairatzen dutenaren aldean. Guri hori egiteko gai badira, zer ez diete egingo haiei? **Etxean zaude berriro ere. Merezki izan du?**

Ekintza bakar batek ezin du guztia aldatu, baina borroka askoren barruan keinu sinboliko handi bat izan daiteke. Ez gara Gazara iritsi, baina asteotan gauza asko mugitu dira nazioartean. Gazan itxaropena piztu du flotillak, baita munduan ere. Palestinak hori baino gehiago behar du, ordea: egiazko bakea, zeina soilik posible izango baita baldin eta palestinar guztiek etxera itzultzeko eta autodeterminaziorako eskubidea badute. Borrokan jarraituko dugu horren alde. ●



Erbestea, ondorengoen begietatik

Errefuxiatu kolonbiarren ondorengoen «zauri ikusezinak» argitara atera dituzte 'Semillas regadas' liburuan. Bederatzi egilek ondu dute lana, Hegoa institutuarekin elkarlanean.



«Gurasoak beste erbesteratu batzuekin elkartzen ziren; haien seme-alabek ez geneukan komunitaterik»

NICOLAS QUIMBAYO
Kolonbiako gatazkaren biktima

«Mehatxuak hor daude, nire aurkakoak, eta nire amaren aurkakoak. Eta sortu zizkiguten beldurrak ere hor daude»

ANNE SALDARRIAGA
Kolonbiako gatazkaren biktima

Aitor Garmendia Etxeberria

BILBO— «Nola konta diezaioket haur bati bere amonaxoa hil zezaketelako ihes egin behar izan genuela herrialdetik?». Nicolas Quimbayo Vasquezek (Bogota, 1977) bazekien noizbait azalpenak eman beharko zizkiola bere alabari. «Sei urte-edo edukiko zituen, jatetxe libanoar batean bazkaltzen ari ginen, eta halako batean galdetu zidan: 'Aita, zergatik bizi gara Frantzian?' Ez nekien nondik hasi». Quimbayoren gurasoak M16 Kolonbiako gerrillako milizianoak izan ziren, eta 11 urterekin Bogotatik ihes egin behar izan zuen Frantziara. Quimbayoren moduan, gatazkaren ondorioz atzerrira jo behar izan zuten kolonbiarren memoria islatu nahi izan dute *Semillas regadas*

liburuan (Hazi ureztatuak), erbestera egitea erabaki zutenen ondorengoen begietatik. Gatazkaren bigarren belaunaldiko bederatzi egilek ondu dute lan hori, Hegoa institutuarekin elkarlanean.

Kolonbiako Egiaren Batzordeak hauspotuta, erbesteratuen seme-alabei zuzendutako bi egonaldi antolatu zituzten Bilbon, 2019an eta 2022an. Horietan jabetu zen Anne-Elizabeth Saldarriaga Velez Magnusson (Göteborg, Suedia, 1997) bera ere Kolonbiako gatazka armatuaren biktima zela, nahiz eta, bere amaren herrialdea ez ezagutu hiru urte bete zituen arte: «Neure burua ez neukan biktimatzat, baina ulertu nuen gatazkak eragina duela hurrengo belaunaldien bizitzan ere». Bilboko egonaldi horiek izan ziren ernamuina. Eta, ureztatu ostean, eman dute fruitua. Iragan astean aurkeztu zuten liburua Bilbon, Hegoa institutuaren egoitzan. Bederatzi biktimaren istorioak bildu dituzte bertan.

«Bakoitzak bere istorioa du. Ni ez nintzen Kolonbian jaio. Amak herrialdea utzi eta hamar urtera jaio nintzen, Suedian». Saldarriagaren ama giza eskubideen aldeko abokatua zen Medellinen (Kolonbia); Suediara iritsitakoan, hutsetik hasi behar izan zuen: «Suediera menderatzen ez zuelako, azkarra ez balitz bezala hartu zuten. Amorrua ematen zidan».

«Zauri ikusezinak» aipatu dituzte bi egileek. «Askotan, Kolonbian pentsatzen dute erbestean daudenak ondo daudela, dirua bidaltzen dutelako. Baina ez dakite zer esan nahi duen atze-

BIGARREN BELAUNALDIA.

Saldarriaga eta Quimbayo, iragan astean, Bilbon.

OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

rritarra izateak, hizkuntza ez jakiteak, arrazakeriak...», azaldu du Quimbayok. Are eta ikusezina goa da erbestera egitea erabaki zutenen ondorengoek bizitakoa: «Gurasoak beste erbesteratu batzuekin elkartzen ziren: txiletarrakin, uruguaitarrek... Haien seme-alabek ez geneukan halakorik, ez geneukan komunitaterik. Esaten ziguten 'gazteak zarete, egokitzea errazagoa izango da', baina niretzat oso zaila izan zen 11 urterekin Frantziara iristea».

Aldi baterako joan zirela sine-tsita zegoen Quimbayo, baina berrogei urte daramatza Frantzian bizitzen. 16 urte zituela itzuli zen lehen aldiz Kolonbiara. «Bost urtez ezin izan nuen kasik Kolonbiako irudirik ikusi, ezta Kolonbiako soinurik entzun ere». Telefonoz Kolonbiara deitzea oso garestia zela jakinarazi du, eta ezin zituztela dei luzeak egin: «Batzuetan txanpon bat sartzen nuen, soilik 'alo!' bat entzuteko».

Kolonbiako soinuak ez ezik, Kolonbiako gatazkaren ingurukoak entzutea ere ez da erraza izan erbesteratuen etxean: «Tabua da zenbait familatan». Quimbayok uste du berak «zortea» izan duela, bazekielako bere gura-

soak «zertan» aritu ziren. Hala ere, aitortu du familia gehienetan egoera bestelakoa izan dela, eta, gaineratu duenez, ez da ohikoa izaten seme-alabek iraganaz galdetzea, bai baitakite mindu egin ditzaketela gurasoak. «Baina hitz egin behar da; gainontzean, trauma belaunaldiz belaunaldi igarotzen da». Horregatik, argi zuen noizbait bere alabari konstatu beharko ziola aitona-amonen historia.

Gerra ikusezina

Saldarriagaren etxean, aldiz, ez zen gatazkaren inguruan hitz egiten: «Etxeko egoera konplexua zen: ama atzerritarra zen; aita, langilea eta gaixo zegoen. Gizarteko *outsider*-ak ginen. 'Nire alabak badu nahikoa arazo', pentsatzen zuen amak, eta erabaki zuen ia ez hitz egitea iraganaren inguruan». Hori bai, beti esaten zuen Kolonbia gerran zegoela. Alabak, baina, ez zuen gerraren zantzurik ikusi Kolonbia lehen aldiz bisitatu zutenean; hiru urte zituen. «Nik han ikusten nituen palmondoak, jende irekia, alaia... Ez nuen ulertzen».

18 urte bete zituenean, Saldarriagak nazionalitate kolonbiarra lortzea erabaki zuen; gainera, garai hartan hasi zen ama alabari haren iraganari buruz hitz egiten. Alabak harago joatea erabaki zuen: «Nire sustraiak ezagutu nahi nituen; nire familia, ni neu zein nintzen jakin nahi nuen». Zauriak itxi nahi zituen. Eta 2019an Kolonbiara joatea erabaki zuen, unibertsitatean ikastera. Hasieran ez zen guztiz seguru sentitzen, zerbait pasatuko zitzaiola uste baitzuen. Eta, gaur egun, oraindik ere badu tentsio hori: «Mehatxuak hor daude, nire aurkakoak, eta nire amaren aurkakoak. Eta beldurra ere bai: sortu zizkiguten beldurrak hor daude oraindik».

Izan ere, 2016an Kolonbiako Gobernuaren eta FARC Kolonbiako Indar Armatu Iraultzailearen artean bake akordioa sinatu bazuten ere, gatazka ez dagoela konponduta ziurtatu dute bi egileek. Quimbayo: «Bake akordioa ez da bakea; sinadura bat baino ez da. Gero akordio hori bete egin behar da». Egoerak ez duela hobera egin uste du: «FARCEk kontrolatzen zituen lurraldeak utzi zituen, baina estatua ez zen iritsi, eta banda kriminalek hartu zituzten lur horiek. Ez dira gerrillak, narkotrafikatzaileak dira». Hala ere, Quimbayok azaldu duenez, ezker armatua desagiteak, ateak ireki dizkio ezkerreko presidente bati —Gustavo Petro da Kolonbiako presidentea 2022tik—, eta haren eskutik zenbait erreforma iritsi direla ziurtatu du. ●



TENTSIOA. Siriako Gobernuaren indar armatueta kide batzuk, atzo, Alepon. EFE

Kurduak eta Damaskok su etena adostu dute azken borroken ostean

- Siriako kurduen eta gobernu islamistaren indar armatuen artean gatazkak piztu dira azken egunetan, Alepoko auzo kurduetan.
- Gutxienez hildako bat eta alde bietako dozena batetik gora zauritu eragin dituzte borrokek.

Aitor Garmendia Etxeberria

Siriako kurduen eta herrialdeko gobernu islamistaren arteko harremanari hari fin batek eusten dio. Eta azken egunetan hari hori tenkatuta egon da: herrialdeko ipar-mendebaldean, Alepo hiriko auzo kurduetan, borroka izan dira, gobernuaren indar armatuak tartean zirela. SANA Siriako berri agentzia nazionalak kaleratu duenez, egoera baretzeko asmoz, su etenerako akordio bat adostu zuten atzo SDF Siriako Indar Demokratikoak koalizioak — batik bat miliziano kurduak osatuta dago — eta Damaskok. SDFk ez zuen baieztatu.

SANAK kaleratu duenez, Defentsa Ministerioak adierazi du azkenaldian SDFko milizianoek eraso egin izan dietela soldaduei eta herritarrei; haren arabera, horregatik, armadak «mugimenduak» egin ditu Siria iparraldean eta ipar-ekialdean, eta horrek

borroka eragin dituela. Halere, zehaztu dute «mugimendu» horiek aurrez planifikatuta zeudela, eta ez dela «operazio militar berri bat» izan.

Horiez gainera, Alepon gatazkak piztu dira azken egunetan. Damaskoren arabera, SDFko milizianoek eraso egin diete armadak jarritako kontrol postuei, eta gutxienez Damaskoren indar armatueta kide bat hil eta beste hiru zauritu dituzte. Bestalde, Rudaw Kurdistango hedabideak auzo kurduetako iturriak aipatuz kaleratu duenez, azken egunetan Damaskok «setioa» ezarri du Alepoko auzo horietan: Siriako Gobernuaren aldeko militanteek gehiengo kurdua duten auzoetako sARBIDE guztiak itxi dituztela jakinarazi du Rudaw agentziak. Horregatik, auzo horietako biztanleak protestan atera zirela kaleratu dute Kurdistango hedabideek, eta Damaskoren indar armatueta kideek eraso egin

zietela. Gutxienez hamabost herritar zauritu zituzten.

Egoera baretzeko asmoz, SDFko ordezkari bat Siriako Gobernuako kideekin batzartu zen atzo, Damaskon. Eta Alepoko auzoetan borroka geratzea adostu zuten, SANAREN arabera. Siriako presidente Ahmed al-Xaraa eta SDFko komandante Mazlum Abdi izan ziren bilkura horretan. Hain zuzen, bi horiek sinatu zuten martxoaren 10ean elkarren arteko borroka etetea. Ordutik, gehiengo kurduko koalizioaren arabera, Alepoko auzo kurduetan ez dago SDFko milizianoenik.

Lehen hauteskundeak

SDFk Siria ekialdeko eta ipar-ekialdeko eremu zabala kontrolatzen du, baina, martxoan hitzarmen horren arabera, Siriako kurduen instituzioak estatuko egituretan integratzea adostu zuten. Eta kurduak gobernu berriari laguntzeko prest agertu ziren Siriako presidente ohi Baxar al-Asad (2000-2024) jarraitzaileen aurkako borroketan. Horrez gain, Damaskok hitzeman zuen kurduak onartuko zituela Siriako Estatuaren parte gisa, eta estatutuak bermatu egingo zizkiela bai herritarren eskubideak eta bai herrialdeko konstituzioak aitortzen dizkienak. Ordutik, baina, tirabirak izan dira Damaskoren

eta SDFren artean. Bi aldeek elkarri egotzi izan diote akordioa ez betetzea.

Abendutik dago Al-Xaraa Siriako presidente karguan. Orduan, HTS Sortaldea Askatzeko Erakunde muturreko koalizio islamistak Al-Assaden gobernu erorazi zuen. Hamar hilabeteren ostean, igandean legebiltzarrerako hauteskundeak egin zituzten. Siriako Parlamentu berriak izango dituen 210 ordezkarietatik bi heren inguru hautatzeko aukera izan zuten Siriako herritarrek; beste herena, oster, Al-Xaarak berak izendatuko du.

Hautagaiek zenbait baldintza bete behar zituzten: ezin izan dute bozetan parte hartu Damaskok «terroristatzat» dituen erakundeekin lotura dutenek, ezta 2011tik aurrera parlamentuko kide izandakoek ere, baldin eta ez bazuten frogatzen jada ez direla Al-Assaden jarraitzaile. Gainera, bozak atzeratu zituzten SDFk kontrolatzen dituen guneetan eta As-Suwayda inguruan —biztanleen gehiengoa drusoa da—.

Herenegun eman zuen emailtzen aurrerapena Siriako Hauteskunde Batzordeak. Parlamenturako hautatutako ordezkari gehienak musulman sunitak dira. Soilik ordezkarien %4 izango dira emakumeak, eta bi kristau baino ez dituzte aukeratu. ●

HITZ
GUTXITAN

El-Enani izendatu dute Unescoko zuzendari nagusi

PARIS— Hurrengo lau urteetarako zuzendari nagusi berria izango du Unesco Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak. Khaled el-Enani egiptotarrak hartuko dio erreleboa Audrey Azoulay frantziarrari, zeina 2017tik egon den karguan. Lehendabizikoz jarriko dute herrialde arabiarretako pertsona bat erakundearen buruan.

Astelehenean aukeratu zuen Unescoren batzorde exekutiboak El-Enani. Unescoko 194 herrialdeetatik 58k osatzen dute batzordea. 55 boto izan ziren egiptotarrantzat. AEBek ez zuten bozkatu, erakundetik aterako baitira 2026an. Orain, Unescoko gainontzeko herrialdeek hautagaitza onartu behar dute azaroaren 6an Uzbekistanen egingo duten batzar orokorrean.

DATUA

200

Atzo jakinarazi zuen Errusiako Defentsa Ministerioak Ukrainak jaurtitako 200 drone baino gehiago erorazi zituela. Telegram sare sozialean eman zuen horren berri; eta ez zuen zehaztu ez biktimarik ezta kalte materialik eragin ote zuten.



«Estatuburu batek instituzioak erabili ez, horien zerbitzura egon behar du»

EDOUARD PHILIPPE

Frantziako Asanblea Nazionaleko diputatua

De Rerum Natura

@zaldieroa



Iritzia

Umeak



BERBEN POZA
Onintza Enbeita

Lagun batek esan zidan norbere umeek min ematen dutela. Ez dakit inor norbere-tzat har ote daitekeen, baina umeek, norbereak ez direnean ere, min ematen dute. Eta ni igeri ikasten hasi naiz. Bai, begi ertzak zimurrez betetzen hasi zaizkidanean, agur egiten dudanean eskumuturra baino gehiago besoko haragiak mugitzen zaizkidanean, iztarren bitarteko haragia harriak uretan egiten dituen bezalako biribilak egiten hasi zaida-

nean... ikastaro batean eman dut izena igeri ikasteko. Izan ere, gure umea erotu egiten da ura ikusten duenean, eta ez dut izan nahi alboan eserita begira gelditzen den ama. Burua uretan murgiltzen dudana aldiro gogoratzen naiz nire lagunaz eta neure buruari galdetzen diot ea beharrezkoa ote den hau guztia. Agian ez.

Izan ere, burua uretan sartzen dudanean ito egiten naiz. Inoiz baino arrisku txikiagoa daukat itotzeko, baina halako zera bat sartzen zait. Pentsatzen dut gure umeari urarekiko pasioa pasatzen bazaio betiko haserretuko naizela harekin. Egiten ari naizen ahalegina handia baita. Orduan beste lagun batekin akordatzen naiz. Bere grazia horrekin esan zidan behin: «Hemen ibili naiz ni ez dakit zenbat urtean txupeteak ur irakinetan garbitzen, eta zertarako? Gero zortzi lagunek edalontzi beretik edateko!». Gure amamak esaten zuen umeek gurasoak leku txarrean uzteko joera izaten dutela. ●

Gasteiz euskaldun hau



LARREPETIT
Blanca Urgell

Gasteiztarrok harro egon ohi gara gure hiriaz, eta horren arrazoietan bat gizarte etxeak ditugu, eta haiek herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzu ugariak. Harro egoteko modukoa da, halaber, euskararen ezagutza eta erabileran egin dugun jauzia. Haatik, horrek badu ageriko eragozpen bat: noiz, non eta nola bizi euskaldun, Tolosatik —adibidez— lekutan kokatzen gaituena.

Bihoa aurrez neureaz hitz egingo dudala, dakidantxoaz, eta ertz batetik bakarrik. Euskaraz egiten dut lan, euskaraz asko irakurtzen dut zahar eta berri, irratia entzuten dut (telebista gutxi), euskarazko ekitaldietara joaten naiz eta baditut lanetik kanpoko adiskide euskaldun gutxi batzuk, gutxienak. Lehenago seme-alabekin egiten nuen etxean, baina adina etorri eta azkenak ere alde egin du... Joan den ekainean lanetik at erdarak jan behar baininduen sentitu nintzen.

Gizarte etxeetan aurkitu uste nuen erremedioa. Bada, uztailan jarduera batean eman nuen izena euskarazko taldean, ilusio demasarekin. Monitorea euskaraz hasi, lehenengoak «ez dakit euskaraz» esan eta orduan galderra madarikatua erori zen zerutik: «Inporta zaizue?». Nik baietz esan orduko, inporta zaidala, gaitziturik, lauzpabost emakumek —ez gehiagok— «ez» esan zuten,

irribarrez, amore ematera ohituta baleude bezala. Gainerakoak erdaldun, antza. Hauxe ene ondorioa: erdarazko taldeetan lekuri lortu ezean, erdaldunak errukirik gabe apuntatzen dira euskarazkoetan.

Irailan jadaneko ez nuen hizkuntzarekiko halako itxaropenik eta, aldiz, ezustean monitorea euskaraz aritu zen hasieratik oztoporik gabe. Norbera aurkeztea eskatu eta dozena bat gasteiztar «euskaldunberri» agertu ziren —horrela definitu zuten beren burua—, ederki moldatzen zirenak; pare batek ulertu bai, baina hala-hola mintzo direla adierazi zuten; euskara etxetik dakarten bi kanpotar ere bazeuden, eta despistatu bat, euskaraz hitz egin ez, baina ulertzen saiatuko dena. Horra hor tarte baterako nire arnagunetxoa. Bai eta Gasteiz euskaldunaren gazi-gozen adibidetxoa ere. ●

Eskola-segregazioaren aurka, Eskola Publikoa lehenetsi

Arantza Fernandez de
Garaialde
eta Jose Manuel Martinez

Euskal Eskola Publikoaz Harro
topaguneko kideak

Eusko Jaurlaritzak «eskola inklusibo, ekitatibo eta kalitatezkoaren aldeko mahai» berria osatu duten gizar-te-eragileei *Euskadiko eskola-segregazioaren hasierako diagnostikoa eta erantzuna* izeneko txostena banatu die, eztabaidatu eta adostasunak lortzeko. Debateak, beraz, bere joko-eremua mugatua du, eta kartak markatuta daudela uste dugu.

Hasteko, mahaiaren osaera desorekatua da, itunpeko irakaskuntza-ko patronal guztien presentziarekin eta irakaskuntza publikoko gutxieneko ordezkartza batekin; gainera, irakaskuntza publikoko gehiengo sindikala osatzen duten bi sindikatuk parte ez hartzea erabaki dute. Hezkuntza Legea sortzeko prozesuan bezala, partaidetza partziala osatu da, prozesuaren bukaeran, *akordio historiko* berri baten aurrean gaudela esateko, baina akordio hori aurretik diseinatuta dago, eta ez dago benetako adostasun sozialik.

Txostenaren hasieran dagoen diagnostikoan aipatzen da bi hezkuntza-sare egotea (publikoa eta pribatu itundua) eskola-segregazioaren bost arrazioen artean dagoela. Gure ustez, irakaskuntza pribatu-itunduaren existentzia bera da ikasleen banaketa desorekatua sustatzen duena, eskola-eskaintza banatzen duelako ikasleak hautatzeko praktikarekin. Azterketa eta datu guztiek eskola-segregazioa itunpeko irakaskuntzaren presentzia handiagoarekin edo txikiagoarekin lotzen dutenean, faktore hori beste atal bat bezala aipatzeak, eta ez segregazioaren iturri nagusi bezala, diagnostikoa partzial eta osatugabe bihurtzen du. Arrazoiaren artean sistemaren dualtasun publiko-pribatua onartzen da, baina gero ez da kontuan hartzen neurri zuzentzaileak proposatzerakoan.

Txostenaren erdiak baino gehiagok berretsi egiten ditu Sailak segregazioaren aurka orain arte hartutako neurriak: indizeak sortzea,

eskola-mapa, matrikulazio-prozesua... Baina horien emaitzak hutsalak izan dira. Zertarako balio izan dute «2019-2022 eskola inklusiboa garatzeko esparru-planak» edo hiru urte hauetan ikasle zaurgarrien «banaketa» lotsagarriak? Disimilitude-indizea (birbanatu beharko litzatekeen ikasleen ehunekoa), 0,47tik 0,42ra pasatzeko: hau da, oraindik ikasleen %42 (ia erdiak!) birkokatu beharko litzateke segregaziorik eza-aren egoerara iristeko. Txostenaren egileei datu positiboa iruditzen zaie. Ez gatoz bat haien balorazioarekin. Ez dugu ulertzen, ikastetxe guztien artean ikasleen eskolatze orekatua lortzeko, neurriak sektorerik ahule-nean jartzea, ikastetxea aukeratzeko aukera ukatuz (haiei bakarrik), eta, plaza publiko bat bermatu beharrean, ikastetxe pribatueta bidaliz, batzuetan gure hizkuntzaren ezagutza bermatzen ez zaielarik.

Txostenak proposatzen dituen *Ikasleen segregazioari erantzuteko erronkak eta proposamenak* kontinuistatzat eta konpentsaziozkotzat baino ezin ditugu jo: ikasle zaurgarrien banaketari eustea, ikastetxe espeziifikoetarako laguntzak, familiekiko esku-hartzeak, irakasleen prestakuntza, eskola-arrakasta sustatzea, bekak... Lehendik dauden neurrien bilduma bat da, baita tokiz kanpoko behaketa psikopedagogiko batzuk ere. Ezinezkoa da emaitzak

lortzea segregazioaren sintomen aurka bakarrik jarduten bada eta horren kausari heltzen ez bazaio. Eskola-segregazioa arazo estrukturala da, eta sistema osoari eragiten dioten neurri estrukturalak behar dira, egiturazkoak, euskal hezkuntza-sistemaren bikoiztasun publiko-pribatua baita segregazioaren ardatz nagusia.

Bestalde, txosten osoan ez dago euskarak, integrazio-faktore gisa, eskola inklusibo berri horretan izan beharko lukeen zereginari buruzko aipamenik. Gero eta eleaniztunagoa den gure errealtatean, gure ustez, elkarbizitzarako zubia eta komunikazio-tresna nagusia izan beharko luke euskarak.

Laburbilduz, «eskola inklusibo, ekitatibo eta kalitatezkoaren aldeko mahai» berriaren osaketa desorekatua da, aurkeztutako diagnostikoa okerra, datuak triunfalistikak eta proposatzen diren neurriak asistentzialistikak. Gure ustez, parte-hartze sozialaren beste ariketa bat izango da, eta gomendio orokorren zerrenda batekin amaituko da. Gomendio horiek ez dituzte zalantza jarriko betiko politikak, segregazio egoera gogor honetara eraman gaituztenak; gure hezkuntza-sistema osoak eragiten duen diskriminazio-arrakala izugarri honetara eraman gaituztenak, hain zuzen.

Izan ere, eskola-segregazioaren arazoa ez da konponduko irakaskuntza-sistema dualari aurre egiten ez bazaio eta politika pribatizatzaileak alde batera uzten ez badira (2021etik 2024ra bitartean, jaiotza-tasa jaisten ari den honetan, sare pribatu-itunduari bideratutako dirua %17,5 handitu da, 124 milioi euro inguru).

Eskola-segregazioari aurre egiteko, txostenak eta araudi berria sortu baino gehiago, benetako borondate politikoa beharko litzateke neurri eraginkorrak abian jartzeko, hala nola plazak planifikatzeko eta esleitzeko prozesuetan sare publiko leheneeste, giza baliabideen eta baliabide materialen hornidura handitzea bertan guztiontzako bikaintasuna eta euskalduntzea bermatzeko, ikas-postuen sare pribatuaren gaineskaintza eta kontzertazioa pixkanaka murriztea, eta hala nahi duten ikastetxeentzat publikifikazio-bideak irekitzea. Familia gehienak eskola inklusibo, plural eta euskaldun bakarrera, eskola publikora, zuzenduko dituzten politikak, alegia. ●

Bai, esan?



JIRA
Oihana Arana

Gure gurasoen telefono mugikorretan deskubritu genituen snake jolasa, SMSak eta politonoak, baina nerabetu ginerako iritsi ziren WhatsApp, Pou, Candy Crush eta abar geure poltsikoetara. Wifi konexioaren bila ibiltzen ginen hasieran nonahi, baina berehala iritsi zen Internet ere.

Jolasa zirudien hasieran, baina orain bihotzekoak jota hiltzeko zorian egoten gara tote-bagean eskua sartu eta mobila ez dagoela iruditzen bazaigu. Arratsaldea bateriarik gabe pasatu behar baldin badugu... Pantailak esaten digu non jan, bertara nola joan eta gero nola ordaindu. Zenbat pauso egin ditugun, zenbat kaloria erre ditugun, zenbat denbora tardatu dugun A puntutik B puntura joaten. Une oro ikusi behar dugu urliak esandakoa, sandiak bidalitakoa... Une oro erantzun behar diogu lankideari, lagunari, jende ezezagunari...

Smartphonearen belaunaldia da gurea, guretzat telefonoak ez dira sekula izan deitzeko baino balio ez duten tresna batzuk. Baina orain jada, ez dira hori ere. Haserretu egiten gara norbaitek abisatu gabe deitzen badigu. Abiadura bikoitzaren tekla sakatuta entzuten ditugu zortzi minutuko audio mezuak, baina norbaitek «kaixo!» esan eta ez dakigu «bai, esan?» erantzuten. ●

Batzuetan



BIRA
Itxaro Borda

Hemezortzi urte zituen Alexandrak, lana ez baina alkohola maite zuen hamabost urte zaharragoko gizon batekin ezkondu zenean. Esperantzetan suertatu eta berehala hasi ziren kolpeak, irainak, bortxaketa erreplikatuak. Haurrak sortu ahala biolentatzen zituen senarrak. Gizonaren orroak eta joaldiak jasan izan behar zituen dibortziatzeko bere xedea agertu zionean ere. Hilko zuen segur aski, Alexandrak, bere lau ume hormatuen aitzinean, sukaldeko mahaian zegoen haragi-labana hartu eta karotida ebaki izan ez balio.

Europako lurraldean, oraindik ere bi egunetatik behin emazte bat hiltzen da bere senarraren edo bikotearen erasoengatik. Zenbaketa morbidoaren berri badugu, bereziki urteak finitzen direneko bilanak eraikitzen direnean. Alexandraren kasuan, bere burua eta haurren etorkizuna salbatu zituen, krimena hutsa den jestu odoltsua obratu zuenean. Presondegi prebentiboa egin eta tribunalak hondarrean absolbitu zuen, defentsa legitimoa aintzartat emanez. Destinoa desbideratzen da batzuetan... eredugarria ez den arren! ●

Agertzaletasuna



ARKUPEAN
Mikel Elorza

Alkatetza uztera doa-la-eta bere lanaren balantzea eginez, Eneko Goiak adierazi du ezinezkoa dela denak pozik uztea. Oso gutxitan gertatzen bada ere, oraingoan bat nator berarekin: denak kontent uztea ezinezkoa da. Beti berberak uztea pozik, ordea, ez da ezinezkoa, kezkarria da. Eta inpresioa dut bere kasuan hala izan dela: zorionaren esleipendunak hiriko sektore batzuk izan dira, sektore beti berberak, *negozioa*-ri lotutakoak, hazkundearekin zerikusia dutenak, azalaren distira nahiago dutenak mamiaren sendotasuna baino. Eta hazkunde, beti ere, ulertuta kontabilitate Exceletan, rankingetako posizioetan, hiriaren aldeko click eta *like*-etan. Bisitariak *bizitariak* baino zainduagoak diren ereduetan. Eneko Goia, kasu honetan, kon-

tzeptu gisa hartu behar da. Ez baita bakarra; hiri eta herri gehienak, nor bere tamainan, daude birus berberak jota. Baina Donostia bezalako perla *chic* batean, nabarmenagoa da. Egia da bestela jardutea ez dutela erraza udal agintariet, kontrario ahaltsua daukarela, euren ahalen gainetikakoa maiz: espekulazioa. Alor guztiak blaitu dituen pozoia da espekulazioa: eraikuntza, ostalaritza, merkataritza, kultura, aisialdia... Eta hala, ez dira lanbideak sustatzen, negozioak baizik; ez da hirigintza egiten, desarrollismoa baizik; ez da kultura lantzen, ezpada ikuskitzuna. Bizimodu *fast* eta *low cost* bat, *of course* ingelesezko hitzez definitua. Medioetan azaltzen ez diren dozenaka erabaki izango ditu Goia jaunak donostiarren bizimodua hobetze aldera hartutakoak, hori ere hala da, baina ustea dut ez duela itsasargi horrek gidatzen bere jarduna. Lehentasun kontua da. *Hondalea* izeneko Santa Klara irlako itsasargi instalazioa paradigmatikoa egiten zait alde horretatik: harkaitz eta olatur inguratutako uhartean, horren imitazioa jartzen da *bisitagai*. Aroa halakoa da, eta pertsonen bezala hiriek ere bidesari hori pagatu beharra dute XX. mendeko abertzaletasunaren ikur izatetik XXI. men-

deko agertzaletasunaren ikur izatera pasatzeko. Baina berriro diot, ildo beretik beste hiriburuetako buruak ere, lehentasun berberak akuilatuta, denak ezin kontent utziz, beti berberak utziz pozik. Baina ez dezagun ahaztu gauza bat, orojakile begi zoli *betikritikooi* joera amnesiko selektibo hori badugu:

Eneko Goiak adierazi du ezinezkoa dela denak pozik uztea. Bat nator: denak kontent uztea ezinezkoa da. Beti berberak uztea pozik, ordea, ez da ezinezkoa, kezkarria da

herritarren botoak jasota daude dauden tokian. Alkateak, esan nahi dut. Batzuo oso agerikoa iruditzen zaigu degradazioa, baina herritar askok —askotan gehiengoak— botoz bedainkatu egiten du. Baina ez dezatela ahaztu, demokraziaren zaindariak ere bai baitute joera amnesiko selektibo bat: herritarren

botoak eurak hautatu ditu, alkateak, baina ez euren lagunak. Frankiziei, inbertsio-funtsei, konstruktoreei, promotoreei, start-up eta multinazionalen ez die inork botoa eman, eta euren diseinatzen dituzte, zuzenean batzuetan eta zeharka besteetan, gure bizimoduak. Eta hauek ez gaituzte herritar nahi, bezero baizik. Botereaz ari naizela, eta kontrabotereaz, disidentzia ere badator kit gogora, eta egunotan disidentzia jardutean udalekuen aferak egiten dit atximurka, nahitaez. Tanella Boni idazle bolikostarrak badu pertsonaia bat, emakumezko maitagarri bat ogibidez «aurreiritzi ehiztaria» dena. Paraje hauetara etorrita lana erruz izango luke!! Aurreiritziz beteta gaude, eta post-iritziz mukuru: aspaldi ez nuen halako sorgin-ehizarik ezagutu. Begiraleei (bereziki batzuei, animo Aner!!) esandakoak bizkarrezurra zurruntzekoak dira. Zenbat gorroto hain karaktere gutxitan! Ohi bezala, auzi honetan, auziperatzeekin, arautze aldarrikapenekin, espantu erreakzioekin... heziketa-ereduez jardun beharrean, murrizketez eta erregulazioez jardungo dugu. Eta galtzaile, nork baino nork ozenago aldarrikatzen duena: libertatea. ●

Zuzendariari



BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta BERRIAK mozteko eskubidea du.

- Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: **Berria Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain.**
- Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: **iritzia@berria.eus**

Aho-handiak nonahi

Azkenaldian gure inguruetan gizaki misterioitsu bat ugaltu da izurriteen antzera: aho-handia. *Lagun zahar* hauek beita freskoa aurkitu dute Palestinaren aldeko azken aldarri eta mobilizazioekin. Inoren alde, inoiz, atzamar bat ere mugitu ez dutenak, orain justizia soziala eta kausa justu guz-

tien defendatzaile bihurtu dira egun batetik bestera. Amorrutaz eta handikeriaz, eta kirats ultraeskuindar bat dariela, boza altzatzen dute palestinarren genozidioa salatzen dutenen kontra. Arazo larriagoak omen ditugu hemen, hemengoek: etxebizitzaren prezioa, langabezia eta prekaritatea, pentsioak, politikarien ustelkeria... Haien ustetan, palestinaren alde egiten dugunok burburxa batean bizi gara. Ez dira inoiz *manifa* batera joan, ez dute parte hartzen herri ekimen solidarioetan, ez dira inoiz jubilatuen elkarretaratzeetara joan, ez dute inoiz zalantzan jartzen komunikabideen bertsio ofiziala, ez dituzte grebak edo protestak inoiz babesten... Ikuslearen papera ondo ikasia dute betidanik. Halere, azken asteetan kobazulotik atera dira, eta ez munduaren argitasunaz bustitzeko, bere gar sakratuarekin beste guztien garunak argitzeko baizik.

Segur aski zuk ere topatu duzula baten bat azken egunotan.
Hibai Aiestaran
Portugalete

Ansola jaunari

36ko gerraren porrotaren ondoren, eta trantsizioa iritsi arte, euzko abertzale askok bizirautea izan zuten helburu nagusi, enpresak eta negozioak eginez. Bi eskaintza onuragarri berdinen artean, beti *gureen* aldekoa aukeratzeko zuten. Horrela aurkitu genuen Euzkadi garaiko gaiteak. Indarkeria ez. EAJ CIArekin lankidetzan aritu zen, Otaegik gauza bera egin zuen ETArekin. CIA hobia da ETA baino? EAJk esan dezake bere erreferentzia CIAko konfidentek direla, eta ez hone-lakoak: «Lauaxeta balioen ozeano batek bereizten du Txiki eta Otaegirengandik», Iñigo Ansolak (BBB) errana. Txiki eta Otaegi balioen ozeano batek bereizten du Iñigo

Ansolagandik. Zikina da hildakoen artean konparaketa egitea.
Patxi Sansinenea
Hondarribia

Larrazkena Iruñerrian

Zorionekoak gu, Iruñerrian bizi garenok, Argako ibai parkea gozatzeko aukera dugulako udazkena edo larrazkena heldu delarik. Euskaldun berria naizenez gero, euskarari ekin eta hainbat urte iraganda, deskubritu nuen ele hori: *larrazkena*. Larrazkena ederra da, Euskal Herrian arorik ederrena, ene irudiko. *Larrazken* hitza ere, eder-ederra; eta larrazkena Argako ibai parkean, zoragarria. Larrazken hasi berrian ez dut oraino haiku edo bestelako poemarik ehizatu Argako ibai parkean, baina urtarorik politenean egonik lasai noa oinez, agertuko zait-eta baten bat. Haikurik ez, baina bidean intxaur erori berriak

kausitu ditut: intxaur ale bat jaso eta moskana kentzen hasi naiz. *Moskana*, bertze hitz eder bat, intxaurrak esku eta hatzetan utzi kolorea edo arrasto likatsua, garbitzen zaila dena. *Moskana* hitza irakatsi zidan emakumea etorri zait gogora, lankide izan nuen neska eder bat, euskaldun zahar gipuzkoarra, probintziara itzulua lekualdatze-lehiaketa baten bidez, eta aspalditik galdua dut haren arrastoa. Proust-en magdalenak nola, *moskana* hitzak ekarri dizkit gogora lagun horrenganako hainbat oroitzapen, oroimin eta sentimendu, buruaren txoko ezkutu batean aspalditik gordeak neuzkanak. Ene hatz mamiak moskanen zikinak daude eta pozik noa oinez parkean barna, zaila baita kentzen moskanaren arrastoa, lagun zenbaiten oroitzapenak ezabatzea bezain zaila. Zorionekoak gu, Iruñerrian bizi garenok, Argako ibai parkea gozatzeko aukera dugulako larrazkena heldu delarik.
Josu Jimenez Maia
Idazlea

Abortu eskubidea: atzerapausoak eta blindaje engainagarriak

Maitane Urkola eta Irene Ruiz

Itaiako kideak

Hautsak harrotu ditu Madrilgo Udalak —Voxek proposatuta eta PPren babesarekin— onartu berri duen abortuaren aurkako ekinaldiak, eta ez da gutxiarago. Proposamen horrek dioenaren arabera, abortua gauzatu nahi duten emakumeei, ahoz eta idatziz, abortu osteko sindromeaz jakinarazi behar diete hainbat esparrutako udal langileek. Gauza jakina da abortuaren osteko ustezko depresioek, kulpa sentimenduek eta abarrek ez dutela inolako oinarri zientifikorik. Kontrara, informazio faltua transmititzearen helburua abortua eta hori gauzatzen duten emakumeak kriminalizatzea da.

Neurri horrek, ordea, ez gaitu harritu; izan ere, ideologia kontserbadoreak beti eduki du abortua jopuntuan. Horren adibide ditugu abortu zentroen aurrean anti-abortistek inpunitate osoz egin ohi dituzten kontzentrazioak; emakumeari jazartzea beste asmorik ez duten praktikak dira horiek, nahiz eta legez debekatuta egon. Alderdi

ultraeskuindarrek babes politikoa ematen diete elkarte anti-abortista horiei —baita ekonomikoa ere, bide batez—, eta abortatzeko eskubidea- ren aurkako neurri zehatzak aurrera eramaten dituzte instituzioetan, hala nola Gaztela eta Leongo abortuaren aurkako protokolo entzutetsua edo Alacanteko abortuaren aurkako bulegoa. Neurri horiek guztiek atzerakada larria dakarte emakumeon oinarritzko eskubideetan, eta gure aurkako eraso zuzenak dira.

Eztabaida politiko-instituzionalean PSOEek ere jarri du bere alea. Hain zuzen, abortuaren aurkako «erasoaldi» ultraeskuindarretik babesteko, abortu eskubidea konstituzioaren bitartez blindatzeko asmoa adierazi du. Itxura guztien arabera, konstituzioan sartzeko beharrezko duten boto kopurua ez du lortuko —hori lortzeko, besteak beste, PPren babesa behar baitu—, eta, beraz, lerroburu iragankor bat besterik ez da izango. Hala ere, konstituzioan sartzeko proposamena aurrera ateratzea lortuko balute, abortu eskubidea hankamotz geldituko litzateke, eta ez litzuke eskubide horrek egun dituen arazo oinarritzkoenak konponduko. Hain justu, azken urteetan ikusi bezala, legeari dagokionez aldagetak proposatu badira ere —eskubide erreproduktiboei buruzko 1/2023 Lege Organikoa—, horrek

ez du emakume guztiontzako abortu eskubidea bermatu.

Frantziako kasua argigarria da. 2024an abortua konstituzioan sartzeari onartu zen arren, praktikan ez da aldaketa nabarmenik antzeman: abortua praktikatzeko duten mediku kopuruak txikia izaten jarraitzen du; abortu-zentro ugari ixten ari dira —Baionako Sexu Osasunerako Zentroa horietako bat da—, eta, gainera, zentroen itxiera horrek egoera zaurgarrian dauden emakumeei eragiten die kalte handiena, abortatzeko zuten aukera errazena hori baitzen; eta, oraindik, anti-abortistek mobilizazioak egiten dituzte urtero Parisen eta Lyonon.

Abortua despenalizatu zenetik berrogei urte bete diren honetan, abortatzeko eskubidea urratu egiten da oraindik. Gaur-gaurkoz emakume guztiok ez dugu eskubide hori bermatuta; izan ere, emakume migrante askok eta askok zailtasunak dituzte aborturako sarbidea izateko; muga burokratikoengatik eta legalengatik, batik bat. Horrez gain, abortu zerbitzua interes kapitalistetara azpiratuta dago, eta haren kalitatea baino gehiago irabazi ekonomikoak lehenesten dira: EAEn, adibidez, abortu zerbitzu gehienak klinika pribatuetan egiten dira, eta haietan, hainbat emakume- ren eta emaginen lekukoek berresten dute tratatu txarrak jasotzen dituztela

eta informazio falta nabaria dela. Maila sozialean, abortatzeak estigma eragiten jarraitzen du: emakumeen aurkako jazarpenek bere horretan dira, eta haien gaineko presio soziala nabarmena da.

Emakumeen eskubide erreproduktiboen aurkako erasoak ez dira azaleko lege-aldaketek bidez geldiarazten, emakume langileon bizi dugun errealtatea betikotu besterik ez baitute egiten. Horren aurrean, ezinbestekoa da, irabazi kapitalistan oinarritutako gizartearen aurka, eta doako eta kalitatezko abortu unibertsalaren alde borrokatzea. Izan ere, badugu zer borrokatu, ikusitakoak ikusita, etengabe kolokan dagoen auzia baita honakoa.

Batetik, emakume guztion eskura egongo den kalitatezko zerbitzuaren alde borrokatu behar dugu: enpresa pribatuen esku-hartzea eta horretan instituzioek duten konplizitatea salatuz, edota profesionalek abortua ez praktikatzeko duten eskubidea seinalatuz. Bestetik, abortuaren aldeko defentsa irmoa gauzatu behar dugu, emakumerik ez dadin babesgabe sentitu eta ez dadin kriminalizatua izan egoera horretan: Madrilgo Udalak proposaturiko ekinaldiaren aurka borrokatuz edota abortu-kliniken aurrean egiten dituzten kontzentrazioei aurre eginez. ●

Lanbide Heziketako errepikatzaileek ere ez dute kontatzen Hezkuntzarentzat

Mikel Larraza Arbizu

Irakaslea eta ELAko militantea

Joa den ikasturtean ohar-tarazi genuen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamenturentzat, gutxiengo sindikalean sinatutako itunaren arabera, ikasle errepikatzaileek ez dutela kontatzen, ez dutela lekuri hartzen eta ez dutela premiarik, ez Lehen Hezkuntzan eta ez Bigarren Hezkuntzan.

Ikasturte berri honen hasieran egiaztatu ahal izan dugu, zoritxarrez, Lanbide Heziketakoek (LH) ere ez dutela kontatzen. Azalduko dut.

Kontseilariak askotan harrotasunez

hitz egiten du Nafarroako LH dualari buruz. Sistema horrek, oro har, LHko ikastetxeen eta praktikak egingo diren enpresen arteko harremana indartzen du. Horren ondorioz, praktikaldia ikasturte bat lehenago hasten da. Gertatzen dena da, gaur egun, duala aurreko sistemarekin batera dagoela, ikasle batzuek aurreko sisteman errepikatu egin dutelako eta programa horretan ikasten jarraitu behar dutelako.

Horreraino dena normala litzateke, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe horietako langileen plantilletatik azken ikasle horiei erantzuna emateko behar duten ordu-esleipena kentzea erabaki izan ez balu. Kontuan hartu beharra dago, gainera, Hezkuntzak dualerako esleitutako orduak ere ez direla nahikoak.

Hau da, irakasleek sistema bateko zein besteko ikasleak artatu behar dituzte, baina horretarako behar diren ordurik gabe. Esan gabe doa horrek izugarritzko frustrazioa dakarrela kolektiboan, jabetzen baitira ezinezkoa zaiela euren ikasleei merezi duten erantzuna ematea.

Horrelako egoeren aurrean, kontseilariak, beti bezala, datu sorta bat jaurti ohi dio iritziz publikoari. Hizkuntza teknikoegiaren ondorioz herritarrentzat ulertzeko zailak diren arren, bere kalkuluetan beti esaten du ordu-esleipena handiagoa dela aurreko ikasturteetakoekin alderatuta. Oraingoan, parlamentuan esan zuen ikasturte honetan zehazki aurrekoan baino berrehun ordu gehiago daudela Lanbide Heziketarako.

Beraz, zentroetan baliabideak galdu direla antzematen bada —hau da, murrizketak daudela—, edo Departamentuak emandako datuak faltsuak dira edo, aitzitik, egiazkoak badira, bitarteko horiek kudeatzeko araudia egiten duten pertsonen gaitasun falta nabarmena da. Kasu batean zein bestean, argi dago zerbait —baliabide gehiago— edo norbait aldatu behar dela.

Jarrera hauen aurrean, ELA sindikatuan sinetsita gaude erantzunik eraginkorrena greba dinamika dela, aurreko ikasturteetan ikusi ahal izan den bezala. Oraingoan, gainera, intentsitatea areagotu egin behar litzateke, hala eskatzen baitu Lanbide Heziketak duen muturreko egoerak. ●



Realeko jokalariai burumakur, Rayoren aurka galdu eta gero. JON URBE / FOKU

Liburu berria zirriborro batekin hasi da

Reala azken hogeitako denboraldi hasierarik kaskarra egiten ari da. Jokatzeko era argirik ez duen talde bat da: bigun ari da defentsan, eta kamuts erasoan. Datuak argigarriak dira.

Ainara Arratibel Gascon

Kezkatzeko modukoa eta kaskarra. Halakoxea izan da Realaren denboraldi hasiera. Igandean, Rayoren aurka, beste norgehiagoka txar bat jokatu zuen, eta denboraldi honetako bosgarren neurketa galdu zuen: 0-1. Imanol Alguacilen aroaren azken txanpatik taldeak izan zituen gabeziak agerian geratu ziren beste behin. Reala ideiarik gabe eta kamuts aritu zen erasoan; defentsan, berriz, aurkariak aukera gutxi behar izan zituen gola sartzeko. Joko proposamen argirik ez duen taldea da txuri-urdina, eta nortasuna galduz joan dena. Gainera, zera ordaintzen ari da: azken bi denboraldietan multzoa osatzeko orduan egin diren akatsak.

Jokin Aperribai presidentek beste idazle batzuk jarri zituen liburu berria idazten: Erik Bretos eta Sergio Francisco. Baina libu-

ruaren hasiera kaskarra izaten ari da. Zirriborro batekin abiatu da. Jokoan izan diren 24 puntuetatik txuri-urdinek bost baino ez dituzte lortu, eta azken-aurreko postuan daude sailkapenean. Mallorca dago azkena, puntu kopuru berarekin. Azken hogeitako denboraldi hasierarik kaskarra da. 2006-2007 denboraldian egin zuen kaskarragoa: bi puntu baino ez zituen lortu. Jose Mari Bakerok eta Miguel Angel Lotinak zuzendu zuten taldea, eta sasoi amaieran Bigarren Mailara jaitsi zen. Liburu berriak halako amaiera ez izateko egoera iraultzen hasi beharko dute etenaren ostean.

Datuak
Hotzak bezain argigarriak

● Sergio Franciscok behin baino gehiagotan aipatu du ondorengo esaldia: «Datuek dioten baino

hobeto gaude». Baina zenbakiak hotzak bezain argigarriak dira. Aipatu bezala, Realak azken hogeitako sasoi hasierarik txarra egin du. Baina badira datu gehiago: 2025ean jokoan izan diren 84 puntuetatik 26 lortu ditu soilik: %30. Gainera, urte eta erdi darama partida baten emaitza irauli ezinik. Horrek erakusten du aurkariaren kolpeei erantzuteko zailtasunak dituela. 2024ko martxoaren 9an lortu zuen azkenengoz, Granadaren aurka. 33 partida dira denera.

Jokatzean dituen gabeziak agerian uzten dituen datuak daude. Valentziaren eta Bartzelonaren aurkako partidetan izan ezik, aurkariak baino gehiago izan du baloia, baina gero ez du hori jokoan islatzea lortu. Jaurtiketa gehien egiten duen zortzigarren taldea da, baina gol bat sartzeko jaurtiketa gehien behar duen bigarren taldea da, Oviedoren atzetik. 11 jaurtiketa egin behar ditu atera gola sartzeko; aurkariak, berriz, 9rekin gola sartzen diote.

Jokatzeko era
Ideia argirik gabe

● Talde guztiek jokatzeko eredu

edo ideia bat dute. Baina Realak oraingoz ez du halakorik erakutsi. Baloia duenean ez du gaitasunik aurkariari min egiteko. Jokoa sartzeko orduan nabaritzen ari da azken denboraldietan galdu dituen jokalarien falta: Mikel Merinorena, Martin Zubimendirena, David Silvarena... Urruti dago duela bi denboraldi Europa osoa aho zabalik utzi zuen joko ikusgarria. Ez dago horren zantzurik txikiere. Presioan estu eta oldarkor arituz baloia berreskuratu, eta pase gutxitan aurkariaren areara iristen zen: bizi jokatuz eta baloia iriabiadura ikaragarria emanez.

Pixkanaka aurkariak neurria hartu diote, eta Realak min egiteko gaitasuna galduz joan da. Baloia eduki, bai, baina bertikalean baino gehiago, horizontalean mugitzen du, eta hala oso zaila da aurkariari min egitea. Aurkariak erraz aurreikusten du Realak nola jokatuko duen. Aurrean, gainera, golak sartzeko arazoak ditu oraindik ere. Askotan, hala dauden taldeek geldikako jokaldiak baliatzen dituzte golak sartzeko. Baina hor ere kamuts dabil Realak. Jokaldi horiek lantzeko entrenatzaile bat fitxatu duten arren, oraingoz ez da nabaritu. Defentsan ere sendotasuna galdu du. Trantsizioetan bereziki asko sufritzen du taldeak, eta aurkariak ederki baliatzen dute hori. Gainera, zaintzetan ere ez dabilta fin. Betisen aurkako partida da horren adibide.

Sergio Franciscok ez ditu gabezia horiek konpondu. Alderantziz, batzuek okerrera egin dute. Gainera, ez du bere jokatzeko ideia ezartzea lortu. Prestatzailerak Realaren bigarren taldeak egin zuen lan onari esker iritsi zen lehendabizikora. Bigarren taldeak joko zuzena egiten zuen, eta ausart jokatzen zuen, erasora. Gainera, gai zen aurkariaren joko estilora egokitzeke. Halakorik ez da ikusi. Aurretik zuen nortasuna ere galdu egin du. Edozein kolpe nabaritu egiten du, eta zaleak haserre dira hainbat jokalarirekin, zelaian erakusten duten jarrerarekin: Sucicekin, adibidez. Barrenetxea izan ezik, gainera, beste jokalarik gehienak sasoi puntu onenetik urrun daude.

Taldearen osaketa
Berandu eta desorekatuta

● Baina jokalariai eta entrenatzaileak ez dira egoeraren errudun bakarrik. Gorago ere begiratu behar da, eta zaleak hasi dira dagoeneko horretan. Izan ere, bigarren denboraldiz segidan taldearen osaketa berandu egin dute Bretosek eta Aperribaik. Bretosek



11

GOLAK SARTZEKO JAURTIKETAK. Realak kamuts ari da aurkariaren ate aurrean. Jaurtiketa gehien egiten dituzten taldeetan zortzigarrena da, baina gola sartzeko jaurtiketa gehien egin behar dituzten artean bigarrena: 11, guztira.

33

EMAITZA BAT IRAULI GABE DARAMATZAN PARTIDAK. Realari kosta egiten ari zaio aurkariaren kolpeei erantzutea. Hala, urte eta erdi darama partida baten emaitza irauli gabe. Granadan lortu zuen azkenengoz, 2024ko martxoaren 9an. 33 partida daramatza hori lortu gabe.

adierazi zuen talde «osoa eta orekatua» zuela Realak. Baina hainbat postutan behar baino jokalarik gehiago ditu: zelai erdia, adibidez, punta erdiz josita dago. Aurrean, berriz, iragan sasoioko gabeziak ditu orain ere. Orri Oskarsson min hartuta dago, eta agerikoa da Sergio Franciscok ez duela konfiantzarik ez Jon Karrikaburun, ez Umar Sadiqen. Azken hori klubetik kanpo nahi zuten, baina bi partidetan Karrikabururen aurretik zelairatu du teknikariak. Konponbidea, aurreko sasoioko: puntan Oiartzabalek jokatzea.

Prestatzailerak zelai erdiko jokalarik bat eskatu zuen, taldeak baloia galtzen zuenean oldarkor arituko zena. Azkenerako, Yangel Herrera ekarri zuten, baina azken egunean, eta min hartuta iritsi zen. Oraingoz ez du jokatu, osatu berri baita. Beste hiru fitxaketak, Dujé Caleta-Car, Gonçalo Guedes eta Carlos Soler, ez daude garai batean erakutsi zuten bezain sasoioko. Tantaka baino ez dute erakutsi zertarako gai diren. Gainera, garairik loriatsuenen taldeko bizkarrezurra ziren jokalarietako batzuek taldea utzi dute. Jaki-na zen hala izango zela. Baina ez dituzte ordezkatu; eta hala egin dutenean ez dute asmatu. ●

Hitz egitea



HIRUKOTIK
Mikel Reina

Ez. Ez dut nahi. Ez dut nahi Basko-niaren lehen hiru partida ofizialen analisi batekin hasi. Ez dut nahi, eta ez dut egingo. Denboraldiaurrea hala moduzkoa izan du Paolo Galbiatik, min hartutako jokalaria zirela eta Europako Txapelketa jokatu zutenak zirela, eta ez dakit prestakuntza lanak kontuan izateko modukoak izan diren. Denboraldiaurrea, akaso, gaur egungoa izan daiteke. Talde handi askok hori egiten dute: prestakuntza luzatu, sasoi amaierara hobeto heltzeko.

Aurretik esandakoak. Baina hori gutxi batzuek bakarrik egin

dezakete: kalitatea edo fisikoa bakarrik erabiliz oso nagusi izan eta partidak irabazten dituztenek. Hori, Euroligan, adibidez, ezinezkoa da, ez da bideragarria. Edozeinek irabaz diezaioke edozeini. Emakumezkoena gaur hasiko da. Hemen ere, iazko formatu aldaketarekin, hutsegi-teetarako tarte txikia dago. Iaz Espainiako Ohorezko Mailako finaletik kanpo geratu ostean, Perfumerias Avenidak ez du Euroliga jokatu; urte mordoa zerman jarraian txapelketa hori jokatzen. Hemen ere ziklo aldaketa nabaria da. Lehen aipatutako potentziak. Valentziak, Gironak eta Zaragozak jokatu dute Euroliga. Zaragozak, atariko kanporaketan, joaneko partidako 21 punturen aldea irauli zuen ligaxkarako sailkatzeko. Hain zuzen ere, joera on hori baliatu zuten Espainiako Superkopa irabazteko. Hirurak daude ACB ligako taldeen baitan. Azkena Girona izan da: udan egin zuten ofizial bateratzea.

Eurokopa gaur hasiko da. Lointek Gernikak Malosten jokatuko du (20:00, ETB4) Uniao Sportiva Portugalgo taldearen aurka. Talde beraren aurka lortu zuen 2018-2019ko denboraldian lehen aldiz txapelketako kanporaketak jokatzea. Bizkaitarrek



Lointek Gernikako jokalaria, denboraldiaurreko partida batean.

ez zuten inolako arazorik izan atariko kanporaketa gainditzeko. Urtebeteko hutsunearen ostean, gogotsu egongo dira zazpi urtez jarraian jokatu zuten lehiaketari ekiteko. Oraindik barruko jokalaria sendo barik daude: Cameron Williamsek eta Taylor Jonesek min hartu dute, eta taldea utzi. Estatubatuarrentzako tokia badauka ere, eta ikusteko dago merkatuak zer eskaintzen duen, eta ez hori bakarrik, baita zer prezioztan dagoen ere.

Modu batera edo bestera gernikarrek garaipena lortu zuten, luzapenean, Estudiantesen aurka ligako lehen jardunaldian. Nabarmenezkoa da estreinako partidek emandako emaitzak. Hiru euskal taldeen entrenatzailerik ligaren berdintasuna eta gogortasuna nabarmendu zuten joan den astean. Gernikak eta Araskik puntu bakarragatik irabazi zuten. Gasteiztarrek lehen aldiz irabazi zioten Salamanca taldeari. IDK Gipuzkoak ere gorriak eta bi ikusi zituen Gaskan Kanaria Handia mendean hartzeko. Baina Valentziak Ferrolen galdu zuen, eta Zaragozak etxean Joventuten aurka. Hiru partida puntu bakarragatik erabaki ziren, eta beste hiru zortzi puntu edo gutxiagotatik.

Ozen. Hasi berritan ez, amaitzeaz dagoena WNBA da. Gaur goizaldean jokatu dute

Phoenix Mercury eta Las Vegas Acesek finaleko hirugarren partida; aurreneko bietan, Las Vegas Aces 2022ko eta 2023ko txapelduna gailendu da. Lehen aldia da zazpi partidatara jokatzen dela finala. Baina ikusteko dagoena da hurrengo urtean finalik egongo ote den. Aurten amaitzen da hitzarmen kolektiboa, eta hura berritzeko aukera gero eta urrunago nago. Napheesa Collierrek, jokalarien artean ikur nagusietakoak direnetako batek, Cathy Engelbert zuzendariauren aurka jo zuen finalerdiaren kanpo geratu ostean. Caitlin Clarke berak ere aitortu zuen: «Ligaren historiaren momentu garrantzitsuenetako baten aurrean gaude».

Urriaren 31ra arte dute ituna adosteko negoziazio epea, eta akordioa ez dago hurbil. NBA lau greba egin dituzte historian: 1995ean, 1996an, 1998-1999 artean, eta 2011n. Ikusteko dago WNBAko lehendabizikoa egingo ote duten. Ligaren garapena, batez ere telebista akordio berria sinatu zutenetik 60 milioi dolarretik 200 milioira, ez dator bat jokalarien soldatekin. Urte askoan Europara etorri izan dira bertan diru gehiago irabazten zutelako. Clark bezalako jokalariek, sare sozialen bidez batik bat, ligaren ikusle eta jarraitzaile kopurua biderkatu egin dute. Eta hemen bai, horren inguruan hitz egin beharra dago. ●

HITZ GUTXITAN

Beti Onak Yellow Winterthurren aurka ariko da

ESKUBALOIA— Beti Onak-ek Yellow Winterthur Suitzako taldearen aurka jokatuko du Europako Kopako hirugarren kanporaketan. Atarrabiarrek etxean jokatuko dute joaneko partida, azaroaren 8an edo 9an; itzulikoa, berriz, astebe-te geroago jokatuko dute, azaroaren 15ean edo 16an, Suitzan.

Yellow Winterthurrek nagusitasun handiz kanporatu zuen Xqiponja Kosovoko taldea bigarren kanporaketan: 38-23 irabazi zion Suitzan, eta 29-48 Kosovon. Suitzako Liga ere oso ondo ari da, jokatu dituen lau partidak irabazi baititu. Lider da, Amicitia Zurichekin berdinduta.

Beti Onak-ek, berriz, Galitxanka Lviv Ukrainako taldea kanporatu du. Hain zuzen, kanporaketa hori dela-eta atzeratutako partida jokatuko dute atarrabiarrek gaur, etxean, Ro'Casaren aurka (19:00).

Bera Berak ere gaur jokatuko du ligan, Lanzaroten (Espainia), Zonzamasen aurka (21:00). Donostiarrak lider dira, jokoan egon diren hamar puntutatik bederatzi lortu baitituzte. Zonzamas, aldiz, azken-bigarrena da, eta bi puntu besterik ez du. Hori dela eta, entrenatzailea kendu berri dute kargutik.

Gross txapelketa larunbatean, Galarretan

ERREMONTEA— Larunbatean jokatu dute Gross txapelketa, Galarreta frontoian, 17:00etan hasita. Lehenbizi, bi finalerdiak jokatu dituzte: Jabalera eta Barrenetxea IV.a Goikoetxea V.ren eta Larrañagaren aurka, eta Aldabe eta Juanenea Ezkurra II.aren eta Azpirozen kontra. Irabazleek finala jokatu dute segidan. Lehiak gain, jatekoak, edatekoak eta musika egongo dira gaueko hamabiak arte.

IZALGO MENDI DUATLOIA
mendiduatloia.eus

IDIAZABAL
URRIAK 11 | 16:00 TAN

Korrika	5,88km	166m+
Bizikleta	16,27km	801m+
Korrika	2,18km	64m+

Luma Gorri **ZUK** **HIK** **Kaiku**

EUSKO LABEL **GOI-mailako elikagaiak** **Euskadiko Triatloi Federazioa** **EUSKAL HERRIA KIROLA** **berria**

LUIS MARI HARATEGIA **GOIBIKE** **Irizar** **Oiharte** **ezarri GSPORT**

MERTZERIX LURRINDEGI **AMPO** **GUZTA Janaridenda**


AXARI DENDA **Agotzaina** **IGARONDO FRONTIOIA** **EDERFIL BECKER** **MARIAJE**

KENDU **Bai Reformas** **ARANTZAZU** **GUARDIA** **GIB**

MENDIA

Muskilda, Iratiko bide zaharretik

Otsagabia gaineko multzo arkitektonikoak, baselizaz gain, ermitauarentzako etxe bat eta kapilauarentzako beste bat ere baditu.



Desnibela	303 m	Erreferentziak	0.40 Iturria
Zailtasuna	***	0.00 Otsagabia	1.25 Muskildako ermita
Luzera	7,2 km	0.05 Bidegurutzea	1.40 Hondakinak
Denbora	2 ordu	0.10 Itxusdoiako bidea	2.00 Otsagabia

Mikel Arrizabalaga

Muskildako Andre Mariaren baseliza izen bereko mendiaren gainean dago, Otsagabian (Nafarroa). Hara heltzeko, autoz ez ezik, oinez ere joan daiteke herrian bertan dagoen antzinako hainbat bidetatik. Ibilbide zirkular honen lehen tarte Iratiko oihanera daraman bide zaharretik beteko dugu, eta itzulera, berriz, herritik baselizaraino zuzenean igotzeko herritarrek erabili ohi duten gurutze bideari jarraituz osatuko dugu. Ibilbide osoa SL-NA 65 zidorraren marra zuri-berdez balizaturik dago.

Zaraitzuko ibarreko Otsagabia herri ikusgarrian emango diogu hasiera ibilaldiari. Herriko kale harriztatuetatik berehala iritsiko gara San Joan Bataiatzailearen elizaren ondora. Hori utzi, eta herriko azken maldan dauden etxeen artean abiatuko gara bidegurutze batera heldu arte. Baselizara igotzeko dauden bi aukeren artean, ezkerretik abiatzen dena aukeratu dugu (SL-NA 65-Iratiko bide zaharra), eta eskuinekoa (SL-NA 65 eta GR-11) itzulerarako utzi.

Basoan barrena doan bidezidor



← Muskildako Andre Mariaren baseliza, Otsagabian.
MIKEL ARRIZABALAGA

estutik (Intxusdoiako bidea), inguruko landarediari eta zuhaitz barietateei buruzko argibide taulak ikusiko ditugu. Xenda amaitu, baso pistara iritsi eta hurrengo bi kilometroak pagadian beteko ditugu. Bidearen ezkerretik metro gutxi batzuk jaitsi, eta aska txiki bat duen iturburua aurkituko dugu. Bide nagusira itzuli, eta aurrera egingo dugu; altuera ira-

baziko dugu pixkanaka. Basotik atera eta leku zelai batera ailegatzean, inguruko mendi tontorren ikuspegi bikaina izango dugu: Berrendi, Idorrokia eta Abodi tontorrekin batera, Tapla eta Alforjetako pasabideak ere ageri dira. Puntu honetan, bat egiten dute SL-NA 65 eta GR-11 (Hiriberrri-Otsagabia) ibilbideek. Hemen-dik aurrera, eta abiapuntura itzuli

arte, gure ibilbidea hiru kolorez (zuri-gorri-berde) balizaturik izango dugu.

Aurrera jarraitu, baso pistatik errepidea zeharkatu, eta berrir basoan murgilduko gara. Bertatik Muskildako baselizara erraz ailegatu dugu, azken zatia errepidetik ibiliz. Muskildako Andre Mariaren baseliza ederra XII. mendekoa da, erromanikoa, eta Nafarroako

Antso VII.aren erregealdian eraiki zutela uste da. XVII. mendearen erdialdean zaharberritu eta elementu berriak gehitu zituzten, hala nola sakristia. Kontrahorma lodiek hormei eusten diete, eta bi sarrera ditu, hegoaldera eta mendebaldera begira. Ate nagusia erromanikoa da. Lau angeluko dorrea nabearen azken atalaren gainean eraikia dago, eta teilatu konikoa du, zurezko teilaz egina, eskualdeko eraikuntzen estilo tradizionalari jarraikiz. Horma hobi nagusian, Muskildako Ama Birjinaren irudia dago, haranaren zaindariarena, estilo erromaniko berantiarrekoa edo gotikoaren hasierakoa (XIV. mendearen amaiera).

Multzo arkitektonikoak ermitauarentzako etxe bat eta kapilauarentzako beste bat ere baditu. Harrizko harresi txiki batez inguratutako multzo osoa. Santutegia patronatu laiko batek gobernatzen du. XVII. mendean hainbat auzi izan zituen elizaren hierarkiarekin haren nagusitasunaren gainean, oparoaldi ekonomikoaren ondorioz. Antza denez, gotzain batek patronatuko kontuak gainbegiratu nahi izan zituen, eta bertako kideak horren aurka agertu ziren. Eskumikatu egin zituzten, eta Otsagabiko bizilagunak, berriz, eskumikatzeko mehatxupean beldurtu.

Abiapuntura itzultzeko, patronatuko etxeak duen gangadun tunela zeharkatu dugu, baselizarako sarbide nagusia. Otsagabiko San Joan Bataiatzailearen elizarekin lotzen duen antzinako bide tradizioaletik jaitsiko gara hortik, 14 geltokik markatutako gurutze bidetik. Bide harriztatutik herrira heldu aitzin, 1794an suntsitutako Santa Kruz baselizaren hondakinen ondotik igaroko gara. Otsagabia Nafarroako Piriñoetako arkitekturaren adibiderik onena da: merezi du harrizko Erdi Aroko zubiak lotzen dituen bi aldeetako kale harriztatuetan ibiltzea, eta haietan dauden etxe ederrez eta bi eta lau isurialdeko teilatu lauez gozatzea. ●



MENDIA

Mendiari buruzko atal berritua, BERRIAN
Aktualitatea, ibilbideak, proposamenak eta buletina.

Berria.eus/mendia/

aldi hau
kontatzeko
berria



Khane Valley espedizioko kideak, uda honetan. KHANE VALLEY ESPEDIZIOA

Non baldintza zailak, han gogoa

Ekaitz Maiz, Joseba Iztueta, Ibon Mendia eta Pablo Escudero eskalatzaileak Karakorumeko Khane haranean ibili dira udan. Baldintza txarrak izan arren, bi jarduera on osatu dituzte Trident Tower eta Hidden Tower orratzetan.



Joseba Iztueta Trident Towerreko horman. KHANE VALLEY ESPEDIZIOA

Ramon Olasagasti

Apokaliptiko samarra da irudia: mendiak erortzen, lurraren erraiak zabaltzen... Baina horixe ari da gertatzen mendigune askotan, klima aldaketaren eraginez: izotzez eta elurrez soldatutako granitozko edo kareharrizko orratzak eta mendiak hausten ari dira, eta glaziarrek ezdarri sakonetan arrailtzen, lurra bera aho haietatik antsika ariko balitz bezala. Horixe gertatu zaie aurten Ekaitz Maiz (Etxauri,

Nafarroa, 1979), Joseba Iztueta (Gabiria, Gipuzkoa, 1991), Ibon Mendia (Iruñea, 2002) eta Pablo Escudero (Bilbo, 1989) euskal eskalatzaileei Karakorumeko Khane haranean (Baltistan, Pakistan). Temperatura beroen eta euri jasa etengabeen ondorioz, «mendiak puskaka» erori zaizkie gainera, horrek duen arriskuarekin. Hala ere, bi jarduera on eginda itzuli dira, eskalada lerroak gailurre-raino ez eramateak sortzen duen «gazi-gozoa» gorabehera.

Karakorum mendigunean ehunka haran eta zain nagusi daude, eta haietatik kapilar txikiagoak sortzen dira. Horietako bat da Khane harana: Husheko haranean, Khane herrian sor-

tzen da haran estu hori, 5.000 metrotik gorako dorre eta orratzez harresitua. Azken urteotan, horrelako haran ezezagunetan dabilta, «jende gutxiago ibilitako haranen bila, mendiak esploratzeko eta bakardade hori sentitzeko gogoz», azaldu du Maizek.

Uztailleko aurreneko astean, Khane herrixkatik kanpaleku nagusia kokatu zuten lekura (4.500 metro) bi egun egin zituzten oinez, izerdi patsetan. «Pare bat ordu ibili, eta gelditu egin behar izaten genuen itzaletan, eguzkitik babesean. 4.000 metrotan 30°C egiten zituen. Kristoren beroa», oroitu du Mendiak. Leku seguru samarrean kokatu zuten kanpalekua. «Orratz baten babesean

jarri genituen dendak, baina aldamenetan, egunez eta gauez, harriak erortzean sortutako burrunba etengabea zen. Harri pila bat erortzen zen leku guztietatik. Beroak eta ondoren euriak dezent baldintzatu zuten espedizioa, bai», onartu dute Maizek eta Iztuetak.

Zerutik jausitako harri erauntsi haiei itzuri eginez, mendi eta lerro ahalik eta seguruena bi-lutzen saiatu ziren. Bi taldetan banatuta, Mendia eta Escudero Hidden Towerre (5.890 metro) abiatu ziren. Haranera iritsi zirenetik orratz hura jo zuen begiz Mendiak. «Materialaren parte bat garraiatu genuen, eta zer lerrori jarraitu aztertu genuen».

Maiz eta Iztueta, berriz, beste mendiarte bat esploratzera joan ziren: Tangra Tower, Trident Tower eta Agil Tower dorreek eratutako harantxoak. Bailararen sakon-sakonean, hiru gailurrek koroatutako horma ikusgarria iruditu zitzairen ederrena eta seguruena: Trident Tower. Ekaitzi piztu egiten zaio gogoa paretaren ikuspegia gogora ekartzean: «Gutxi gorabehera 700-800 metroko horma bat da, oso tentea. Sukaldaria eta gidaria Khane herrikoak bertakoak ziren, eta esan ziguten hara ez zela inor igo. Arrakala eta diedro sistema batzuk ikusi genituen, eta iruditu zitzaigun hormak sekulako aukera ematen zuela bide bat zabaltzeko». Uztai-


'Gogoaren indarra' bidea



**'GOGOAREN
INDARRA' BIDEA**
Hidden Tower (5.890 m),
Karakorum (Pakistan).
Luzera: **1.300 m**
Zailtasuna: **7a, 70°**
2025-07-18/19/20
Materiala: **2 totem joko**
(+3 eta 4)
Gailurretik 80 metrora
geratu ziren

Iturria: Ibon Mendia, Pablo Escudero, Joseba Iztueta

Trident



TRIDENT (5.680 M)
Karakorum (Pakistan).
Zabaldukako lerroa:
600 m, 7a+/A2.

Iturria: Ekaitz Maiz eta Joseba Iztueta



«Harri pila bat erortzen zen. Beroak eta ondoren euriak dezente baldintzatu zuten espedizioa»

JOSEBA IZTUETA
Eskalatzailea

«Gogoan dut 7a+ mailako luze batean tarte luze samarrak eskalatu behar zirela friend batetik bestera»

IBON MENDIA
Eskalatzailea

«Bustitako sokak kateatuta geratu zitzaizkigun, eta, haiek berreskuratzen, sekulako harri jausia gertatu zen»

EKAITZ MAIZ
Eskalaitea

laren 13an, bidearen hasierako lehen lau luzeak eskalatu zituzten Maizek eta Iztuetak, eta 200 metro soka utzi zituzten finkatuta, hurrengo ahaleginerako. *Gaixoa ni* egunean, uztailaren 14an, hala-koxea izan zen hurrengo egunetarako eguraldiaren iragarpena ere: euria, euria, euria zarra-zarra. Hil ala biziko xake partidak, bibotea bera ere jokoan zela, Eskuderoren ukelele arpegioak eguraldiaren aurpegi beltza alaitzeko, etsipenari aurre egiteko beste abesti baten akordeak ateratu... Harrian ezin denean, egonarrria da espedizioen sekretua.

Gogoaren indarra

Kateko txakurra nola, halaxe zeuden lau eskalatzaileak uztailaren 17an duda-mudako eguraldi iragarpen bat jaso zutenean. Balizko leihoa erdizka zabalduko ote den edo brau itxiko ote den jakiteko modu bakarra dago: menturatzeta. Maizek ez zuen garbi ikusi: alde batetik, iragarpena ez zen batere fidagarria, eta, bestetik, materiala Tridenten oinarrian zuten, eta, ondorioz, kanpalekuan geratzea hobetsi zuen. Beste hirurek, berriz, motxilatarrak bizkarreratu eta uztailaren 18an Hidden Towerren saiatzea era-

baki zuten. «Eskerrak hiru joan ginen, pisuarekin eskalatzean alde handia baitago bi joan edo hiru joan», zehaztu du Mendiak.

Zama arintze aldera, eskalatze-ko oinetako pare bakarra eraman zuten, eta mendiaren beheko murruan Mendiari egokitu zitzaion haiekin dantza egitea. «Iztuk eta Pablok, berriz, eskalatzen eta jumarrarekin sokatik igoz eskalatu zituzten luze horiek, ia 30 kiloko motxila zeramatela. Gogotik egin behar izan zuten lan. Niri egiteko atsegina egokitu zitzaidan», oroitu du Mendiak. Lehen egun horretan eguraldi nahiko txukuna izan zuten, eta harkaitza, beheko parte horretan, «nahiko ona» zela azaldu dute Iztuetak eta Mendiak. «Hala ere, zati batzuetan ez zen erraza babestea. Gogoan dut 7a+ mailako luze batean tarte luze samarrak eskalatu behar zirela friend batetik bestera, eta uf!». Une haietako estualdiaren salartari da Mendiaren hasperena.

Beheko zati horretan 300-400 metro eskalatu ondoren, hormaren erdi pareko glaziar eskegi bateraino heldu ziren, eta horren goiko aldean jarri zuten kanpalekua, 5.500 metro inguruan. Hurrengo goiza «gris antzean» esnatu zen. Bazekiten aurrez ere

«apustua hala moduzkoa» zela, baina gorantz jarraitzea erabaki zuten. Egunak aurrera egin ahala, haizea zakartzen joan zen, eta goigoian malo-malo hasi zen elurra. Gailurraren azpiko elur arrapala luzea zeharkatu, eta, gailurretik 80 bat metrora zeudela, «kristoren marroia» sartu zela dio Mendiak. «Horma ikusi ere ez genuen egiten. Laino beltz batek bildu gintuen, elurra gogor hasi zuen...». Karkaba hartan, erabaki bakarra har zitekeen: beheara arrapaladan. Rappela rappelaren ondotik, «mela-mela eginda» iritsi ziren kanpalekura.

Gogoaren indarra. Bideari emandako izenak ez du soberako azalpenik behar. Mendia: «Bagenekien aurrez eguraldi on-ona ez genuela izango saiakera hartan, eta horrelakoetan, gogoa behar da gora egiteko, saiatzeko... Gogoaren indarrak bultza gintuen gorantz, eta gailurrera iristeko zorian izan ginen». Bideak 1.300 metro ditu. Zailtasuna: 7a, 70°.

Ondoko egunetan zarra-zarra egin zien euria. Uztailaren 23-24an, uholdeak izan zituzten kanpaleku nagusian, eta gorago mugitu behar izan zituzten dendak. Beheko herrietan ere zubiak eraitsi eta triskantza handia era-

gin zuten euriteek, azaldu dutenaren arabera.

Azken ahalegina

Uztailaren hondarrean, bi egun eta erdirako onaldia emana zuen eguraldi iragarpenak. Mendiak eta Eskuderok Hasho Peak mendirantz jo zuten, baina ezin izan zuten hormaren azpira iritsi ere egin. «Glaziarra erabat irekia zegoen. Irudi bat daukat buruan iltzatuta: Pablo 30 metroko serac bat eskalatzen, haren gainera igo-tzen, 50 metroko beste serac bat rappel eginez jaisten, beste serac bat eskalatzen... 'Nora goaz, hemen akabatu egingo gara' esaten genuen geure artean. Egoera ikusita, uztea erabaki genuen. Espedizio honetan arriskua goitik eta behetik izan dugu une oro», azaldu du Mendiak.

Maizek eta Iztuetak, berriz, Trident Towerrean jo zuten, hasitako lanak bukatzera. Uztailaren 27an igo ziren hormapera, eta biharamunean, goizeko 4:00ak aldera hasi ziren eskalatzen. «Mantso joan ginen, halabeharrez. Tarte asko eta arrakala guztiak bustita zeuden barrutik, eta luzeak ere uste baino zailagoak izan ziren». Hamar-hamaika luze eta 600 bat metro eskalatuak

zituztenean, argi ikusi zuten ez zirela egunez helduko gailurrera. «Azken puntu horretara ni lehortuta iritsi nintzen, goiko aldean harkaitza ustel samarra ikusten zen, eta inguruan harriak etengabe ari ziren erortzen. Hori guztia kontuan hartuta, jaistea erabaki genuen», azaldu dute Maizek eta Iztuetak. Rappel egiten ari zirela, bonbardaketa areagotu egin zen. «Bustitako sokak kateatuta geratu zitzaizkigun tarte batean, eta, haiek berreskuratzen ari ginela, sekulako harri jausia gertatu zen, sekulakoa. Ez gintuen harrapatu, baina tentsio handiko jaitsiera izan zen».

Ahalegin hori eginda bukatu zen Khane haraneko espedizioa. Baldintzak ez dira egokiak izan aurtan, baina esaerak dioen moduan: non gogoa... Itzuliko dira berriro ere Karakorumera, Khane haranera ere bai agian, hasitako lanak bukatzera. Noiz? Hor egon daiteke koska, Maizen arabera: «Aurrekoan Mikel Zabalzarekin hizketan, aipatu zidan azken hamar urteetan izozte maila 1.000 metro igo dela inguru hartan. Orduan, espedizio hauek uztailan egin beharrean, agian ekainean edo irailean egin beharko ditugu aurrerantzean». ●

ESTU
RA

Iraia Vieira Gil

Gorputzarekiko harremana, bakardadea, amatasuna eta gizarteak ezartzen dituen botere harremanak. Kezka horiek guztiek zeharkatzen dute, besteak beste, trantsizioan —1970. urtearen ostean, zehazki— jaiotako Euskal Herriko emakumezkoen literatura. Katixa Agirre, Eider Rodriguez, Irati Elorrieta, Karmele Jaio, Maixa Zugasti, Uxue Apaolaza eta Leire Bilbao idazleen obrak dira bereziki aipagarri, hurrengo belaunaldietan «eragin handia» izan dituzten lanak ondu baitituzte azken urteotan. Rodriguezek, Elorrietak, Jaiok eta Apaolazak, gainera, Euskadi saria eskuratu zuten 2018 eta 2022 artean. Jon Kortazar eta Paloma Rodriguez Miñambres (Barakaldo, Bizkaia, 1972) EHUko irakasleek haien testuak ikertu dituzte, emakumezkoen euskarazko literaturari buruzko azterketa «sakona» garatzeko. *Ahotsak Gorputuz. Euskal emakumezkoen literatura (1970-1985)* liburuan bildu dituzte emaitzak.

Emakumezkoek jorratzen dituzten gaiak —familia, gorputzen politizazioa, abortua— literatura femeninoarekin lotu ohi dira, eta ez dira unibertsaltzat hartzen.

Egoera konplexua da. Saillakapenak arriskutsuak dira, errazkeriatan erortzea eragiten dutelako. Emakumezkoen literatura kalitate handikoa da, eta ez ditu gai unibertsalak baztertzeko; kontrara, bildu egiten ditu. Besteak beste, Margaret Atwood, Toni Morrison, Louise Gluck eta Chimamanda Ngozi Adichie autoreek aparteko konplexutasun literarioa duten nazioarteko lanak sortu dituzte. Ikerlanean aztertu ditugun obrak ere hala-koak dira. Historikoki ezarritako kanonak dira arazoa: ikuspegi

«Emakumeek sortutako pertsonaiek rol tradizionaletatik harago doazen asmoak dituzte»

PALOMA RODRIGUEZ MIÑAMBRES

EHUko irakaslea

Emakumezkoen euskarazko literaturari buruzko azterketa «sakona» argitaratu dute Jon Kortazarrek eta Paloma Rodriguez Miñambresak: 'Ahotsak Gorputuz. Euskal emakumezkoen literatura (1970-1985)'.

androzentrikoa balioesten dute, eta, denbora luzez, klase ertaineko gizonezko zurien esperientzia hartu dute unibertsaltzat. Gainerako ikuspegiak baztertu dituzte isilpean, eta hori aldatu beharra dago.

Ikerketaren arabera, 2011n ETak borroka armatua amaitzeak, oro har, beste trauma batzuei buruz idazteko aukerak handitu zizkien autoreei. Uste duzu prozesu politiko horrek eragina izan zuela emakumezkoen idazteko moduan?

Gure historiaren atal garrantzitsua da, eta trantsizio garaian jaiotako idazleetako asko euskal gatazkaren testuinguruan hazi dira. Idazten dituzten lanetako ezaugarrietako bat da; identitatea, lurraldetasuna, hizkuntza eta indarkeria izan daitezkeen bezala. Dena den, eta gatazka horrek euskal gizartean utzitako aztarna erabat baztertu gabe, XXI. mendeko euskal literaturan nabari da gatazka politikotik aldentuz doazela emakumezko idazleetako batzuk. Ikuspegi feministak eta benetan unibertsalak txertatu nahi dituzte, eta gizarte garaikidearen erronkak eta ertzak irudikatu eta ulertu, askotariko ahotsak landuz.

Amatasunari buruzko liburuak nagusitzen ari dira azkenaldian





Bereizketa hori azken urteotan
lausotu bada ere, emakumezko
idazleek gehiago arakatu dute

Uste dut idazle batek beti duela helburu literatura moldeak apurtzea, anbizioa horretarako pizgarri izan ohi delako. Autore batek badaki zer kontatu nahi duen eta nola. Ikerketako idazleei dagokienez, emakumezkoen ikuspegitik kontatu nahi izan

Berdintasunaren aldeko pauso gehiago ematea falta da, gizartean desoreka handia baitago. Beste esparru batzuetan ere hala gertatzen da. Gizonezko kirolarien lorpenekin konparatuz gero, askoz ere toki txikiagoa eta denbora gutxiago eskaintzen diete hedabideetan emakumezko kirolarien garaipenei eta txapelketei. Itxura fisikoari dagokionez, ordea, gehiago exijitzen zaie emakumeei.



«Idazle batek beti du helburu literatura moldeak apurtzea, anbizioa horretarako pizgarri izan ohi delako»

Beste hizkuntza batzuetarako itzulpenek kalitatezkoak eta sistematikoak izan behar dute, eta arlo akademikoan euskararen presentzia handitu beharra dago. Euskarazko literatura babesteko, gainera, ikerketa eremu egokituak egon beharko lirateke Espainiako eta Frantziako unibertsitateetan, eta literatura eragileen, kritikoen eta akademikoen prestakuntza hobetu beharko lukete. Argitalpen estrategiei begira, Euskal Herritik kanpoko hitzarmen gehiago sustatu beharko lirateke. ●



Nafarroako

Bertsolari Txapelketa

2025

www.bertsosarrerak.eus

Beñat Astiz Isasi
 Ekhiñe Zapiain Arlegi
 Idoia Granizo Uribarrena
 Jabi Lezaun Landa
 Julio Soto Ezkurdia
 Sarai Robles Vitas
 Gai-jartzailea: Iratxe Legarra Nuin






Lehenengo fasea

Urriak 11, larunbata

MUTILOA

17:30ean, Kultur Etxean



BIZKAIKO

BERTSOLARI

TXAPELKETA

2025

Araitx Katarain Mugarza,
 Asier Galarza Garai,
 Bittor Altube Sarrionandia,
 Enare Muniategi Etxabe,
 Irune Basagoiti Agirre eta
 Paule Ixiar Loizaga Legarra.
 Gai-jartzailea:
 Begoñe Olabarria Astobiza.

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

LEHENENGO FASEA

GALDAKAO

TORREZABAL KULTUR ETXEA. 17:00



URRIAK 12

domeka

Aitor Esteban Etxebarria,
 Ibai Amillategi Omaetxebarria,
 Janire Arrizabalaga Munduate,
 Koldo Muñiz Aldamiz-Etxebarria,
 Mikel Goiriena Larrazabal eta
 Peio Molinuevo Martin.
 Gai-jartzailea:
 Leire Garatzena Larrabe.

GETXO

MUXIKEBARRI ARRIGUNAGA ARETOA. 17:00



Auzolatzalea

Babesleak







Laguntzaile





← Yolanda Arrieta eta Pello Añorga, nork bere liburua eskuetan duela, irailaren 24an Donostian eginiko aurkezpenean. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Hizkia, ur sakonetan bidaide

- Idazketaz eta irakurketaz mintzo diren bi liburu plazaratu ditu 1545 argitaletxeak.
- Bata Yolanda Arrietaren 'Memoria berriak' entsegu grafikoa da, eta bestea, Pello Añorgak idatzi eta Aitziber Alonsok ilustratutako 'Liburua' albuma.

Garbiñe Ubeda

DONOSTIA— Liburua album ilustratutzat har liteke, oinarrian poema bat duen arren. Pello Añorga idazle eta ipuin kontalaria du egilea (Oiartzun, Gipuzkoa, 1956). Memoria berriak, berriaz, idazketa sortzailearen gaineko «entsegu grafiko bat» da, Yolanda Arrieta idazleak ondua (Etxebarria, Bizkaia, 1963). Bakoitzak bere moldean, biek irakurketaren eta idazketaren bidez egin litekeen bidaia dute mintzagaia. 1545 argitaletxeko arduradun Xabi eta Eneko Salaberriak eta sortzaileek berek aurkeztu dituzte jendarean, proiektu zabalago baten parte gisa.

Añorgak liburuaren mekanika izan du abiapuntu: «Edozein liburu hartuta, zabaldu egiten dugu, eta haren azal-kontrazalek hegaltxura hartzen dute; liburua hegaldatu daiteke». Ideia hori harturik, ahotsa nori eman behar ote zion erabaki behar izan zuen hasteko eta behin. Zalantza handirik ez zuen izan: «Liburuak hitz

egin behar du». Hortaz, liburua bera da bai protagonista bai eta narratzailea ere. Aitziber Alonsok egin ditu ilustrazioak.

Irakurlea, lagun kutuna

Liburuak bidaia liluragarriak ahalbidetzen ditu, baina lagun baten beharra dauka horretarako. Eta irakurlea du denetan lagun kutunena. Hark hegoak zabaldu behar dizkio, eta bertan dagoena irakurtzearekin batera «preso dauden hitzak» askatzen ditu. Irakurlea eta liburuak noranahi joan litezke elkarrekin, Añorgak azaldu duenez: «Espazioan eta denboran barrena, era guztiatako munduak ezagutzen dituzte, batzuk elur malutak bezain isilak. Eta joaten dira hondora, eta hor emozioekin egiten dute topo, eta gauza berriak aurkitzen dira: sentimenduak, sorpresa, misterioa...».

Bidaia bukatu ahala, baina, hegoak ixten zaizkio liburuari, eta zain gelditu behar du berriro, beste lagun bat noiz etorriko. Ipuinaren amaiera hori den

arren, bunbulo handi bat dago azken orrialdean. Añorga: «Nahi den bezala interpreta liteke bunbulo hori, jakina, baina 'zuk izan behar duzu nire irakurle, behar zaitut' esaten ari da, nolabait». Urte luzetako esperientzia baliatuz, Añorgak aipatu du haurrei «polita» egiten zaiela amaieran idazteko zerbait edukitzea. Bere buruaz ere hitz egin du: «Liburuei oso eskertua sentitzen naiz. Oso urrutira joan naiz haiei esker, eta, era berean, baita oso gertura ere. Ondoan eta hondoan ibili naiz. Lagun zoragarria izan da».

Arrietarena, «mugarri»

Xabi Salaberriak 1545 argitaletxearen sintonian kokatu du Yolanda Arrietaren ibilbidea eta, bereziki, haren saiakera grafikoa; «mugarri» gisa definitu du: «Arrietaren esperientziaren ondorioak jasotzen ditu, baina abiapuntu bat ere bada».

Izan ere, Arrietak urteak eta urteak daramatza idazketa ikastaroak gidatzen: «Idazten hasi nintzenean, tailerrak egiten ere hasi

nintzen, konturatu nintzelako liburuak motz gelditzen zitzaizela haurrei». Arrietaren aburuz, «heziketa literarioa» falta da: «Testugintza, irakurketa edota ulermena ez dira lantzen gauzak elkarri kontatzeko helburuz». Ez du galdu idaztearen funtzioak balioesteko aukerarik ere: «Aldarrikatu nahi dut idazketa ekintza soziala izan daitekeela, eta kendu nahi diot gaur egun duen lehia hori». Harentzat, idazketa tailerrak «bizitzan entrenatzeko guneak dira, idazleak fabrikatzeko tokiak baino gehiago».

Halaxe dio liburuaren atzealdeak: «Izaki bizidunon oroitzapenak berreskuratzea irudimenari bidea irekitzen dion erresistentzia ekintza bat da. Idaztea, berriaz, erresistentzia ekintza hori gorpuztea». Bada, ekintza horiei heldu die egileak, helburu argi batez: «Ni-tik gu-rako proiektu gisa proposatu, memoria berriak eratzeko».

Bi zati nabarmen ditu *Memoria berriak* entseguak, Xabi Salaberriaren hitzetan: «Bat praktikoa goa da, eta bestea teorikoagoa». Baina, batez ere, bertan batu dituen elementuek ematen dute arreta: besteak beste, loturek, mapek, iturriek, azalpenek eta argibideek. Horien guztien funtzioaz irmo hitz egin du entseguaren egileak: «Idazteko lagungarri izan daitezkeelako agertu ditut, baina baita prozesuak daudela esateko ere». Kexu agertu da prozesu horiei jaramonik egin gabe dena «di-da» egin nahi delako: «Baratzea behar dugu sortzeko; hor zaindu egiten dugu landatutakoa, eta gaur dena egin nahi da baratzerik gabe, sormenaren izenean gainera». Gaur egun bere leloa zein den azaldu du: «Bizitza zaindu, gezurrak harrapatu eta inertziari izkin egin».

Arrietak Eneko Salaberria argitaldari eta diseinatzailea izan du bidelaguna entseguan. Sarako Idazleen Biltzarrean elkar ezagutu zutenetik, buruz buru eta orriz orri aritu dira elkarrekin, Arrietaren paper, txosten eta zirriborroak «forma ederrean» josi arte. Eneko Salaberria: «Urtebeteko prozesua izan da, baina oso dinamikoa den zerbait lortu dugu, ordenarik gabekoa baina ordenatua». ●



«Oso urrutira joan naiz liburuei esker, eta, era berean, baita oso gertura ere. Lagun zoragarria izan da»

PELLO AÑORGA

Idazlea

«Aldarrikatu nahi dut idazketa ekintza soziala izan daitekeela, eta gaur egun duen lehia hori kendu nahi diot»

YOLANDA ARRIETA

Idazlea



Isaak Diezen *Emakume ijitoa* obra Arabako Arte Ederren Museoan. RAUL BOGAJO / FOKU

«Itzalpean» izan den artista bat, argitara

- Isaak Diez arabarraren hiru pintura ikusgai jarri dituzte Arabako Arte Ederren Museoan.
- Ia ezezaguna den sortzaile horren ibilbide artistikoa eta militantzia politikoa ezagutzeko parada ematen du bildumak.



Txistu-txiki margolana. RAUL BOGAJO / FOKU

Edurne Begiristain

GASTEIZ— Isaak Diez sortzailearen (Gasteiz 1891-Venezuela 1962) ekoizpen artistikotik jatorrizko pieza gutxi geratzen dira gaur egun, eta haren margolan gutxi daude bilduma publikoetan. Artistari buruzko bibliografia ere urria da, eta dagoen informazio asko, gainera, garai hartako material grafikoaren bidez ezagutzen da. Adituen hitzetan, Ignacio Diaz Olano, Obdulio Lopez Uralde eta Adrian Aldekoa garai hartako artisten «itzalpean» geratu zen Diez, «bigarren mailan», baina artista «handia» izan zen, askotariko diziplinak landu zituen.

Arabako Arte Ederren Museoak artistaren hiru margolanekin osatu du *Isaak Diez (1891-1962). Artista arabar baten bizitza eta obra* erakusketa, baina hiru pintura horiek baino gehiago da bilduma. Diezen bizitzaren eta ibilbide artistikoaren inguruko ikuspegi zabal ematen du erakusketak, baina, batez ere, «itzalpetik argitara» ekartzen ditu Arabako historian «urardotuta» geratu den artista

horren lana, militantzia politikoa eta bizitza. 2026ko apirlaren 12ra arte zabalik egongo da.

Erakusketara doanak artista-aren aurpegia ikusiko du beste ezer baino lehen. «Oso zaila da Isaak Diezen irudi bat topatzea, baina garrantzitsua iruditzen zitzaigun haren aurpegia erakustea», azaldu du Ana Arregi Barandiaran artearen historialariak. Artistaren irudiarekin batera, haren bizitzaren pasarterik garrantzitsuenak irakur daitezke zenbait testutan.

Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan ikasi zuen, eta bertako irakaslea izan zen. Margolaria, eskultorea, gidolaria eta aktorea izan zen, besteak beste. Zinemagintzan egindako lanari dagokionez, *Josetxo* filmaren zuzendari eta aktorea izan zen —Arabako filmatu zen lehen filma da, eta gaur egun desagertuta dago—. EAJn aktiboki militatu zuen, eta 1936ko gerraren ondoren erbesteratu egin zen, lehenik Frantziara eta gero Venezuelara.

Sormena eta militantzia

Artistak zenbait garaitan pintatutako hiru margolan ikus daitezke erakusketan. 1914koa da haietako bat: *Emakume ijitoa*. Diezen pintura goiztiarra da, 23 urterekin margotutakoa, bere ibilbidearen hasieran. Margolariak egindako proba bat izan zen, artean erreperitorio eta molde propioaren bila zebilela. Emakume ijitoak, *majak* eta *manolak* ohikoak ziren

XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen lehen hereneko artista askoren lanetan; museoaren bilduman bertan, adibidez, badira zenbait egilerenak: esaterako, Daniel Zuloaga, Juan Etxebarria eta Gustavo Maezturenak. Hain justu ere, Maezturen *Emakume dantzaria* margolanak eta Diezen *Emakume ijitoa*-k hainbat ezaugarri komun dituzte: emakumearen irudi eskultorikoak dira biak, eta folklore eta konsumbrismoaren sinbologia oso presente dago.

1934. urtea garrantzitsua izan zen Diezen bizitzan. Alde batetik, gogotik parte hartu zuen EAJren Aberri Eguna antolatzen —politikoki zein artistikoki—, eta, bestetik, jaioterria atzean utzi eta Errenteriara (Gipuzkoa) joan zen bizitzera. Gainera, urte horretan Gasteizen ospatutako Aberri Egunerako egitaraua eta kartela egin zituen. Afixa horretan, gizon bat eta emakume bat kateaturik ageri dira, zazpi probintzien armariari —Zazpiak Bat deritzona— eusten daudela.

Urte berekoak dira, halaber, artistaren margolan ugari. Gasteizko Circulo Vitoriano elkar-tearen aretoetan egindako erakusketa batean haren lan batzuk erakutsi zituzten —*Frutak, Nire ama, Loreak, Erromeria, Lautada (Araba)*... — Adrian Aldekoa eta Aurelio Vera-Fajardoren pinturakin batera. Arabako Arte Ederren Museoan ikusgai dagoen *Gasteizko ikuspegi* obra ere garai berekoa da. Zehazki noiz pintatu zuen ez dago argi, baina ziurtzat jotzen dute 1936ko gerraren aurrekoa dela.

Urte hartan bertan, 1934an, Errenteriara joan zen bizitzera, Arte eta Lanbide Eskolan eszedentzia hartuta. Ez dago argi zer dela-eta joan zen hara, baina han marrazketa eskolak ematen jarraitu zuen. Hala ere, Diezek jaioterriarekin lotuta segitu zuen, Arabako hainbat pintura lehiaketatan esku hartuz. 1936. urtean, adibidez, Arabako Artisten Pinturen Erakusketan parte hartu zuen, eta hiru margolan eraman zituen hara: *Nire estudiantik, Gipuzkoako bazterra* eta *Txistu-txiki*.

Hain zuzen ere, *Txistu-txiki* da museoak ikusgai jarri duen hiru-garren lana. 1936an pintatu zuen, eta Narkisi eskainita dago, bere semeetako bati, alegia. Txapela eta kaikua jantzita ageri da txistulari gaztea, txistua eta danbolina jotzen. Bigarren plano batean, nabarmen lausoago ageri dira emakume batzuk, frutaz beteriko saskiak buruan daramatzatela. Landa eremuaren irudi idilikoa iradokitzen du margolanak. ●



Musikagileak zirkuitua antolatzen duten eragileetako batzuk, atzo, Musikenen. MUSIKAGILEAK ELKARTEA

Sortzaile berrien 30 estreinaldi izango dira Musikagileak zikloan

→ Hamaseigarren aldia izango du egitasmoak, eta datorren urteko martxora bitarte iraungo du.

→ Donostian, Bilbon eta Gasteizen egingo dituzte kontzertuak eta gainerako jarduerak.

Amaia Jimenez Larrea

DONOSTIA— Indartsu dago musika garaikidea, Musikagileak elkartearen kide Jon Esnaolaren ustez. Musikeneko ikaslea ere bada, eta konposizioaren arloan batez ere musika garaikideak duen osasunaren testigu da: «Badago harrobia. Musikeneko irakasleek asko lantzen duten zerbait da». Irakasleek gain, bada harrobi horren beste errudunik ere: Musikagileak zikloa. Musikagileak elkarteak antolatzen duen musika garaikidearen zirkuitua da, eta, besteak beste, konpositore berrien lanei lekua egiten die urtero. Hamaseigarren aldia izango da aurtengoa. Irailean, egitarauaren atariko moduan, Bilboko Orkestra Sinfonikoaren kontzertu bat hartu zuen zikloak, baina larunbatetik aurrera egingo dituzte gainerako jarduerak, datorren urteko martxora arte. Konpositore berrien 30 estreinaldi absolutu programatu dituzte; erdiak baino gehiago, euskal musikariak.

Hamahiru kontzertu antolatu dituzte aurtan, eta, euskal taldeak ez ezik, nazioartekoak ere ariko dira. Euskal Herrikoen artean daude, besteak beste, Suharrak abesbatza, Ensemble Sinkro, eta Roberto Casadok eta Joseba To-

rrek osatutako bikotea. Galiziako Vertixe Sonora, Valentziako Sauti Duo eta Kataluniako 4Sonora taldeek ere hartuko dute parte zikloan. Nazioartean sona handia duten bi musikari —Karin Hellqvist biolin jotzailea eta Don Paul-Kahl saxofonista— eta talde bat —Ensemble PTYX— ere badira programazioan.

Donostian, Bilbon eta Gasteizen izango dira kontzertuak. Donostian, Musikenen, San Telmo museoan eta Viktoria Eugenia antzokiko Club aretoan egingo dituzte; Bilbon, Guggenheim museoan TopArte gunean eta Campos Eliseos antzokian; eta Gasteizen, Europa jauregian, Jesus Guridi musika kontserbatorioan eta Izaskun Arrue kulturgunean —lehenengoz egingo dituzte bertan zikloko kontzertuak—.

Formakuntzarako aukera

Musika emanaldiez gain, bestelako jarduerak batzuk ere prestatu dituzte antolatzaileek. Horieta bat izango da, esaterako, Jose Manuel Lopez Lopezek emango duen konposizio ikastaroa; hamabigarrenez egingo dute, Musikenen bertan. «Konposizioa ikasleek gehien espero dituzten ekitaldietako bat da, eta, gainera, publiko orokorrarentzat ere irekita dago»,

azaldu du Miren Iñarga Musikeneko zuzendariak.

Bi eskola magistral ere hartuko ditu Musikenek. Azaroaren 7an izango da lehena, eta Don Paul-Kahlek emango du. Saxofoiaren teknika garaikideez mintzatuko da, bai eta teknika horiek gaur egungo musika panoraman izan dezaketenez erabilere ere. Zentroko ikasleentzat ez ezik, interesa duen edonorentzat ere irekita egongo da. 4Sonora taldeak izango du bigarren eskola gidatzeko ardura. Besteak beste, taldean lan egiteko dinamikez arituko dira. Heldu den urteko martxoaren 16an izango da jarduerak hori.

Halaber, abenduaren 13an egingo dute Musi-Meet topaketa. Musikagileak elkarteak, San Telmo museoan eta Musika Bulegoak elkarlanean antolatu dute, musikaren sektoreko profesionali begira. Iker Durana Musika Bulegoa kudeatzaileak azaldu du «hausnarketarako gune bat» sortu nahi dutela. Egun osoko egitaraua hartuko du museoak, mahai inguruak eta hitzaldiak tarteko. Topaketa ixteko, Francisco Dominguez konpositoreak jarduerak horretarako berariaz sortutako pieza bat estreinatuko du: *Memoria Sonans, harriak dardaraz*. ●

Dana emon behar jako

Agus Perez

Bi urtean behin aurkezten du aspalditik Busterri Herri Antzerkiak bere estreinaldi berria bai Plentzian bai Gortzen, kasu bietan herriko Eleiz plazan. Euria zegoen iragarrita, eta euritako prest agertu gara Ortziaren aldarre txarrari aurre eginez. Herri-ekinaldia merezi zuen eta!

Adorea behar da, gero, eguerditik aurrera zebilen euri langarraren pean atrez-zoa, soinuak, harmailak eta Lirain abesbatzarako behar zen guztia atontzeko. Animo handia, gero, antzezle eta figurante bakoitzak bere traje eta soineko dotoreak jantzi eta bertan agertzeko. Fede handia, gero, talde lanaren indarrean, zuztarren alde egin beharreko zereginetan, emandako hitzean azken finean.

Eta ordua ailegatu eta euri langarrak berdin jarraitzen zuen, mundu guztia euriatatik axolagabe eta andere bat, fede handiz hura ere, jesarlekuak sikatu guran zebilela. Baina plaza bete da, eta Matxalen de Pedro zuzendariak eskatu digu hamar minutuz itxaroteko ea behingoz atertzen zuen, eta mirariaren ostean etorri da herri-antzerkiaren miraria, berdin-berdin gauzatuko zena zaparrada trumoisu baten azpian.

Ikusten denez, lerroak eman dizkiot emanaldiaren inguruko egoerari, baina nik uste dut horretan datzala herriaren indarra: geurea dena egingo dugu, otsoen kontra, lukurreriaren kontra, sikatearen kontra, hezetasunaren kontra kasu honetan. Aukera bakarra daukagu, arma eskasak ditugu eta munizio gutxi, baina hemen jarraituko dugu askoren gustukoa ez izan arren, edo horrexegatik beragatik, askoren gustukoa ez izateagatik.

Honezkero, gutxienezkoa da *Isuskitza* herri-antzezlanak izen bereko lekuaren historia ganoraz eta esanguraz gogoratu dezagun bide batez *Isuskitza* delako inguruari *El abanico de Plencia* izen patetikoa

KRITIKA Antzerkia

'Isuskitza'

Konpainia: Busterri Herri Antzerkia. **Egilea:** Jokin de Pedro. **Zuzendari-tza:** Matxalen de Pedro. **Zuzendari laguntzailea:** Arantza Lopez Mendezona. **Abesbatza:** Lirain. **Abesbatzaren zuzendaria:** Loli Igartua. **Jantziak:** Ana Larrea, Amaia Garagorri, Cristina Urrestarazu. **Eszenografia:** Manu Moreno, Jaio de la Puerta, Jesus Serrano. **Antzezleak:** Plentziako eta Gortzenko herriarrak. **Lekua:** Plentziako Eleiz plaza. **Eguna:** Urriaren 4a.

ezarri ziotela Bilboko diruzale handiek Butroe ibaiaren meandro ederrean ezarri zuten urbanizazio estralurtarrari. Gutxienezkoa da, beraz, jantzien dotorezia —batez ere enkanterako erosleetan azkena joan denarena—, gutxienezkoa historiaren azalpen argigarria, gutxienezkoa abesbatzaren fintasuna eta antzezle-taldearen maila ukaezina, gutxienezkoa gaurko irakasle eta ikasleen arteko eszena argigarria. Gutxienezkoa, azkenik, dialogo askoren gatz eta piperra. «Dana emon behar jako maita dugun horri» —Lauaxeta gogoan— eta *Isuskitza* honetan dena eman zaio herri-antzerkiari, herriaren bizkaiera landuari eta historiaren interpretazio eredu argiari. Zapatuan —hilaren 11n— bigarren antzezpena izango da Gortzen. Emanaldi on! ●

‘Mario’

Zuzendaria: Guillem Miro. **Gidoilariak:** Guillem Miro, Ana Ines Fernandez. **Aktoreak:** Gloria March, Jaume Madaula, Miquel Gelabert, Alba Pujol. **Argazkia:** Juan Gonzalez Guerrero, Marc Gomez del Moral. **Generoa:** komedia. **Urtea:** 2025. **Iraupena:** 90 min. **Herrialdea:** Katalunia.

38 urteko Antoniak ezusteko festa bat antolatu dio Mariori, bikotekideari. Oraindik ez ditu ezagutzen haren lagunak, eta, berak ez dakien arrazoiren batengatik, Mariok ez ditu urtebetetzeak ospatzen. Mariok kontatutako istorio batzuk kontraesanean daudela ohartzen hasiko dira. Nor da benetan Mario?

‘Karmele’

Zuzendari eta gidoilaria: Asier Altuna. **Eleberriarren idazlea:** Kirmen Uribe. **Aktoreak:** Jone Laspiur, Eneko Sagardoi, Nagore Aranburu, Javier Barandiaran. **Argazkia:** Javier Agirre Erauso. **Generoa:** drama. **Urtea:** 2025. **Iraupena:** 114 min. **Herrialdea:** Euskal Herria.

Euskal Herria, 1937. urtea. Karmele eta haren familia Frantzian erbesteratuko dira gerraren ondorioz etxetik kanporatuak izan ondoren. Han, erbesteko euskal enbaxada kulturala Karmelerekin jarriko da harremanetan, eta musikaren eta dantzaren bidez gerraren aurka borrokatzeko proposatuko dio. Txomin ezagutuko du han.




Jone Laspiur Karmele Urrestiren rolean, *Karmele* filmean.

‘A House of Dynamite’

Zuzendaria: Kathryn Bigelow. **Gidoilaria:** Noah Oppenheim. **Aktoreak:** Idris Elba, Rebecca Ferguson, Gabriel Basso, Jared Harris. **Argazkia:** Barry Ackroyd. **Urtea:** 2025. **Iraupena:** 112 min. **Herrialdea:** Ameriketako Estatu Batuak.

Jatorria identifikatu gabeko misil bat Ameriketako Estatu Batuen aurka jaurtitzen dutenean, Etxe Zuriak erlojupeko lasterketa bat hasiko du, erantzulea nor den eta nola jokatu behar den zehazteko.



Atzean
utzitako horiek

CLAUDE LE PAPE ETA HUBERT CHARUEL
GIDOILARIEN FILMA DA ‘MÉTÉORS’: FRANTZIAKO
TOKI AHAZTU BATEAN BIZITZA HOBEAGO BAT
AMETS DUTEN LAGUN BATZUEN KONTAKIZUNA.

‘MÉTÉORS’

Uxue Arzelus Lasa

Gutxi gorabehera 30 urte ditu Mikak, Burger Kingen egiten du lan, eta gauak bere lagun Danielekin igarotzen ditu, alkohol eta marihua-na artean, bigarrenari bururatzen zaizkion erokeriak eginez. Danielek gauzak lapurtzen ditu ondoren haiek saltzeko, eta zirrosia diagnostikatu diote. Frantziako Marne Garaia eskualdeko herri txiki batean bizi dira Mika eta Daniel lagunak, eta, handik alde egin nahi badute ere, ez da aukera erraza haiek bezalako gazte batzuentzat.

Gau batean lehiaketa batean saritu duten katu bat lapurtu, eta auto is-tripu bat izango dute. Epaitu egingo

Zuzendaria: Hubert Charuel. **Gidoilariak:** Hubert Charuel, Claude Le Pape. **Aktoreak:** Paul Kircher, Idir Azougli, Salif Cisse. **Argazkia:** Jacques Girault. **Musika:** Maxine Denis. **Generoa:** drama. **Urtea:** 2025. **Iraupena:** 111 min. **Herrialdea:** Frantzia. **Estreinaldia:** urriaren 10ean estreinatuko da Iparraldean.

dituzte, eta, alkoholaren eraginpean zeudenez, kartzela zigorra saiheste-ko aukera bat emango diete: sei hilabete dituzte lan kontratu bat eta froga toxikologiko garbiak aurkezte-ko. Haurtzaroko lagun Tonyrengana joko dute orduan bi mutilek. Tonyk eraikuntza enpresa bat du, eta hon-dakin nuklearrak kudeatzeko obra batean eskainiko die lana.

Unibertso zarpaildu bat
Hubert Charuel eta Claude Le Pape gidoilariak aurrez 2017an egin zuten lan elkarrekin, *Petit paysan* film lu-zean: urte hartan estreinatu zuten, eta *opera prima* onenaren Cesar saria irabazi zuen. Charuelen lehen lana ere izan zen hura zuzendari gisa.

Ordutik beste film bat egiteko ideia zerabilten buruan, eta film laburre-tan landu zuten unibertsoa itzultzea erabaki zuten.

Saint-Dizier hiriko unibertsoa da hori, Hubert Charuel jaio eta hazi zen hirikoa. Jende gehienak alde egin nahi du inguru horretatik, eta gidoilari bikoteak filmetako prota-agonista izan ohi ez diren pertsonaia galdu horietaz hitz egiten jarraitu nahi zuen. Marne Garaian kokatzen da, beraz, kontakizuna, ekonomikoki hondakin nuklearren menpeko den eskualdean. Bizirik irauteko intoxi-katu egiten den eremu bat da, eta zinemagile frantsesek haien perso-naiekiko paralelismoarekin jokatu nahi izan zuten. *Météors* Cannesko

jaialdiko Un Certain Regard sailean aurkeztu zuten.

Laguntasunari buruzko filma da *Météors*. Mikak eta Danielek beste bizitza batekin amesten dute, dau-den lekutik urrun. Munduak ahaztu duen herri batean bizi dira, ordea, hondakinen zaborrontzi bilakatu den toki batean, eta etorkizunak ez dirudi oso argia.

Adikzioaren arazoa gehitzen dio Charuelek ekuazioari, bizirik irau-teko intoxikatzen den herri batean bizirik irauteko intoxikatzen den gazte bati erreparatuz, eta horrek laguntasunean duen eragina azale-ratuz. Iluntasun horretan guztian, baina, irtenbiderik badela argituko du *Météors*-ek. ●

Komunitatea⁺

BERRIA ekonomikoki babesten duen komunitatearentzako gunea

BERRIA BERRI

Literatura laguntasunez

'Hetero' eta 'Pleibak' liburuen ibilbidea aztertu zituzten irailaren 17an Uxue Alberdik eta Miren Amurizak, BERRIAk antolatutako solasaldi batean. Adin guztietako jendea bildu zen solasaldia entzuteko, eta, aurkezpenarena baino gehiago, lagunarteko topaketa baten itxura hartu zuen hasieratik.



Elkar ere batu da 'Eskutik eskura BERRIA' kanpainara

Euskalgintza eta euskal kultura sustatzeko konpromisoak batzen ditu, besteak beste, Elkar eta BERRIA; eta horrexegatik hartu dute indarrak batzeko erabakia. Izan ere, beste 3.000 BERRIA lagun lortzeko helburua du BERRIAk urtea amaitzerako, kide gehiago erakartzeak modua emango baitu euskarazko egunkari nazionalak etorkizuna izan dezan. Eta xede hori lortzeko bidean funtsezko bidelagun izango du Elkar. Horretaz gain, **bi eragileek adostu duten hitzarmena dela eta, Elkarren komunitateko kideek eskaintza berezia baliatzeko aukera izango dute BERRIAri ekarpena egitean.**



BERRIAk elkarlanerako ituna sinatu du Kilometroak eta Nafarroa Oinez-ekin

BERRIAk eta Gipuzkoako eta Nafarroako ikastolen jaiek elkarlanerako akordioa sinatu dute, hezkuntza komunitateak eta euskalgintzak eskuz esku lan egiteak duen garrantzia kontuan hartuta. Horiek horrela, BERRIA Elgoibarren izan da joan den urriaren 5ean: zozketa «handi bat» egiten, eta hainbat opari banatzen. Nafarroako ikastolen aldeko jaia berriz, Atarrabian izango da, urriaren 19an, Paz de Ziganda ikastolak antolatuta. Asteburu osoko egitaraua ondu dute, eta bertan izango da BERRIA ere.



Bizitza bat dohaintzan

Testamentua egitearen helburua zera izan ohi da, modu soil eta bizkor batean tramiteak erraztea familiari eta ingurukoei. **Badira, baina, ondasunak senideen esku uzten ez dituztenak, edo zati bat behintzat familiatik kanpo dohaintzan ematen dutenak.** Ondasun puxka horiek elkarrean, gobernuz kanpoko erakunde edo bertzelako proiektu batzuen esku uzten dituzte. Hori ez da testamentu soila, legatu solidarioa baizik. Batzuentzat kontzeptu ezezaguna izan daitekeen arren, pixkanaka hasia da gizarteratzen.

BERRIA egunkariak, kasurako, bidea ireki dio, eta komunitateari jakinarazi dio hil ondoren ere badagoela egunkaria sostengatzen jarraitzeko aukera.



DENDA

Joseba Sarrionandiaren zinema paperak

Edizioa: Josu Martinez

20€

+ 17€



EKITALDIAK

Mendiaren ingeradari elkarrekin forma emateko mahai ingurua

Urriak 30 • 19:00 • Kultur etxea, TOLOSA

Hizlariak:



Malen Osa



Mattin Iñiguez



Kontxi Franco



Iñaki Antigüedad

Gezurrak eta zalantzak



EKOGRAFIAK
Gaizka Izagirre

Telesail batekin kati-gatzeko gogoz bazabiltza, eta *The Affair* edota *Big Little Lies*-en modukoak maite badituzu, *The Girlfriend*-ekin gozamenerako tartea topatuko duzu.

Londresen girotua da. Danielek, familia aberats bateko gazteak, harreman sutsua hasi du Cherryrekin (Olivia Cooke); Cherry jatorri xumeko emakumea da. Danielen amak, Laurak (Robin Wright), ezagutzen duenean, bien artean tentsioa sortuko da berehala, eta harremana bataila psikologiko bihurtuko da. Laura ziur dago Cherryk asmo ilunak dituela eta

Danielekin duen harremana ez dela dirudiena. Cherryk, berriz, Laura ama kontrolatzaile eta obsesibo gisa ikusten du, semea bere eraginpean mantentzeko edozer egiteko prest dagoena.

Istorioak aurrera egin ahala, egia eta paranoiaren arteko mugak gero eta lausoagoak dira. Hasieran drama erromantikoa soil baten itxura duena jeloskortasunak, gezurrak eta mesfidantzak kutsatutako thriller psikologiko bihurtzen da.

Egitura narratiboa ehunka aldiz ikusia badugu ere, funtzionatzen du: pasarte berberak Cherryren eta Lauraren ikuspegietatik azaltzen dira, eta horrek

ikuslea behartzen du zalantzan jartzera benetan zer gertatzen ari den eta nor ari den engainatzen nor. Bataren ikuspuntuan, bestea beti da *munstroa*, tranpatia eta gezurtia. Eta alderantziz. Joko horri esker, ikusleak ez du inoiz oso argi pantailan ikusten duen horretatik zer den egia eta zer ez.

Istoria azaltzeko modua alde batera utziz, bi pertsonaiak dira telesailaren alderdirik sendoenak, haien sorbaldetan bertan baita gidoi osoa. Wrightek ñabarduraz betetako pertsonaia landu du: babesa, jelsia, obsesioa eta zaurgarritasuna ditu ezaugarri. Cookek, aldiz, Cherry

antzezten du, xarma, anbigutasuna eta karga emozionala nahasten dituen. Biei esker funtzionatzen du telesailak. Inguruan dauden gainerako pertsonaiak, berriz, narrazioa eta protagonisten gatazkak aurrera eramateko tresna hutsak baino ez dira: ia apaingarri moduan daude jarrita.

Telesailak ikaragarri harritatzen du, baina une batzuetan gehiegikerietan erortzen da, eta sinesgarritasuna galtzen du. Gidoia nahiko tranpatia eta ahula da, eta oso ongi josiak ez dauden hari solte batzuk uzten ditu. Hala ere, entretenimendu gisa, primerakoa da *The Girlfriend*. ●

‘Elhuyar Zientzia’ euskarazko hedabide digitala abian da, 25.000 edukirekin

- Euskal ikertzaileen iritziak plazaratuko dituzte. Herritarrekin inkestak ere egingo dituzte.
- Trantsizio ekosoziala, osasun mentala, biodibertsitatearen galera eta berdintasuna izango dituzte hizpide.



Aitziber Agirre Elhuyarreko Kultura Zientifikoko arduraduna, atzo, Usurbilen. ANDONI CANELLADA / FOKU

Urtzi Urkizu

USURBIL— Zientziaren arloko albistegiak eta bitxikeriak bideo laburretan; ingurumenari, feminismoari eta zientziari buruzko podcastak; elkarrizketak; euskal ikertzaileen iritziak; basabiziaren argazkiak; emakume zientzialarien efemerideak, eta askotariko beste eduki batzuk biltzen ditu *Elhuyar Zientzia* hedabide digital berriak. Usurbilen (Gipuzkoa) aurkeztu zuten atzo Elhuyarreko hainbat ordezkariak.

Garazi Andonegi Beristain Elhuyarreko Zientzia Unitateko koordinatzaileak nabarmendu zuen zientziaren eta teknologiaren berri modu «zehatz, zorrotz, gertuko eta euskaldunean» ematea izan dela Elhuyarren egitekoa. «Eta zubiak eraikitzea zientzia sistemaren eta gizartearen artean». Horretara egokitzen urte asko daramatza Elhuyarrek. «Egokitzeko

behar horren aurrean, *Zientzia.eus* eta *Aldizkaria.elhuyar.eus* webguneak bateratu eta uztartu ditugu komunikazio proiektu berri batean». Euskaraz sortua da *Elhuyar Zientzia* hedabide berria. «Aurrera begira urrats bat egin dugu. Bi aldetatik aipa daiteke urratsa: batetik, hedabidearen oinarri teknologikoa sendotu dugu; analitiken jarraipenerako panelak asko hobetu ditugu, eta diseinua berritu dugu. Kontsumitzaileei begira, bestalde, kontsumo molde eta formatu berrietara gehiago egokitzen diren produktuak eta edukiak erantsi ditugu».

Gaitegiari dagokionez, Andonegi nabarmendu zuen gizartearen kezka sortzen duten gaietan jarri dutela fokua: trantsizio ekosoziala, osasun mentala, biodibertsitatearen galera eta berdintasuna, besteak beste. «Bestetik, gizartera gehiago gerturatzeko asmoz, gaurkotasunera gehiago

lotzeko, eta begirada kritiko eta eraikitzailea gizarteari eskaintzeko helburuz, kanpoko ahotsei eta adituei toki gehiago emango diegu hedabide digital berrian». Hain zuzen ere, horregatik sortu dituzte iritziaren atala eta inkestena. Elhuyarreko Zientzia Unitateko koordinatzaileak azaldu zuenez, 25.000 eduki baino gehiago daude hedabide digitalean, formatu anitzetan.

Asteko buletin bat ere bai

Diseinu dinamikoa eta funtzionala du euskarazko hedabide digital berriak. Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute Elhuyarreko Kultura Zientifikoko arduradunak nabarmendu zuen hedabideak «ahots askoren topaleku» izan nahi duela. «Iritzia emateko espazioa sortu dugu. Gai zientifiko, teknologiko eta sozialek gizartearen piztu dituzten kezkak, ilusioak edo haserreak ikusi nahi ditugu, eta

horretarako herritarren iritziak jasoko ditugu». Bestetik, Agirrek uste du gehiago inplikatzeko eta auzi sozialei irtenbideak ematen laguntzeko eskatzen ari zaiela gizartea ikertzaileei. «Eta horixe bera eskatu diegu zientzialariei. Maila handiko zientzialari eta teknologoei eskatu diegu gaien inguruko iritzia emateko».

Hedabide digital berriak asteko buletin bat ere onduko du, zientziaren eta teknologiaren arloko unean uneko gai nagusien asteroko laburpen bat posta elektronikoan jaso nahi duten herritarrentzat.

Gainera, biodibertsitateak presentzia nabarmena izango du atari digitalean. Inhar Lopezek bidaia luzeetan ikusitako espezieen argazkiak eramango ditu *Elhuyar Zientzia*-ra. «Asteko argazkia» deitu diogu, baina argazki bakoitzaren atzean ekosistema eta bizidun horren xehetasun oso zainduak

daude». Emakumeek zientzian egindako ekarpenak, bestalde, efemerideen atal berezi batean nabarmenduko dituzte.

Itziar Cortes Etxabe Elhuyarreko Hizkuntza eta Teknologia Unitateko koordinatzaileak azaldu zuenez, hainbat teknologia txertatu dituzte hedabide digitalean; adimen artifiziala, esaterako. «Webgunean bertan, Elia itzultzaile automatikoa integratu dugu». Modu horretan, edukiak beste hizkuntza batzuetan ere irakur daitezke, automatikoki itzulita. Eta, bestalde, *Entzun* botoia jarri dute, eta, modu horretan, idatzitako testuak audio gisa entzun daitezke. «ETBko *Teknopoli*s saioko bideo batzuetan teknologia erabiltzen ari gara. Euskaraz elkarrizketatu ez ditugun ahotsak euskaraz entzun ahal izateko teknologia erabiltzen hasi gara, ahots horien imitazioaren bidez». ●

DENBORA-PASAK

HITZ GEZIDUNAK

Ikasle militar	↓	Txori mota	↓	Guraso arra	↓	Bizkaiko ibaia	↓	Euskal fonema	↓	Hitz, berba	↓	Zuhaitz mota	↓	Hesiz itxi	↓
Eguerdian		Jesu Kristo		Bolaren formako		Bizkor		Infernu	→	Zikloi, tifo		Alfabetoko letra		Zertarako	
→		↓		↓		↓		Bularrak		↓		↓		↓	
Irizten diot	→							↓	Frantziako hiria	→					
Nahiak, nahikariak									Betirako, betiko						
→							Dimako auzoa	→	↓		Zerutiko ur	→			
							Etekin, irabazi				Trukean, ordainetan				
Goiko alde	→				Hegazkina	→	↓				↓		Kontso. bustia	→	
Suari dariona					Lapikoak								Jaspe		
→			Bernako herritar	→	↓							Nauka	→	↓	
			Emakume izena									Arrebaren alabak			
Musika nota	Arlo	→	↓			Txinpartak	→					↓			Aranondo-en fruitua
	AEBetako estatu bat					Zipriztina									
→	↓	Punta-paxak	→			↓				Aldamena	→				↓
		Hitzez adierazi								Zelaia, toki laua					
Gipuzkoan, dun	→	↓		Metal mota	→					↓			Kontso-nantea	→	
Abere basati				Euskal aurrizkia									Zangoaren muturrean		
→				↓				Larruazaleko erredura	→				↓		
								Bizkaieraz, bike							
Hondartsu	→							↓	Deierriko kontzejua	→					
Erregea									Potasioa						
→							Egur-ikatzagiten duen pertsona	→	↓						

HITZ GURUTZATUAK

Ezker-eskuin. 1. Ipurdi alde. 2. Oso ile leuneko ugaztun txiki intsektujalea, begiak oso txikiak dituen, bost behatz azazkaldunez osaturiko eskuez lurpean zulo bideak egiten dituen. Sufrearen ikur kimikoa. 3. Lutezioaren ikur kimikoa. Lehorreko eremuak. 4. Edo. Landare arantzatsu. 5. Ehun bider hamar. Batez ere ura garraiatzeko zurezko ontzi. 6. Gizonezko senidea. Emakume izena. 7. Luzetara edo zeharretara biribildua den sabaia, ganga. Bromoaren ikur kimikoa. 8. Lehenengo letra. Aranoko herritar. 9. Agiri.

Goitik behera. 1. Pakistango hiriburua. 2. Gizon izena. Bokale biribila. 3. Utikan!, ospa! Emeak gurasoekiko. 4. Antzerki lan edo film batean, antzezle batek jokatzeko duen zati. Begiaz egiten den keinu. 5. Karta joko. Bibliaren arabera, lehenengo gizakiaren izena. 6. Oso, erabat. Emakume izena. 7. Gizakiaren eta zenbait animalien gorputza biltzen duen azala. Zintzo. 8. Bostehun, zenbaki erromatarren arabera. Bezainbat, beste. 9. Eskua estaltzen duen jantzi.

SUDOKU ZAILA

5		3	9					4
		8						9
1			4		7			
				7			9	6
		4		6		5		
8	5			9				
			8		1			5
9						2		
3					9	7		1

A	L	B	A	N	I	A		L	A	B
T	A	L	K	A	K		R	I	G	A
E	R	O	T	U		S	O	K	I	L
	U	K	O		G	E	L	A	R	I
Z		A	R	D	I	T		K	I	O
I	N		E	U	R	A	K		A	A
A	I	O		T	O	K	I	A		K
B	O	R	T	X	A		L	O	T	
O	N	D	U	A		F	O	R	A	L
G	A	U	A		L	E	A	T	X	E
A	N	A		B	I	Z	K	A	T	A

Z	A	T	A	I	O	F	I	T	U
I	T	S	A	S	I	K	A	R	A
K	E	U	H	F	Z	H	A	L	A
L	R	N	D	O	I	K	U	N	I
O	I	A	L	I	A	T	S	U	Z
I	D	M	E	N	H	A	T	A	I
A	R	I	A	E	D	L	O	H	U
A	R	A	K	I	R	R	U	L	L

7	1	3	2	8	5	6	4	9
5	4	8	7	9	6	1	2	3
9	6	2	1	4	3	5	7	8
3	7	5	8	2	9	4	6	1
4	2	9	6	3	1	7	8	5
6	8	1	5	7	4	3	9	2
2	9	4	3	5	7	8	1	6
1	5	7	9	6	8	2	3	4
8	3	6	4	1	2	9	5	7

2	7	9	5	3	1	6	4	8
3	6	1	2	4	8	7	9	5
4	8	5	9	6	7	2	3	1
6	3	7	1	5	9	8	2	4
9	1	4	3	8	2	5	6	7
8	5	2	4	7	6	3	1	9
1	9	8	6	2	5	4	7	3
5	4	6	7	9	3	1	8	2
7	2	3	8	1	4	9	5	6

AURREKO ERANTZUNAK

EKITALDIAK

Arama Bertso afaria. Maialen Lujanbio eta Jon Maia. Ostiralean, 21:00etan, Arrikutzen.

Aretxabaleta Antzerkia: *Miñan*. Artedrama konpainia. Ostiralean, 20:00etan, Zاراian.

Arrasate Peter and The Test Tube Babies. Bihar, 22:00etan, gaztetxean.

Berastegi Bertso afaria. Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldia. Ostiralean, 20:30ean, Ategin.

Bermeo Bertso saioa. Ibai Amillategi, Onintza Enbeita, Aitor Etxebarriazarraga eta Ane Labaka Maiotz. Bihar, 18:30ean, Talako kantinan.

Bilbo O’Gallagher, Kamaguchi eta Garcia trio. Bihar, 20:00etan, Jazzonen.

Bilbo World News eta Comic Sans. Bihar, 20:30ean, Azkenan.

Donostia Jonny Kaplan & The Lazy Stars. Bihar, 20:00etan, Dabadaban.

Donostia Antzerkia: Bakarriketa saioa. Maialen Sorzabalbere eta Leo Bueriberi. Bihar, 20:00etan, Kutxa Fundazioa klubean.

Donostia Antzerkia: *Amazonia gara*. Porrotx eta Mari-motots. Ostiralean, 17:15ean, Arantzazuko Ama ikastolan.

Durango Bulego. Ostiralean, 22:00etan, Ezkurdin.

Gasteiz Bertso saioa. June Aiestaran, Aitor Bizkarra, Julio Soto eta Eli Zaldua. Bihar, 20:00etan, Jimmy Jazz aretoan.


Getxo Go figure. Sharon Fridman. Bihar, 20:00etan, Muxikebarrin.

Iruñea Antzerkia: *Itzalpean*. Jaso ikastolaren musikala. Bihar, 18:00etan, Baluartan.

Iruñea Kaos Etiliko eta Deklibe. Bihar, 21:00etan, Zentralen.

Zarautz Antzerkia: *Ninini*. Antton Telleriaren bakarriketa. Ostiralean, 20:00etan, gaztetxean.

EKITALDIAK



Antzerkia: Errealitatetik fikziora saltoka

Udazkeneko Antzerki Aroaren barruan, *Itzulera* antzezlanaren taularatuko du gaur Dejabu konpainiak Iruñean. Errealitatearen eta fikzioaren artean jolasean ibiliko da antzezlanaren.

'Itzulera' antzezlanaren. Gaur, 19:00etan, Iruñean, Nafarroako Antzerki Eskolan.



Liburu aurkezpena: Hiru ipuin, batera

Jone Bordatoren *Erroen izerdia* liburuaren aurkeztuko dute gaur Hazparnen (Lapurdi). Hiru ipuin luze osatzen dute liburuaren. Iraganeko erroekin, baina etorkizuna eraldatuz joango dira protagonistak.

'Erroen izerdia' liburuaren aurkezpena. Gaur, 18:30etan, Hazparneko Et'abar liburu denda (Lapurdi).

Bisita gidatua: San Telmo ezagutzeko

Hainbat eraikin dauzka Donostiako San Telmo museoak, XVI. mendeko komentu domingotarra guztietan zaharrena, eta horiek hobeto ezagutzeko bisita gidatu bat egingo dute gaur arratsaldean.

San Telmo museora bisita. Gaur, 18:00etan, Donostiako San Telmo museoan.


Emaguzu zure inguruko ekitaldien berri: agenda@berria.eus
Euskal Herriko kultur ekitaldien agenda: berria.eus/zerbitzuak/agenda

ENERGIA AURREZTEKO AHOLKUAK
Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

Kanpoan giro freskoa dagoenean etxea aireztatuz gero, toloak erabiliz gero eta pertsianak itxiz gero, etxebizitzan sartzen den beroa murrizten da.

PETRONOR **REPSOL**

EGURALDIA



Hodeiak ugariago eta pixka bat freskoago


Mendebaldeko eta ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da. Orduak aurrera egin ahala, lainotzera egingo du. Eguerditik aurrera, giro goibela izango da, eta gauean ez da baztertzen euri pixka bat egitea, bereziki isurialde atlantikoan. Tenperatura jaitsi egingo da, eta beroenak 20-23 gradu artekoak izango dira.

	Bihar	Ostirala	Larunbata	Igandea
BAIONA	 16/19	 14/19	 13/23	 13/23
BILBO	 15/19	 14/20	 11/24	 12/25
DONIBANE GARAZI	 12/19	 11/20	 10/24	 11/25
DONOSTIA	 16/19	 14/18	 12/22	 14/24
GASTEIZ	 10/19	 9/19	 7/24	 8/24
IRUÑEA	 12/20	 12/21	 10/23	 10/23
MAULE	 12/20	 12/19	 10/23	 11/24
TUTERA	 15/23	 14/23	 11/23	 13/22

ITSASOA

Mendebal, ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, 3-4ko indarrarekin. Itsaskirria edo itsaskia eragingo du. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak metro inguruko olatuak altxatuko ditu.

ITSASALDIA	ORDUA	METROAK
Itsasgora	05:50	4,6
Itsasbehera	11:54	0,32
Itsasgora	18:10	4,78



BIHAR

Giro goibela, batez ere ipar partean. Euri apur bat egingo du, batez ere isurialde atlantikoan. Tenperatura maximoak gradu pare bat gehiago jaitsiko dira. Araba eta Nafarroa hegoaldean, argiago.



Ezjakintasunagatik izaten zaio beldurra itsasoari: garunak ez duenez behar besteko daturik, arriskuarekin bete ditzake eremu zuri horiek. Itsasoa leku mehatxagarri gisa irudikatzen duten istorioek hauspoa eman diezaioke joera horri.

→ Bi surflari Rio de Janeiroko hondartza batean, abenduan.
ANTONIO LACERDA / EFE

ZABALEGIA, ILUNEGIA, MISTERIOTSUEGIA

Testua:
**AMAIA IGARTUA
ARISTONDO**



kusi beharreko guztia harrapatzen da begirada bakar batean, eta, aldi berean, dena geratzen da ezkutuan. Lasaia dirudi itsasoak: bereziki laua dago, soinua ere apala du. Hor bukatzen dira ziurtasunak, ordea, eta hasten zalantzak: dirudien bezain segurua ote da? Zer dago urdin ilun horren azpian, hondo sakon horietan? Izakiren bat, agian, bainulari baten zain? Ezjakintasunak eragin du errezeloa. «Oro har, gure garunak beti betetzen du falta zaion informazioa, hura asmatu behar badu ere», azaldu du Iñigo Saez Uribarri ikerlari, surflari eta Bizkaiko Psikologia Elkargoko kidea. Biziraupen estrategia bat da, baina bada itsasoaren beldurraren oinarria ere: «Ez badugu hondoa ikusten, ezta inguruan zer dagoen ere, garunak mehatxu pertzepzio batekin bete dezake informazio hutsune hori».

Itsasoari dagokionez, askotarikoak izan daitezke mehatxuak, beldurra eragin dezaketen zirkuntantziak: behean zer dagoen ez ikustea izan ohi da behinena,

sakonerak eta flotatzeari uztearen ikarak ere deseroso sentiaraz dezakete, olatuak eta korronteak ez dira nolanahiko etsaiak, eta animalien presentzia sumatzea aztoragarria suerta daiteke. Hala, itsas zabalean erreferentziak galtzen dira, eta desagertu aingura gisa erabil daitezkeen elementu bisualak —gertuko kostaldea— eta ukimenezkoak —zoru sendoa—, garunari ezinbestekoak zaizkionak orekari eusteko eta non dagoen eta nora doan jakiteko. «Hutsune horrek desorientazioa eragin dezake, baita antsietatea eta segurtasuna bilatzeko jarrera ere», erantsi du psikologoak. «Baina, ia beti, itotzearen mamua da itsasoaren beldurraren atzean dagoena».

Baliteke sorburua ez egotea gertakari jakin batean, eta berezkoa izatea; are, baliteke ezauzgarri hereditarioak edukitzea. Era berean, itsasoaren inguruan helarazten diren usteek eta kontaktizunek ere baldintzatu ditzakete harekin eratzen diren harremanak: kasu baterako, Steven Spielbergen *Hawks* (1975) filmari itsasoaren beldurra hedatu izana egotzi izan diote askotan, nahiz

eta, berez, marrazoek ez duten izaten jarrera oldarkor hori gizakien aurka. «Fikzioa gure emozioak estimulatzeko», nabarmendu du psikologoak, «eta beldurra erraza da pizten». Hala, izaki arriskutsuak erakusten dituzten film ikusgarriak edo naufragioak eta olatu erraldoiak agertzen dituztenak izan daitezke itsasoari buruzko informazio iturri bakarrak harekin harremanik apenas eduki duen hartzaille batentzat. Besterik ezean fikzioak beteko baitu hutsunea, Saezek ohartarazi duenez. «Nahiz eta mehatxua egiazkoa ez izan, beldurraren kausaz hura saihesten denean gure garunak satisfazio edo sari seinale bat sortzen du, eta horrek ontzat jotzen du mehatxagarria zaigun hori saihestu izana».

Oparia, bizirik irauteko
Itsasoaren eremu ilunak argitzea ahalegina ez da berria, ordea, ezta *Hawks* filmaren garaikoa ere. Gizakia nabigatzeko gai izan zen unekoak dira, gutxienez, ur eremu zabal horren inguruko jarrerak, eta, orduz geroztik, askotariko taxuak hartu dituzte itsa-



«Beldurraren kausaz mehatxu bat saihesten denean, gure garunak satisfazio edo sari seinale bat sortzen du»

IÑIGO SAEZ URIBARRI

Bizkaiko Psikologia Elkargoko kidea

«Erdi Aroan ez zekiten zein zen munduaren hedadura; maparen eremu batzuk zuri zeuden»

XABIER ARMENDARIZ

Itsas historialaria

«Ez dugu ahaztu behar itsasoa eremu natural oso aldakorra dela, eta, batzuetan, oso arriskutsua»

BENJAMIN ROMERO

Gurutze Gorriko koordinatzailea

soaren mehatxuek. Hainbeste, ezen Bilboko Itsasmuseumek eremu bat eskainia dien itsasoaren arriskuei, haiei buruzko sinesmenei, eta itsas salbamenduaren arloan egon diren garapenei. Xabier Armendariz itsas historialaria da arduraduna. Azaldu duenez, garai greko-erromatarrean modu anbiguoan irudikatzen zen itsasoa: jainko-jainkosen bizilekua zen, eta dibinitate horiek onak edo maltzurak izan zitezkeen. Euskal sinesmenei dagokionez, ninfak zeuden, Isis Pelagia numen babeslea, baita galdu diren beste itsas jainko batzuk ere.

Kristautasunak, ordea, antzaldatu egin zuen itsasoa. «Infernua- ren irudikapen bat bilakatu zen, nolabait. Eta euskal herritarrok ere barneratuz joan ginen Biblian agertzen diren konnotazio batzuk», esplikatu du Armendarizek. Itsasoa Leviatanaren etxea bihurtua zen, baita beste izaki izugarri askorena ere; Erdi Aroko gutun nautikoetan eta ikonografian itsas munstroak agertzen hasi ziren. Ezezagunari zioten beldurra adierazten zuten irudi horiek, hain justu. «Mundua esferikoa dela greziarren garaitik



DENBORALEA. Volador ontzia Bolivar barkua atoian eramaten, Portugaleteko portura. BERRIA



MUNSTROAK. Abraham Ortelius geografoaren mapetako bat. ESPAINIAKO LIBURUTEGI NAZIONALA

zekiten, baina ez zen zekiten zein zen munduaren hedadura; mapa-ren eremu batzuk zuri zeuden», historialariaren hitzetan. Geografo aitzindariaren irudimenarentzat hauspo indartsua izan ziren zulo haiek: Abraham Orteliusen, adibidez, askotariko kolore eta formatako izakiz josi zituen ozeanoak *Theatrum Orbis Terrarum* (1570) atlasean.

Arriskua onartzea eta ahal bezala maneiatzea beste erremediorik ez zuten izan marinelek, Jainkoak jagongo zituen esperantzarekin. Armendarizek azaldu duenez, dibinitatearekin «kontratu bat» ezartzen zuten: eskaintza bat egiten zioten babesaren truke. Eskaintzailea ez zen Jainkoarengana zuzentzen, baizik eta santu edo birjina bitartekari batengana. «Hemen zera aplikatzen da: balio handiagoa du asmoak opariak baino», azpimarratu du historialariak. Izan ere, eskaintzek ez zuten zertan altxor bat izan, norberarentzat inportantea zen zerbait baino. «Dirurik gabeko arrantzale bat bazinen, zure ur trajea eraman zenezakeen, aitonarengandik oinordetutako hori, adibidez».

Nola artatu

Itsasoari beldurra izateak uste baino eragin larriagoak izan ditzake, Iñigo Saez Uribarri psikologoaren irudiko. Oztopoak eragin ditzake egunerokoan eta bizitza sozialean —plan batzuei uko egin behar izateagatik, adibidez—, baina segurtasuna ere kolokan jar dezake estualdi bat jazoz gero. Hainbat helduleku erabiltzen dituzte psikologoek beldur hori artatzeko:

● **Igeri egiten ikastea.** «Sari, igeri egiten ikaste hutsak antsietatea murriztu dezake. Uretan ibiltzen jakitea babes faktore bat da, eta norbere buruarengan konfiantza

edukitzen laguntzen du», esplikatzen laguntzen du», esplikatzen du psikologoak.

● **Gutxinakako esposizioa.** Pausoz pauso joatea gomentatzen du Saezek: igerilekuaren ertzerantz gerturatu, aurrea; aurpegia uretan sartu, bermeetatik askatu... Ur sakonagoetan ahalegindu ondoren, baita itsasoan ere, bare dagoenean.

● **Teknologia.** Errealitate birtualarekin egindako terapiak «itxaropentsuak» izaten ari dira, psikologoaren iritziz. Gutxinakako esposizioa egiten laguntzen du teknologia, baina busti beharrik gabe. «Murgiltze kontrolatua egiten dute, eta maneiatu daitezkeen emozioak sentitzen dituzte».

Ezinbestean, baina, galdu egin dira objektu horietako asko, batik batik aspaldikoenak. Foruko (Bizkaia) kobazulo batean, Isis jainkosaren estatua bat agertu zen, lema bat zeramala eskuan, erromanizatutako euskal herritar baten eskaintza ziur aski; gertuago, XVI.

mendeko marrazo matrailezur bat daukate Artziniegan (Ara- ba); oparoagoa da XIX. mendeko eskaintzen bilduma. Koadroak dira opari horietako batzuk, eta xehe-xehe irudikatuta agertzen dira ezbeharraren detaileak: hura eragin zuen denboralea, hautsi-

tako mastak, ontzia salbatzeko ahaleginetan dabilzan marine-lak, eta idatzi bat, gertakaria non eta noiz izan zen zehaztu eta barkuaren eta kapitainaren izenaren berri ematen duena; batzuetan, eskifaiaiko kideak salbatu zituen dibinitatea ere pintatzen zuten obran.

Munstrorik ez da agertzen, ordea. «Normalean, ezbeharren eragilea beti da denboralea, itsaso txarra...».

Errespetatzea komeni

Itsasoaren inguruko jakintza handituz joan da, segurtasun tresna mordo bat dago eskura gaur egun, eta pare bat aste lehenago ere aurreikus daiteke denborale bat. Eta, hala ere, superstizioak ez dira guztiz desagertu, Armendarizek ziurtatu duenez: leku askotan, herriko abadearen bedeinkazioa jasota itsasoratzen dute ontzi berri bakoitza, eta kristautasuna baino aspaldikoagoko erroak dituzten erritualak egiten dira zeremoniotan; era berean, ama birjinak ez dituzte barkuetatik egotzi oraindik. «Horrek berdin jarraitzen du; beldurra librea da», Armendarizen ustetan.

Beldurra baino gehiago, baina, itsasoari «errespetua» izan behar zaiola uste du Benjamin Rome-rok. Gurutze Gorriko Itsas Salbamenduko koordinatzailea da Araba, Bizkai eta Gipuzkoan. «Ez dugu ahaztu behar eremu natural oso aldakorra dela, eta batzuetan oso arriskutsua izan daitekeela. Klimak, itsaslasterrek eta faunaren presentziak nabarmen eragin dezakete gure segurtasunean».

Halakoak dira itsas salbamen- duko boluntarioek artatzen dituzten intzidentziak: baliteke minutu gutxiren buruan olatuak harrotzea eta haizea indartzea; karabela portugesa gero eta ugariagoa da euskal kostaldean, eta, gainera, badira itsas bakterioak eta bes- telako agente mikroskopikoak zauriak edota alergia eragin ditzaketenak; eta boluntarioen laguntza behar izaten dute, hala- ber, ontziren batzuek elkar jotzen dutenean. Baina jendea tentuz ibiltzen da, oro har. «Kontziente dira itsasoaren arriskuez. Eta na- bigazio istripuak gertatzen dira, baina ez dira hainbeste kontuan hartuta zenbat barku ibiltzen di- ren». Ezjakintasunak errezeloa elikatzen du oraindik. ●



**ATZEKOZ
AURRERA**

Ane Insausti Barandiaran

Leihoak zabalik dauzkaten bi baserri, eta basoan elkartzekoak diren hiru lagun. Erritu moduko bat eraman du pantailara Xabier Larrazabalek (Bilbo, 1986) *Kume* bere bigarren film laburrean, eta atmosfera misteriotsu bat sortu. Donoskino Donostiako Film Laburren Jaialdian aurkeztuko du gaur, 19:30ean, Antzoki Zaharrean.

Zure bigarren ikus-entzunezko kumea erakutsiko duzu gaur: *Kume*. Hitzordu misteriotsu batera doaz hiru gazte. Esan liteke zertara?

Ez, osterantzean misterioa desagertu egiten delako apurtxo bat. Jokoa hori zen, hori zen hasierako ideia: jolastea misterio horregaz. Hiru gazte elkartzen dira basoan, eta zalantza puntu bat mantentzen da. Esanez gero zertara doazen, film laburra hondatu egiten da, nolabait.

Bazenuten ulertuko ez zelako kezka? Esan dizue inork halakorik?

Ez digu inork esan argi ulertzen ez denik. Baina denetarik entzuten da gero, bakoitzak bere ideiak ditu eta. Misterioagaz jolasean dabilen film labur bat da, baina ez da guztiz irekia ere; horrek pentsarazten dio ikusleari gauza bat edo beste bat. Baina bada basoan pasatzen den gauza konkretu bat, eta ideia zen erritu moduko hori pantailara eramatea. Egonezin hori sortu nahi genuen, eta ikusleak giro horretan sortzea lortuz gero, gu pozik.

Isiltasunaren presentzia nabarmena da, eta kolpeek markatzen dute erritmoa. Giro hori sortzeko baliatu dituzue?

Bai, azkenean, joko hori egin gura genuen, kolpeena, eta iruditzen zitzaigun laguntzen ziola bai misterio giro horri, bai erritmoari. Muntatzean erabaki genuen zerbait izan zen.

Eta izenburua? Zergatik *Kume*? Hiru gazte dira protagonistak, eta gaztetetasunagaz dauka lotura misterio edo hitzordu horrek. Iruditu zitzaigun izen egokia zela *Kume*. **Basora jo duzu berriro, Maite aurreko film laburrean bezala. Inspirazio iturri da zuretzat?**

Bai, ni asko ibiltzen naiz basoan. Iruditzen zait jokoa ematen duela gauza askotarako, istorio asko



MONIKA DEL VALLE / FOKU

«Misterioagaz jolasean dabilen film labur bat da 'Kume'»

XABIER LARRAZABAL Zuzendaria

Basoan girotu du Larrazabalek bere bigarren film laburra: 'Kume'. «Egonezina» eragin nahi dio ikusleari, eta nork bere interpretazioa egin dezan bultzatu. Donostiako Donoskino Film Laburren Jaialdian emango du gaur.

sortzeko, eta imajinazioa pizten duela. Agian izango da asko ibiltzen naizelako han, eta ideiak ere horrela sortzen zaizkidalako. Iruditu zitzaidan leku iradokitzailea dela basoa.

Iradokitzailea bai, eta arazo teknikoak sortzen dituen ere bai? Haizea sumatzen da...

Bai. Filmatu genuenean, kristoren haizea eduki genuen, eta buruko min pixka bat eman zigun. Hailere, azkenean, halako ukitu bat

ere ematen dio irudiari eta filmari berari [barrez].

Protagonistak Nerea Gurrutxaga, Unai Madariaga eta Pello Armendariz dira. Ezagunak dira dantzan eta musikan, baina ez horrenbeste aktore lanetan. Zer moduzkoa izan da haiekin lan egitea?

Nik uste denok ibili ginela oso gustura, bai haiek eta bai gu. Denontzat izan da erronka; elkartu ginen, eta denok geunden berez egiten dugunetik kanpo. Haiekin egiteko gogoia geneukan, eta oso ondo moldatu ginen.

Zinebin eman zenuten film laburra. Zer harrera izan zenuten?

Ona. Horrelakoetan lagunak joaten dira beti, eta esaten dizute ondo dagoela. Baina gero zorrotzenak ere haiek izaten dira. Harrera ona izan genuen, eta ea zer moduz Donostian orain.

Izan ere, Donoskinon emango dute filma gaur. Badago film laburrak non proiektatua Euskal Herrian?

Nik esango nuke badagoela non erakutsi, leku asko daudela. Kontua da jende asko gabiltzala filmak egiten, baina lehen baino errazagoa da hori. Gero tokatuko zaizu leku batean edo bestean erakustea, baina lekuak badaudela esango nuke.

Euskara hutsezko bakarra da Donoskinon. Euskarak badu nahikoa presentzia horrelakoetan?

Ez dakit esaten, nik bi film labur



«Iruditzen zait basoak jokoa ematen duela gauza askotarako, imajinazioa pizten duela. Oso leku iradokitzailea da»

bakarrrik egin ditut eta. Baina Euskal Herrian esango nuke badutela presentzia. Esango nuke joan naizen lekuetan beti egon dela euskarazkoren bat. Harrobia egon badago, bai. Jende pila bat dabil gauza guaiak egiten.

Telebistan eta irradian ere ibili izan zara. Gustatuko litzazuke ikus-entzunezkoen sorkuntza lanbide izatea?

Aparteko zerbaiten moduan ikusten dut hau. Noizean behin film laburtxo bat eginda nahikoa dut. **Ez da erraza izango horretarako baliabideak biltzea...**

Ez, eta guk film labur biekaz izan dugun zortea da gure lanbideagatik inguruan badugula horretan dabilen jendea. Nahiz eta lagun arteko zerbait izan den hau, geure kabuz egina, baliabide batzuk hurbil izan ditugu. Eta horrek erraztu egiten du lana. Bestela...

Baduzu beste kumerik esku artean?

Oraingoz, ez. Baina ikusiko da. Ikus dadila hau, eta gero geroak. ●

LOTSABAKO

Baso bat? Zeanurikoan ibiltzen naiz ni.

Film labur bat? *The Fall*, Jonathan Glazer zinemagilearena.

Zinemagile bat? Kelly Reichardt.